



# arrisku bizian

Manu Elkanoren kasuak

JOSEBA KOLDO ORTEGA

BOOKTEGI



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

JOSEBA KOLDO ORTEGA

# arrisku bizian

Manu Elkanoren kasuak

# 1. Makal eta bakarrik sentitu zen

2017ko apirilaren 25a, asteartea

Manu makal zebilen. Azken egunetan nekatuta eta gaixo sentitzen zen. Eskerrak premiazko lanik ez zuten. Udaberri lehor eta bero samar hartan hotzeriak jota ibili zen aurreko egunetan, eztarriko minez eta mukiak jario. Gero eta okerrago zegoela ikusita, etxean geratu zen egun hartan, Frenadol, infusio beroak eta ezta pilaka hartu zituelarik.

Esnatu zenean, leihotik begiratu zuen. Kalea bustita ikusten zen. Euria egin zuen aurreko eguneko arratsaldean eta gauean zehar. Aspaldian egiten ez zuenez jendeak eta batez ere nekazariak gustura hartu zuten euria. Gosaldutzen zuen bitartean berriak entzun zituen: orduko, Frantziako presidentzialetarako bigarren itzulirako Macron eta Le Penen emaitzak eta posibilitateak ziren mintzagai. Iruñeko erdigunean liburu-azoka jarri zen aurreko egunetan eta bertan saltzaileek loreak oparitzen zituzten. Liburu aurkezpenak eta zenbait lekutan, institutuetan besteak beste, irakurketak antolatzen ari ziren astean zehar ospatzeko. Esperanza Agirrek dimititu zuen, bere babespeko Ignacio Gonzalez eta Granados ustelak izanda, kontrolatu ez zituelako. Bazirudien berri berdinak behin eta berriz entzuten ari zirela azken egunetan. Aspertuta sentitu zen. Aurreko eguna etxean pasata, hobe zegoelakoan, azken kasuen material eta txostenak ongi uzteketan autoan lanera itzuli zen.

Bakarrik ibili zen lanean, Jaker, denbora osoko lankidea, Tuteran zebilen han inguruko diskoteka batean suertatutako kasu berri bat ikertzen. kontaktu-web batzuetan droga eta prostituzio iragarpenak egiteaz gainera, bortizkeria erabiltzeko ahalmena aipatzen zuten. Maribel Erbitik, diskoteka bateko nagusia, gameluak, txuloak eta prostitutak ezin kanporatuz bere diskotekan izandako arazo handiak konpontzeko Jakerren laguntza eskatu zuen zuzenean eta Interneten gaizkileek zuten plataforman ikertzeko .

Manuk gaizki egin zuen lanera itzultzeagatik, erdi sendatutako katarroa berriro indarrez agertu baitzen. Horrek berriro etxeratzeri eta ohean sartzera eramane zuen. Egun osoa ohean pasa zuen. Komunera joateko eta infusio-eztia hartzeko izan ezik, ez zuen ezer egin. Etzanda zegoela, lokamutsean ibili zen, ideia eta imajina txar batzuk errepikatzen. Une batean, konturatu gabe, loak hartu zuen erabat. Amets aldrebesak izan zituen. Lehen erdi esna pasa zuena, amets gaiztoetan errepikatu zen, gehienetan, irudi nahasi eta laburrak zentzurik gabeak. Haien arteko bat, dena den, luzeago eta beldurgarriagoa izan zuen: Filorekin egin zuen amets edo. Emakumearen gaztetasuna nabariagoa zen, hamazortzi urteko gaztetxoek egun haietan bezala jantzen baitzuen, udatiar, shorts eta top bana jantziz. Irribarretsu hurbildu zitzaion, besoa sorbaldatik pasatuz, lagun handiek egiten duten bezala. Belarrira xuxurlatu zion.

–Manu, kontuz ibili. Ez fidatu eta zain ezazu zeure burua –berak, harrituta, galdetu zion.

–Zertaz ari zara? Kendu gaintetik eta erradazu zer gertatzen ari den. –Filo pixka bat urrutiratu zen eta eta begi klikada berezia eginenez, zerbait kontatzeko keinu izoztuan geratu zen.

–Manu kontuz nirekin eta nire oraingo nagusiarekin. –Manuk nagusia nor zen galdetu nahi zion. Filok irri gaiztoa eskaini zion, zentimetro batera eta mingainarekin ezpainak miatzkatuta jarraitu zuen–:

itzaletan, zuri begira, harrapatzeko unea espero dugu-eta. Izerditan esnatu zen. Premoniziotzat hartu zuen amets gaiztoa.

Egunean zehar Joxek, Felixek eta Patxik deitu zioten telefonoz nola zegoen galdetzeko. Amaiak eta Mirenek ere egunero deitzen zioten, baina Junekek eta Mikelek ez. Bi egun lehenago haiekin hitz egin zuenetik Manuk haien falta sentitu zuen, seme-alaben solasa. Horregatik izango zen triste egote hori. Arratsean hobeki zegoen eta betiko infusio-eztiaz gain aurreko eguneko oilasko-arroza berotu zuen zerbait ahoratzeko. Liburu batekin asperraldia pasatzekotan zegoela jaso zuen telefono-dei bat. Seme-alabak ziren. Egiten zituzten galderengatik beraren osasunarekin oso kezkatuta zeudela erakutsi zuten. Aurreko egunean Mirenek ez omen zien deitzen utzi, ez molestatzeagatik.

Gau hartan ongi egin zuen lo eta goizean hobeki sentitu zen. Ez zen gauza gehiegi mugitzeko, baina etxeko paperak antolatzen eta haien garbiketa egiten aritu zen. Laneko aferak ere erreparatu zituen. Jakerrek enpresa batean ikertu zituen delituak izan ezik, une hartan ez zuten lan handirik eta izandako kasuen txostenak ia osatuak zituen ordurako. Arratsaldean ia sendatuta zegoela pentsatu zuen eta kontu handiz eginez gero, bizitza normala egiten hasiko zen biharamunean.

## 2. Emakumeen salerosketa

Apirilaren 26a, asteazkena

Hurrengo egunean, gosariko orduan ustelkeriari buruzko berri bat zabaldu zen: beste alderdi politikoen dimisioa eskatu zioten Catala Justizia ministroari. Ikertzailea hobeki sentitu zen goiz hartan. Kalera atera eta erosketak egiten ibili zen eta eguerdian Felixen tabernatik, Toki Alaitik pasa zen. Hamabietan, kafe eta hamarretarako ordua pasa zenez, lan gutxi zuten eta Felix ere erosketak egiten ari zen. Gabrielak sukaldean plater bat prestatzen ari zen. Oilo-zopa goxo bat egin nahi zuen. Manu gaixoa ikustean bere osasunaz arduratu zen.

–Kaixo, Manu. Ikusten dut hobeki zaudela. Nahi al duzu infusioen bat edo nahiago duzu barrako pintxoren bat?

–Kaixo Gabriela. Bai, ongi nago eta erosketak egitera atera naiz. Gustura hartuko nuke oilo-zopa hori.

–Ordu erdi batean egina egongo da eta Felix itzuliko da bazkarietarako falta zaizkigun elikagaiekin. Bitartean, eguneko platerak prestatzen lagundu ahal didazu.

–Zure aginduetara. Kamaran nire erosketak utzi eta gustura lagunduko dizut salda goxo baten truke.

Biak lanean eta solasean aritu ziren. Felixen etorrerarekin Gabrielak beste plateren prestaketari ekin zion. Ohitura zuten Felixek zerbait bazkaltzen zuen jendea agertu baino lehen. Egun hartan Manuk eta biek bazkaldu zuten oilo-zopa eta haragi plater goxo bat. Bukatzen ari zirela, Jakerren deia jaso zuen ikertzaileak. Jantokian beste inor ez zegoenez tabernaren beste aldera mugitu zen ez molestatzeko.

–Kaixo Manu. Kasua uste baino korapilatsuagoa izan daiteke eta ez naiz berehalakoan Iruñera itzuliko.

–Kaixo Jaker. Zer gertatu da?

–Dakizunez, Maribel Erbiti enpresariak laguntza eskatu zigun prostituzioa bere diskotik kanporatzen laguntzeko. Egia da kontu zaila dela iragarkiak eta harremanen hastapenak web baten bidez egiten dituztelako eta antolatzen duen sareak prostitutak bidaltzen dituelako...

–Hori bagenekien. Jaker, zerbait gehiago jakin duzu egun batzuk pasata?

–Beno... Utzi kontatzen. Nazkagarria da emakumeen trata eta sadismoz tratatu txarrak eta bortizkeria bultzatzen dutelako. Bestalde, lanaren ikuspegitik kasuaren txarrena gaizkileak eta prostitutak topatzeko zailtasuna da. Baina, gainera, ezin da web hori kontrolatzea, konplikatua delako. Web-Sakonnean da, sare ezutu horretatik ari dira dena bideratzen eta oraindik ezin izan dut gauza handirik egin. Maribel Erbitik ulertzen du auzia argitzea eta arazoa konpontzea kostatuko zaigula. Beste diskoteketako nagusiek ere eskatu didate laguntza. Enpresen datuak eta helbideak bidaliko dizkizut korreoz. Kontatu didatenez Erbiti andrearekin egin dugun kontratua bezalako onartuko lukete. Ez zenuen espero ezta?

–Ez. Erran nahi al duzu diru sarrerak biderkatuko ditugula? Nola da posible hau? Auzi zaila topatu duzun arren, oraingo bezeroa mantentzeaz gainera beste batzuk lortu dituzu. Nola egiten duzu magia hau? Azaldu, mesedez.

–Lasai hartu Manu. Auzi konpartitua bezala, kontratu anitz gauzatu ahal duzu. Ikusiko duzu ez duzula arazorik izango, denak ados daudelako...

–Erran nahi duzuna da konbentzitu dituzula. Eta laguntza emango dizkizuten “kolegei” nola ordainduko diegu? Behar al dituzu?

–Ez kezkatu. TOR sisteman eta Internet Sakonean sartzeko behar beharrezkoak ditut. Txanpon edo diru birtualen bidez ordainduko diet. Zu ez arduratu. Enpresariak osagarri bat ordainduko didate horretarako. Zuk begiratu korreoan bidali dizkizudan datuak eta egin itzazu kontratuak...

–Ados. Arratsaldean deituko diet bezero berriei eta arazorik ez bada kontratu anitz hori bidaliko diet. Hitz egin behar dugu lasaiago. Zerbait gehiago al duzu?

–Momentuz ez zait bururatzen.

–Ongi da. Ongi ibili Jaker.

–Ongi izan Manu. Orain konturatu naiz ahotsagatik hobeki zaudela.

Ikertzailea desenkusatu zen traba eta dei luzeagatik eta bazkariarekin jarraitu zuen. Berehala bezeroak agertu ziren eta lagunak utzi zituen lanean. Manuk lo-kuluxka egin ondoren lanera abiatu zen kontratuak gauzatzeko. Jakerren korreoa ireki zuenean harritu egin zen diskoteka kopuru handiagatik. Maribel Erbitik laguntza eskatu zienean adierazi zien bere diskotekan droga saltzaile eta prostituta batzuk agertzen zirela eta kanporatuta ere itzuli egiten zirela. Kontua zen, nonbait, bazegoela sare bat prostituzio eta drogari propaganda egiten eta babesa ematen. Behin eta berriz agertzen ziren gaizkile berberak edo beste batzuk. Poliziek ezer gutxi egiten ahal zuten. Azkenean, Erbiti andreak gainetik kentzeko ikertzaileei laguntza eskatu zien, sarearen jatorria topatzeko eta sare horretatik libratzeko.

Diskoteka eta antzeko klubak zerranda espero baino luzeagoa zen. Hamasei bat diskotekak, Tuteran inguruko biez gainera, Zaragoza, Logroño, Gazteiz, Bilbo, Donostia eta baita Iruñean ziren. Denek Erbitiren arazo berbera zuten eta arazorik gabe onartu zuten kontratu anitz hura, bakoitzak gutxiago ordaintzearen truke. Jakerrek ongi konbentzitu zituen. Hitz egin zuenagatik inork ez zuen sare hartatik libratzeko modurik dirutza ordainduta ez bazen. Sareak Europa mendebalde osoan egiten zuen lan eta Jakerrek harremana zuen beste hainbat lekutako nagusi eta hackerrekin. Denen laguntzaz, baita Interpol eta tokian tokiko poliziekin koordinatuta, zerbait egitea espero zuten, baina ez zen erraza izango.

Egun hartan neke-neke eginda geratu zen sendatu berritan horrenbeste jenderekin mintzatu ondoren. Oso berandu ez bazen ere, etxeratu eta afari-merienda egin ondoren telefonoz hitz egin zuen Patxi, Felix eta seme-alabarekin eta oheratu zen.

## Apirilaren 27a, ortzeguna

Goizean goiz esnatu zen. Irratia piztu eta kafea prestatu zuen. Eguraldi eguzkitsuagoa espero zuten, baina tenperatura baxuak eta haizeak nabaritutako ziren. Berrietan entzun zuen kompetentzia eksklusiboak hartuz gero polizia foralak jende gehiago beharko zuela. UPNAk gradu berri gehiago izango zituen. Baina berririk komentatuena izan zen Barcelonak Osasuna 7-1 garaitu zuela eta gorritxoak bigarren mailara jaitsiko zirela.

Manu lanera mugitu zen. Bezero berriei kontratuak bidali ondoren prostituzio eta droga-sarearen arazoaren aurrean nola jokatu behar zuten pentsatzen geratu zen. Garbi zegoen ezin zirela ibili edozein prostitutaren atzetik. Lokalen nagusiek eta poliziek lan gehiago zuten. Sareek prostituzioaren inguruan sortzen zituzten bestelako delitu larriak: droga arriskutsuen salmenta eta tratu txarrak.

Interneten bidezko negozio ilun hartan jatorria topatzeko, Jakerrek berak egingo zuen bilaketa. Ez zen erraza izango estrategia apropos bat aurkitzea. Dena den, errekurso guztiak erabili behar zituztela garbi zuen. Poliziekin hitz egin behar zuen. Ordua zen harreman estua gauzatzeko. Ez zuten ezer lortuko elkarri laguntzen jokatzeko ez bazuten. Jabier Lopezekin hitz egin zuen. Komisarioak arazoaren gora-beherak jarraitzen zituen azken aldiak eta Manuren zentzu berean ari zen. Manuk deitu zuenean diosalak eginda, gizonak berehala sartu zen gaian.

–Manu, ez dakizu nola ibili garen azken asteetan. Betidanik izan da prostituzioa hainbat disko, klub eta pubetan, baina orain badirudi horren inguruan, tratu txar ikaragarriak eta droga erabilera arriskutsuak biderkatu direla... eta Tuterara eta ingururann izan dira kasu gehienak...

–Bai. Handik deitu ziguten diskorik garrantzitsuenaren inguruan bortizkeria, droga arazo larriak eta erailketa kasu bat eman direlako. Dena den, ez al da kasualitatea izango?

–Bestela gertatzen da orain. Leku askotan gertatzen ari dira kasu kezkarriak eta bortizkeria handiaz, gainera. Mafia arriskutsu bat sartu zaigu Portugaletik Italiara eta Ingalaterratik Alemaniara zabaldu dena. Badirudi Latinoamerikako mafia talde batzuek sortu dutela eta Internet Sakonetik gauzaten dutela beren negozioaren alderik ilunena.

–Horregatik ari da Jaker bilaketan. Tuterara bidali nuen ni makal nobilelako eta berak kaleko praktika gehiago behar duelako. Erran eta baieztatu didanez Web Sakonean ongi gordeta ari dira negozio ilunak bideratzen. Neskak ere engainatzen omen dituzte tratuan sartzeko.

–Bai. Niri baieztatu didatenez modelo sartzeko konbentzitzen dituzte. Badirudi berriro egin beharko dugula lan elkarrekin. Sail teknologikoan hasi dira lanean, baina Jakerrekin elkarrekin egin beharko dute.

–Hala da. Ea egoera larri honetatik ateratzen garen. Jabier, edozein berri izanez gero deituko zaitut.



–Gauza bera diotsut. Gero arte.

Ikertzailea denbora luzez pentsatzen geratu zen. Pistak aurkitzeko bidea, mundu digitalean Jakerrek egiten zuen saiakeraz aparte, prostituzio eta tratu nazkagarri hartan behartutako neska gaixo haiek topatzean zetzan. Matazaren haria. Jakerra kontatu zion eta ados zegoen. Sareko neska gaixo bat edo txuloak topatzeko, taldeko guztiek sarekada bat antolatu behar zuten gertaera lekuan, Tuteran alegia. Lauron artean eta Maribelen laguntzarekin matazaren haria topatuko zuten. Gorkarekin hitz egin zuen. Larunbat gauerako Tuteran izango ziren.

Eguerdian Manu auzoan bazkaltzera jaitsi zen. Toki Alain ez zegoen leku librerik ezta barran ere eta momenturik txarrean heldu zenez traba eginen zuelakoan etxera joan eta edozer bazkaltzeko ideia egin zuenean, mahai batetik bazkaltiar bat altxatu zen. Mahaiko beste bazkaltiarak ezagunak ziren, inguruko supermerkatu bateko langileak eta egoeraren jakitun beraiekin esertzera gonbidatu zuten Manu. Txitxirioak jaten zituen bitartean besteek postreetan ziren eta kafeen esperoan solas bitxia zuten. Beste hiru gizonetatik bi heldu samarrak ziren eta bestea gazteagoa, haiek ezkondata eta seme-alaba kozkorak zituztenak eta gaztea ezkongabe. Azken honek ez omen zuen ligatzen itsusi izateagatik eta zaharrek zirikatzen zuten txantxa giroan. kasualitatez gaia prostituzioa zuten.

–Mikeltxo, ezin baduzu ligatu, bilatu profesional bat. Entzun dudanez zure desiorik ezkutuenak beteko dituen prostituta aurki dezakezu –aipatu zuen gizon meheak–. Anima zaitetz eta kontratatu ordu bateko saioa zure fantasiak egia bihurtzeko.

Beste gizon helduak ez zuen mehearen tonu zirikatzaile ontzat hartu eta serioagoa edo, babestu zuen gaztea.

–Pello, utzi mutila bakean. Mikeltxok aurkituko du neska bat egun batean. Mutiko, ez izan presarik eta ez egin kasurik zahar horrek dituen fantasiei!

Manuk jateari utzi zion. Ez zituen gehiegi ezagutzen hiru langileak, baina tonuarengatik lankide eta lagun-giro hartan gonbidatuta sentitu zenez eta jakin-minez Pellori galdetu zion.

–Pello, non aurki daitezke desio ezkutuenak beteko dituzten prostitutak? Barkatu, baina badakizu ikertzailea naizela eta kasu batekin zerikusia izaten ahal duenez zerbait jakin nahi nuke –gizonak arazorik gabe erantzun zion.

–Ez izan kuidadorik. Entzun diot oso festazalea den bezero bati Interneteko web batean horrelako zerbitzuak kontratatu daitezkeela.

–Zein web-etan... ba al dakizu?

–Erran zidana zen “PSS” bilatzaileetan jarriz gero zerbitzu horiek ematen dituen prostitutak kontrata ditzakezula.

–Mila esker informazioagatik. Kopara gonbidatzen zaitut.

Handik gutxira langile haiek joan ziren eta Manuk bukatu zuen bazkaria. Hala ere, ahaztu baino lehen Jakerra PPS bilatzeko eskatu zion mezu bidez. Bazkaldutakoan atseden hartzera joan zen etxera.

Ordu batzuk beranduago, Jakarren dei bat izan zuen. Gazteak baieztatu zion web hartan, PSS-n edo Prostitution Special Services-ean, zerbitzu bereziak eskaintzen zituztela eta dirua ordainduta jendeak nahi zuen tokian ematen zituztela. Web hori hain zuzen ere bazirudien egokitua inguru hartara, zeren eta penintsulako iparraldea aipatzen baitzuen. Horrek erran nahi zuen beste web batzuk izango zirela eta Interpol-i eta beste ikertzaileei pasatu zieten informazioa. Bestetik, ikertzaile digitalak modelook izateko eta bilatzeko web batzuk topatu zituen Afrikako eta Hego Amerikako herrialde batzuetan erabiltzen zituztenak.

Arratsaldean Manu itzulia egitera atera zen lagunekin. Gustura ibili ziren eta merienda antolatu zuten, behin itzuli zirenean. Beranduago, iluntzean, ikertzaileak etxekoei deitu zien ongi zeudela segurtatzeko.

## Apirilaren 28a, ortziralea

Eguraldia hobetzen ari zen, baina haize freskoa nabari zen. Manuk berriak entzun zituen gosaldur bitartean. Podemos-ek zentsura-mozioa aurkeztu zuen PP-ren gobernuaren kontra ustelkeriagatik. Beste alderdi politiko handiek ez zuten aintzakotzat hartu eta antzezteaz hitz egiten zuten. Nafarroan UAGN-k laguntzetan diru jasotze ilegalak izan zituela zioten egunkariek. Nafarroako langabezia-tasak estatuko txikienak zirela zioten.

Bulegoan, Manuk lan burokratikoak egin zuen denbora luzez. Dena den, buruan eta gogoan hurrengo eguneko lana zuen. Ortziralea zen eta larunbat gauean egin behar zuten zaintza eta bilatze berezia antolatu behar zuten. Diskoteken nagusiekin geldituak ziren eta ekipoa ere prest egonen zen. Hala ere, badaezpada ere polizien laguntza behar zuten. Espero bezala, Jabierrek deitu zion errateko beraiek diskoteken inguruan eginen zutela zaintza lana. Ikertzaileei eta nagusien langileei utziko zieten zuzeneko zaintza. Baina beharrezkoa izanez gero, prest egongo ziren laguntzeko. Jabierrek horrela adierazi zion lagunari.

–Manu, mafia arriskutsuak izaten dira prostituzio bereziaz arduratzen direnak. Ibil zaitezte binaka elkarrekin, aparte aritu gabe. Beranduegia delako, bestela foruzain banarekin ibiltzeko antolatuko nuke. Hala ere, ez gara urruti izanen –Manuk ez zuen berdin ikusten eta adierazi zion.

–Primeran, eta prostituta guztiek kilometrora ikusiko gaituzte. Eskertzen dizut ardura, baina guk ere gure lana egin behar dugu. Espero dezagun prostituta horietakoren bat atzematea eta informazio esanguratsua lortzea.

–Nolako hizkera jaso duzun! Seriotan, Manu, benetan arriskutsua da horiek harrapatu nahi izatea, beraiek harrapatzen ahal zaituztetelako.

–Ongi da. Kontu handiz ibiliko gara eta zuek erne ibil zaitezketen –erran zuen txantxetan.

Hurrengo eguneko gauean han ibiltzeko azken prestaketak egin zituen Manuk. Lontxo eta Gorkari elkarrekin geratzeko mezua bidali zien. Nolanahi ere, etxeokoin gauzak argitu behar zituen. Aitarekin hitz egin zuen. Mirenekin ere asteburuaz mintzatu zen. Emazte ohiak larunbatean lan egin behar zuen eta hurrek aitona-amonaren etxean pasatuko zuten gaua. Igandean denak elkartuko ziren bazkaltzeko eta arratsaldea elkarrekin pasatuko zuten carting edo bolatokian denbora-pasa ederra egiten.

Eguerdian bazkari legea egin zuen. Goiz zen eta etxean atsedean hartu zuen. Arratsaldean ez zen lanera joan, nahikoa egingo zuen hurrengo egunean eta ordu batzuetan ahaztu nahi zituen lan kontuak. Ahaztu edo alboratu behintzat. Aspaldian ez zuen denborarik hartzen lagunekin lasai egoteko eta deitu zien lehenago elkartzeko. Ortzirale eta larunbatetan, batzuetan denbora luzeagoz egiten zuten ibilaldia.

Toki Alai tabernan Joxe eta Patxirekin elkartu zen Manu. Felixek langile berria agertu arte egon behar zuen lanean. Bitartean, bikote bat eta lagun talde txiki bat izan ezik, beste bezerorik agertu ez zenez eta zeudenek ezer gehiago behar ez zuten, lagunak lasaitasun ederrean izan ziren barraren bi aldeetan kafea hartzen. Konturatu gabe, Manuren lan berriaz aritu ziren mintzatzen. Beste kasuekin konparatuz, ikertzaileak esku artean orduan zeukan kasuan ez zen izenik edo pertsonaiarik babestu behar, eta ez zuten konfidentzialtasunik gorde behar. Mafiako nagusiak bilatu eta prostituzioan behartutako neska gazteak babestu behar zituzten. Patxi zen haserretuena.

–Manu, behar baduzue jenderik, kontatu nirekin.

–Baita nirekin ere –Joxek ere kontzientzia handia zuen, baina ez buru nahikorik. Felix zen hotzen mantendu zena eta arrazoiak eman zituen segidan.

–Zuek enbarazu baino ez duzue sortuko. Manuk laguntza behar izanen balu, gure esku izanez gero, laguntza eskatuko liguke. Ez al da, Manu?

–Bai. Felixek arrazoi du. Arriskuan egoten ahal zarete eta baita sortu ere. Badakit lagundu baino ez duzuela nahi, baina emakume-salerosketan ibiltzen diren gaizkileak eta nagusiak harrapatzeko jendea baino gehiago behar duguna suertea da. –Ez zuten solasa gehiegi luzatu. Laster langile berria agertu zen eta Felixek utzi ahal izan zuen lana lagunekin ibiltzeko. Arratsalde hartan itzuli luzea egin zuten. Nekatuta eta pozik merienda egin zuten.

Gauean, Manu Amaiarekin geratua zen. Kanpoan izana zen lanean eta asteetan ez ziren elkarrekin egon. Manu eta Amaia ofizialki bikote-lagunak ziren. Izatez edozeren gainetik horixe ziren, lagunak. Manu bananduta zegoen, baina ordura arte dibortziatu gabea. Ongi konpontzen zen emazte ohiarekin, baina beste pisu batean bizi zen ezkongabe bat bezala. Banandu eta hilabeteetara ezagutu zuen Amaia. Lau urtez maitaleak izan ziren, bai, baina aspaldian ez ziren askotan elkarrekin ibiltzen. Beraien lanengatik ez ziren maiz elkartzen eta bazekiten ez zutela etorkizunik bikote bezala. Hala eta guztiz ere, lagun handiak ziren eta elkarrengan konfiantza zuten. Ikusi gabe hiru aste pasa zuten, bazuten zer kontatu eta horretan pasa zuten afaria bitartean. Gero, pub batera joan ziren kopa bat hartzera eta dantza pixka bat egitera. Kopa pare bat gehiago hartu zuten eta konturatzeko erdi mozkortuta zeuden. Manu, Amaiaren etxean geratu zen lotara.

## Apirilaren 29a, larunbata

Hurrengo egunean berandu eta buruko minez altxatu zen Manu. Amaiak gosaria prestatu zuen eta denboratxo bat pasa zen gizona mintzatzeko gauza izan arte. Egun eguzkitsua eta tenperatura oso baxuak zituzten. Irratiko berriak entzun zituzten: Sanferminetako kartelerako "Carabinagre"rik xamurrena izendatu omen zuten garaile eta mundu guztiak "Carabinagre" bai ala ez. Comptos-ek Ultzamako biogas plantan xahututako hiru milioi ikertzeko eskatu zion Fiskaltzari... Manu hobeki zegoen aspirina hartu ondoren. Amaia serio mintzatu zitzaion.

–Manu, gero eta zaharrago zaude!

–Hara besteak! Zu gero eta gazteagoa! Egitan erran behar dizut oso ongi zaudela!

–Ez haserretu! Zaharrago baino serioago zaudela erranen nuke.

–Arrazoi duzu, kezkatuta eta haserre nabil.

–Ulertzen dut. Emakume gaixoak, edonoren bortizkeria jasan behar izatea ere!

Auzora jaitsi zenean Manuk erosketak egin zituen eta alaba-emearekin pasatu zuen eguna. Edonola ere, buruan gaueko lana zuen eta ez zuen nahi bezala atseginez eta gustura eguna pasa. Haurrak agertu zirenean Iruñeko alde zaharrera igo ziren goiza pasatzera. Paseatzen egon ziren eta eguerdian pizzeria batean bazkaldu zuten. Arratsaldean bolatoki batera joan ziren eta afari-merienda egin zuten. Arratsean, haurren gustuko entsalada txakarekin eta tortilla afaldu ondoren amona-aitonarenera joan ziren gaua pasatzera. Manu, Gorka eta Lontxorekin elkartu zen Tuterara abiatzeko. Han, Namoon Music diskotekaren kanpoaldean elkartu ziren Jaker eta Lala bere neskalagunarekin. Jende asko biltzen ari zen. Tuterako Namoon, Feel Good, Vegeta disco eta Cintrunigoko Casio Dancing Club inguruan gertatuak ziren arazo larriak eta bi erailketa. Hildako bat, koman larri izan ondoren aurreko egunetan hil zen.

Aspalditik sumatu zuten prostituzioaren inguruan mugimendu dezente. Baina bi aste lehenago bi leku desberdinetan agertu ziren bi emakume, haietako bat hilda eta tortura larriak jasan zituztela garbi zegoen. Zentronikoko diskoaren inguruan ere erdi hilda aurkitu zuten beste bat. Hark snuff edo tortura eta erailketa errealez egindako filmak egiten zituztela adierazten zuen. Prostituta haien ezaugarriak berdinak ziren: oso gazteak, hemezortzi urte ingurukoak, izugarri politik eta mehe samarrak ziren. Aurreko astean, hildako bat disko handi haren ondoan agertutakoan, Maribel Erbitik Namoon-eko nagusiak haiek kontratatu nahi izan zituen hilketen jatorria topatzeko eta horrelako ezbeharrak ekiditeko. Ordutik masokistentzako web-orri haietaz hitz egin zuten diskoetako nagusi batzuek eta Maribelek Jakerren lana ezagututa, kontratatu nahi zuen.

Gorka eta Lontxo hurbil zegoen beste diskora abiatu ziren eta Manuk, Jakerrek eta Lalak, Namoonen bilatu zituzten ezaugarri fisiko ezagun haiek zituzten emakumeak. Ez zen erraza izango prostitutak itxuragatik desberdintzea. Ondo-ondotik, janzeran, makillajearen ñabarduretan eta bereziki

jarreragatik nabarituko zuten bilatzen zutena. Maribelek eta bere hurbileko batek lagunduko zieten bilaketan. Emakumeak adierazi zien nola jokatu zuten.

–Matik lagunduko dizue txoko guztietatik bilaketan. Manuk eta biok egingo dugu hemendik beste diskora. Aipatu duzuen neska mota hori leku apartatuetan eta taldeetan baino, bakarti edo kopuru txikiko gizon taldeetara hurbiltzen dira bezero bila.

Ikertzailea eta nagusia jende multzoen artean mugitu ziren. Musikaren erritmoan mugitzen zirenen artean pasa ziren. Ziur aski ez zuten bilatzen zutena dantzari haien artean topatuko. Sumatzen zutenez, leku zehatzetan geldituko ziren bezeroekin web-orrien txataren bidez. Disko barnetik itzuli bat egin ondoren, sarrera nagusian eta inguruan begiratu zuten. Aparkalekua ez zen handiegia, baina inguruko zinema, jatetxe, hotel eta enpresen aparkalekuak erabiltzen zituzten bezeroek. Txoko asko zeuden eta autoen artean jende anitz ibiltzen zen. Bilatzen zuten tankerako neska bat baino gehiago topatu zuten. Protokolo bat egin zuten bilatzen zutena zela egiaztatzeko. Hala egin zuten behin baino gehiagotan.

–Kaixo neskak. Maribel Erbiti naiz, diskotekako nagusia eta hau Manu nire laguna. Zuek bezalako neska baten bila gabilta. Neska batek ihes egin du etxetik, baina familian arazo larri bat daukate eta haren bila dabilta. Erakutsiko al diguzue Nortasun Agiria mesedez?

Hego-Amerikako neska bat baino gehiago topatu zuten. Hala ere, ez ziren bilatzen zituztenetakoak. Adin txikikoa behar zuen izan. Beste diskora bidean, leku guztiak miatu zituzten, txokorik utzi gabe. Zenbaitetan Manu urrutzen zen Maribelen bistatik inor urrutiratzeko. Halaxe topatu zuten bakarrik zegoen gaixo hura. Maribelek neska batzuei galdetzen zien bitartean, beste bat ezkututzen ari zela nabaritu zuen ikertzaileak. Harengana disimulurik gabe hurbildu, besotik hartu eta dokumentazioa eskatu zion. Neskak, beldurrez, polizia zelakoan, eman egin zion. Maira Robles Kolonbiakoa zen eta hamazazpi urte bete berriak zituen. Ez zen bilatzen zuten itxura betekoa: ez zen hain mehea. Urduri zegoen eta ikaslea zela zioen. Dena den, prostituzioan ari zen dudarik gabe. Maribelek, lagunduko ziotela konbentzitu zuen eta elkar-lekura eramane zuten. Jaker eta Lala Iruñera itzuli ziren beren aldetik. Gorka eta Lontxo, Maribel, neska eta Manu, bostak Iruñera abiatu ziren Jabierrekin topatzeko. Goizeko bostetan foruzainen kuartelean zeuden eta komisarioak galdeketa egin zion neskari. Maira heldu berria zen. Modelo eskola batean ikasteko aitzakian kontratatu zuten eta beldurra jota, prostituitzeko eramane zuten Tuterara. Aurreko egunean, ortziralean, jarri egin zuten salmentan. Zaintzaile bat jarri zioten, harrapatu zutenean ihes egin zuena. Neskak gehienez abizenik gabeko izen batzuk baino ez zituen aipatuko: beste neska batzuenak eta Raul eta Walter txuloenak. Tuterako pisu baten helbidea ere bazekien. Zoritxarrez, foruzainak hara joan zirenean ez zuten inor topatu. Zirudienez neska askatzea besterik ez zuten lortuko. Bera babes-etxe batean artatuko zuten.

## Apirilaren 30a, igandea

Igandean, uste baino lehengo esnatu zen Manu. Loak ez zuela hartuko jakinda, altxatu zen, garbituak egin eta gosaldtu zuen. Eguraldi txarra zegoen. Haizea, euria eta tenperatura baxuak zituzten lagun, irratia arabera. Berrietan entzun zuen parlamentuak hilabete bat eskatzen zuela CANeko paperak

aztertzeke, Eskirozeko poliester enpresa bat erre zela eta Gernikan errefuxiatuen aldeko zutabeak elkartu zirela.

Artean, goiz zen Jabierrek deitu zionean. Goizaldean, Iruñean, kolpe eta tortura arrastoak zituen neska bat agertu zen erdi hilik. Koman zen eta ezin izan zuten berarekin hitz egin. Okay diskotekatik hurbil topatu eta justu bilatzen zuten itxurazko neska bat zenez, tratan sartu zuten neska gaixo bat izango zela susmatu zuten. Bestalde, Barakaldon beste neska gazte batek lortu zuen ihes egitea.

–Zer da hau, Jabier? Kasualitatez topatu ditugu larriki zauritutako neskak?

–Ez. Hau ez da kasualitatez gertatu. Mafia batek neskak eskaintzen ditu sadikoek nahi dutena egiteko, baita hiltzeko ere, nahikoa ordainduz gero. Barakaldon ihes egin duen neskak ematen ahal izan digu sadiko batzuen pista, beraiek lagundu baitzioten.

–Eskerrak pista bat lortu dugun! Ea suertea alde jartzen den!

Eguerdian familia-bazkaria ospatu zuten. Igande askotan egiten zuten, aitona-amonak Iruñean zirenean behinik behin, azken urteetan denboraldiak egiten baitzituzten kanpoan, Saloun lagun batzuen apartamentuan edo Inersoko opor-asteetan. Gustura egon ziren, lasai eta beraien gauzez kontu-kontari, elkarren konpainiaz disfrutatuz. Arratsaldean, Carting egitera joateko plana egin bazuten ere, Mirenek ez zien baimenik eman, Mikel orduko umeegia zelakoan. Junek hamalau urte zituen eta gorputzez eta buruz helduagoa ematen zuen; Mikel, berriz, hamaika urterekin umeagoa zen. Mirenek ez zien seme-alabei nahi zutena egiten uzten, ama maitakorra baina zorrotza izaki. Amona ere zorrotz samarra zen, baina aitona eta Manuk gehiago mimatzeko joera zuten. Mirenek Carting-era joateko asmoa zutela entzun zuenean ez zien utzi, eta besteek, baita semeak ere onartu zuten. Amak berdin jokatzeko sakelako telefonoen erabilerarekin. Juneri, nahikoa heldua zelakoan uzten zion asteburuetan erabiltzen, baina Mikeli ez. Jakina zen kasu batzuetan behintzat, azken aldira hurrei jaunartzerako telefonoa oparitzen zirela. Ikastetxeetan eta institutuetan debekatuta zegoen telefonoa erabiltzea eta eramatea, baina ikasleek askotan ez zuten debekua errespetatzen gurasoen baimenarekin. Hori ez zen familia eta seme-alaba haiekin gertatzen; Miren ama maitekorra eta emana izateaz gainera emakume zentzuduna zelako. Familiako besteek laguntzen zioten amari horretan.

Beraz, Carting-era joan ezean eta eguraldiak laguntzen ez zuenez zinera joatekotan egon ziren, baina eguraldi txarrak eta pelikula asko Mikelentzat gomendagarriak ez zirela ikusita, amona-aitonarenean geratu ziren telebistan Lara Croft-en pelikularen amaiera ikusten eta Tron Legacy filma hasi zenerako loak hartu zituen gaztetxoak. Beranduago, karta-jokoan aritu ziren.

### 3. Premiazko deia

#### Maiatzaren lehenean bahiketa bat ikertzen

Zazpiak aldera dei bat jaso zuen ikertzaileak.

–Kaixo Manu, Rakel Elizalde naiz. Sentitzen dut festa egun batean deitzea, baina oso aferarria daukagu eta zure zerbitzuak premiazkoak dira... –Manuk ezagutzen zuen enpresari hura eta ez zuen alferrik aipatuko premiazkoa izatea.

–Kaixo Rakel, aspaldiko! Zer kontu da hori?

–Ezin dizut telefonoz kontatu... Bihar festa eguna izanda ere, zure laguntza eskatu behar dizut; badakit normalean ez duzula festa egunetan lan egiten, baina ez dut beste irtenbiderik. Laguniezaguzua mesedez. Agian egun bakarreko kontua izan daiteke, baina bihar behar zaitugu. Gainera, momentuz zeuk zure laguntzaileei ezer ez kontatzea eskatu behar dizut. Festa egunetako tarifak eta sari berezia emango dizugu laguntzekotan. Mesedez...

–Ongi da. Badakit ez didazula alferrik eskatu. Kontatzerik ez duzunez, zer iruditzen zaizu bihar goizeko bederatziatan nire bulegoan geratzea?

–Primeran. Mila esker laguntzeagatik.

Gaututakoan Manu etxera joan zen. Goserik gabe, fruta hartuta irakurtzen eman zuen lotarako aurreko denbora.

#### Maiatzaren 1ean, astelehena

Goizean goiz, eguraldi hobea iragarri zuten. Gosaltzean berri latza entzun zuen Manuk: Txantreako jaietan mutil batek eraso sexuala egin zion neska bati, biak adingabeak. Berriek egunarekin bat langileen aldarrikapenak adierazten zituzten. Gehien errepikatzen zena langileen lan prekarietatea zen. Aparteko berria zen Osasunaren berdinketa.

Goizeko bederatziak hogeit gutxitan bulegoan zen Manu. Komunera joateko premia sentitu zuen. Txirrina behin eta berriro jo zutenean, ikertzailea komunean zegoen eta laster atera behar izan zuen. Joaldi luzeek eta geldialdiek, oso premia handikoak ez baziren ere, beharra adierazten zuten. Nahigabetuta, eskuak erabat lehortu gabe ireki zuen atea. Aurrean topatu zuena emakume dotore, eder eta ilehori bat zen. Laguna ez bazen ere, ezaguna eta ia konfiantzazkoa. Esku bustiak erakutsiz desenkusatu zen ez ukitzeagatik eta musu pare bat eman zioten elkarri.

–Sentitzen dut hitzordua baino lehen etorri izana, Manu. Premiazko kontua da hau eta aurrez aurre hitz egitea erabaki dut.

–Ongi da, Rakel. Ez zaitut aspaldi honetan ikusi. Oso ongi eta eder zaude.

–Badakizu ez ditudala losintxak maite, baina zuk ez duzu gezurrik erraten. Mila esker. Zu beti bezala zaude.

–Mila esker zuri ere. Ia bi urte pasa dira azkenekoz elkar ikusi genuenetik.

Rakel Elizalde, Begoña Ugarteren lagun handi bat zen. Emakumeak adierazi zuenez, Rafael, bere bazkide eta lagunaren bila zebilen. Aurreko ortzirailean ez zen lanean agertu eta ez etxekoek ezta lagunek ere ez zuten haren berririk. Goizean bezero berri batekin geratu omen zen elkarrizketa bat izateko, baina inork ez zuen horretaz bat ere informaziorik. Goiz erditik, espero zuten momentutik alferrik saiatu ziren berarekin mintzatzen. Ez zuen sakelako telefonoz erantzuten. Bere emazteak, koinatuak, lagunak eta Rakelek ez zuten haren arrastorik topatu inon, ez betiko lekuetan, ezta gustuko eta bisitatzen zituen lekuetan. Manuk ulertu zuen, baina gauzak garbi nahi zituen. Zuzenean galdetu zion Rakeli.

–Adierazi duzun moduan ez diozue poliziari ezer erran. Zer uste duzue, bahiketa dela?

–Hala da. Uste dugu dirua ateratzeko bahitu dutela eta informazio gehiago ezean poliziari ez deitze erabaki dugu.

Ondorenean, Rakelek bazkide eta lagunaren datuez gainera, haren lan-bizitza kontatu zion ikertzaileari. Rafael Gomez Sanzol, garraio eta logistika arloan enpresario handia zen. TRANSLONASA, Transportes y Logistica de Navarra S. A. ko nagusietako bat zen. Enpresa handia eta arloko garrantzitsua zen inguru zabal batean. Ehunka kamioi eta beste enpresa txiki batzuk kontrolatzen zituzten. Logísticas del Norte enpresekin federatuta, milioi askotako fakturazioa zuten. Enpresako nagusiek partaidetzaz eta etekinaz gain, soldata altuak zituzten, zuzendaritzan zuten lanaren arabera. Rakelek, promozioa, publizitatea, hau da alde komertziala eta gainera aseguruaren saila zuzentzen zituen bestearen aginduz eta Rafelek berak zuzendaritza orokorra eta diruzaintza kudeatzen zituen. Bakarrik hirugarren bat, Jaime Iriberrri konpara zitekeen agintaritzan, zuzendaritza teknikoa eramanez. Jaimek, Karmele emazteak eta Rakelek erabaki zuten isilean izatea, Manu badaezpada ere kontratatzea eta bahitzaileei ordaintzea, dirurik eskatuz gero. Rakel joan baino lehen Manuk GPS bat eman zion diruarekin jartzeko eta aukeran bahitzaileak kontrolatu ahal izateko. Hurrengo orduetan, ikertzailea Jaime eta Karmelerekin mintzatu zen telefonoz. Karmelek bere gizona berreskuratzea baino ez zuen buruan. Hurrengo goiza, dirua biltzen pasatuko zuen. Emakumeak ez zion inolako pistarik eman Manuri. Ez zuen negozioaz eta bere lan-bizitzaz ideiarik. Jaime Iriberrri, berriz, susmo handiak zituen. Ez zuzenean zerbaitetan erruduna izateagatik, bere lanean zuen funtzioagatik baizik. Rafael zen enpresako diru-kontuen kudeatzailea eta beti zebilen bankuetan, enpresetan eta baita epaitegietan ere. Hala ere, adierazi zuen diruagatik edo zer egingo zuela, ilegalitatearen bat egiteko gauza izan zitekeela iradokiz. Diruzain nagusiaren telefonoa eman zioten. Diru kontuez Antonio Zunzarrenek gehiago argituko zion ikertzaileari. Jaimerekin telefono-elkarrizketa bukatu baino lehen zerbait bitxia adierazi zuen zuzendari teknikoak.



–Gauza bat argitu behar dizut, dena den. Nik ez dut diru kontuez ideia handirik eta argi adierazi dizut ez dakidala ezer txarrik egin duen ala ez, baina Rakelek kontu horietaz ni bezain ezjakitun izateaz gain, uste du Rafael aingerutxo bat dela, munduko gizonik onena dela –ikertzailea harritu zen adierazpenarekin.

–Zer erran nahi duzu? Ez dizut ulertu.

–Rakel maiteminduta dagoela Rafaelekin. Amodio platonikoa da eta ez diozu berari buruz informazio garbirik aterako. Ezin du berataz ezer txarrik pentsatu eta edozer egingo du Rafael gurekin izateko.

–Maitemintze kontu horrekin, zer erran nahi duzu..., ezin naizela Rakelekin fidatu behar?

–Ez. Itsu dagoela eta ez du onartuko hark ezer txarrik egin duela.

–Orduan ezin dugu Rafaelengandik kontu ilunen bat baztertu behar.

–Hori da! Uste dut garbi hitz egin dizudala!

–Garbi... iradoki duzu. Orain argi utzi duzu. Mila esker.

Antonio Zunzarrenekin hitz egin zuen ondoren. Gizonak apala zirudien. Bizitza osoa eman zuen diru kontuak kudeatzen, baina ez zuen erabakirik hartzen. Adierazi zuen bezala berak pasatzen zizkioten paperen arabera egiten zituen balantzeak, excelak eta bulegari baten laguntzaz zenbakiekin zerikusia zuten lan guztiak, nominak barne. Berak ez zuen ezer esateko, nahiz eta beti Rafaelen agindupean lan egin. Manuren galderak zirela eta, zerbait gehiago aipatu zuen.

–Beno, ez naiz oso ziur. Nik ez dut ezer garbi, baina Rafaelek kontratu batzuen gora-beherak kudeatzen zituen inolako informaziorik eta konturik kontabilitate departamendura pasatu gabe. –Manuk ezin zuen pista hura pasatzen utzi behar.

–Ez dakizu ziur, baina edozein datuk eta baita susmok laguntzen ahal dute haren desagertzearen arrazoiak argitzen eta onik berreskuratzen. Esadazu mesedez zer susmatzen duzun.

–Zenbaitetan, enpresa edo pertsona desberdinekin izaten zuen harremana eta guk ez genuen horretaz ez agiririk ezta diru konturik. Lan batzuk bere kabuz gauzatzen zituen. Nik banekien garraio batzuk paperik egin gabe egiten zirela.

–Horrek zer erran nahi du, Rafaelek bigarren kontabilitate bat eta diru beltza jasotzen zuela, ezta?

–Ba... Bigarren kontabilitatea ohikoa da gurean. Niri ez zait gustatzen, baina enpresa batzuekin egiten dugu. Rafaelek bere kabuz egiten zuena zerbait gehiago da, haratago doa. Nik ez dakit zertan zebiltzan, baina garraio txiki batzuk gutxitan egiten ziren, hilabetean behin edo bitan egiten zituen. Rafael, gainera, batzuetan desagertzen zen nondik ibiliko zen erran gabe.

–Orduan diru beltzaz gain, ezkutuko kontu ilunetan ibiltzen zen nagusia.

–Nik ez dut halakorik erran. Ilun edo ez, guk ez genuen garraio eta diru kontu horien berri. Besterik ez.

Eguerdian auzora jaitsi zen. Festa eguna izanda ere, Toki Alai tabernan bazkariak ematen zituztenez hara jo zuen ikertzaileak. Felixenera sartu zen bazkaltzera. Laguna eta Gabriela lanpetuta zeuden bazkariekin. Emakumeari musu bat eman zion, bere laguntza eskertzeko. Askok mimatzen zuen tuperretan prestatuta janari goxoak emanez eta noizean behin bestelako mesedeak eginez. Sukaldeko jakiak begiratuta txitxirioak, lirio goxoak eta etxeko natillak aukeratu zituen. Gabrielak bizpahiru lehen plater, beste hainbeste bigarren eta pare bat edo hiru postre sukaldatzen zituen. Denak ongi, goxo prestatuta eta prezio onean. Manuk pentsatzen zuen hilero zor zuena ordaintzen zuenean tranpa egiten ziotela eta gutxiago kobratzen ziotela. Kexatzen zenean galdetzen zioten ea ezin zuten kafe edo kopara gonbidatu, lagun prezioan egiteagatik, ez ote zen laguna eta isilarazten zuten. Laster, libre geratu zen bere txokoan bazkaldu zuen gustura. Felix berarekin eseri zen postrea eta kafea hartzeko. Lagunak lanaz galdetu zion.

–Hara, Manu zertan ari zara? Kontatu didatenez lanean zabilta. Ezin zenion zure laguntzailereren bati lan hori egiteko agindu? Ezin du Jakerrek lan hori egin?

–Ez. Hain zuzen ere, bezeroak niri diskrezioz egiteko eskatu dit. Jakerrek ez du ideiarik ere.

–Zer moduz ari zarete Jaker eta biok? Ongi moldatzen zarete lan kontuetan?

–Bai. Orain kanpoan da kasu batean ikertzen eta ni bakarrik nabil kasu berri horrekin, baina primeran konpontzen gara. Elkarrekin eta elkarrengandik ikasten ari gara aunitz.

la bi urte pasa ziren Manuk Jaker bazkide bihurtu zuenetik. Felixek bazekien Manuri teknologia berrietan aritzea kostatzen zitzaiola eta gazte hark batzuetan ez zituela legalitatearen mugak errespetatzen. Horrek Manuren haserrea sortzen zuen, baina finean ongi konpontzen ziren eta iruzur berrien kontra batzuetan beste modu batean jokatu behar zuten, betiko mugak gaindituz. Joateko zorian ezuste atsegina eman zion Felixek lagunari.

–Zein ordutan geratu zarete ibilaldia egiteko? Gaur ere barran laguntzera etorriko da langile berria eta gustura ibiliko naiz zuekin.

–Aupa Felix. Lau lagunok elkarrekin ibiliko gara. Zortzietan Joxeren atarian geratu gara.

Etxean kuluxka egin ondoren igo zen bulegora. Etxean geratzeko gogoia gainditzea kostatzen zitzaien, baina zerbait egitekotan oinez mugitu zen alde zaharreko bulegora. Ordu gutxitan deituko zieten dirua jaso ahal izateko. Familiakoek, Rakelek eta ikertzaileak adostu zuten bezala bizi-probak eskatuko zituzten dirua eman aurretik. Jaimek eta Rakelek kontratua sinatuta bidali zioten korreoz. Manuk kasu guztiekin egiten zuen bezala karpeta berri bat ireki zuen eta txostena osatzen hasi zen. Ordura arteko egoera laster adierazi zuen, gauza handirik idazteko ez zegoelako. Rakel, Jaime, Karmele eta Antonioren susmoak ere labur jaso zituen. Aipatzeko merezi zuten bakarrak diruagatik bahiketaren hipotesia eta diru beltzaren inguruko susmoak ziren. Manuk espero zuen deia jaso zuen. Rakelek kontatu zion ikertzaileari Karmelek bahitzaileen mezua jaso zuela. Rakel, emaztearekin zegoen gertatu zenean eta

berak entzun ahal izan zuen ahots eraldatua. Erreskate bat eskatzen zuten. Biharamun arratsean milioi bat euro eraman behar zuten adieraziko zieten leku eta orduan. Rakelek bizi-proba eskatu zien bahitzaileei eta hauek Rafaeli esan zioten hitz egiteko. Gizonak ongi zegoela eta ordaintzeko eskatu zien. Emaztearen negarrei erantzunez erran zion ez kezkatzeko, dirua emanez gero bera itzuliko zela. Emazteak adierazi zuen hurrengo goizean saiatuko zela dirua lortzen. Bankuetan ibiliko zen likedezia eta isiltasuna eskatuz. Ikertzaileak deiaren grabazioa entzun ahal izan zuen. Emakumeak handik ordu erdira berriro deituko ziola hitz eman zion. Gainera ikertzaile-taldekoei laguntza eskatzeko baimena eta eskaera egin zion. Grabazioak ez zuen pistarik uzten eta ondorioztatu zitekeen bakarra zen Rafaelek espero zuela dirua ordainduta askatuko zutela. Ziur aski bahitzaile profesionalak izango zirela edo behintzat dena ongi egiten ari zirela. Rakelek berriro deitu zuenean pentsatzen zuena kontatu zion. Biek pentsatu zuten bahitzaileei kasu egitea. Edozein aldaketa izan ezean aurrera egingo zuten. Hurrengo eguerdia arte agurtu zuten elkar. Handik gutxira Jakerren deia izan zuen. Gazteak komentatu zion Iruñetik jarraituko zuela diskoteken inguruko ikerketa. Denek argi zutenez kanpo zaintzak beste batzuek, hain zuzen ere polizia sekretuek egingo zituzten ziur aski. Hurrengo asteburuan zain geratuko ziren diskoteken inguruan zer gertatuko zain, baina Internet Sakonean jarraitu egin behar zuten Jakerrek eta bere kideek, polizia eta Interpol-ekin harremanetan. Gaztea, hurrengo goizean agertuko zen bulegotik. Hala ere, Manuk kasu berriaren gainera informazioa eman zion. Konturatzeko, zortziak izateko gutxi falta zen. Laster batean jaitsi zen auzora. Festa eta era berean lan-eguna bukatuta, etxekoekin mintzatu zen telefonoz. Berandu izan arren, Joxe eta Felixekin elkartu zen, paseatzera joateko. Patxi ez zen puntualki agertu, baina mugikorrez adierazi zien bidean zela eta hiru minutuan elkartuko zela haiekin. Lau lagunak paseo azkarra egitera atera ziren. Felix eta Joxe aurretik zebiltzan bitartean, Patxi eta Manu atzetik hizketan hasi ziren. Laguna kezkatuta zegoen Manurekin.

–Manu, ez dakit nola hasi.

–Lagun, kristorenak bota behar al dizkidazu? –erantzunarekin Patxi barre txikia egin zuen, seinalea ez zela beraren kontrako zerbait edo ez oso larria behintzat.

–Ez. Beno ez erabat. Kontua da Begoñak hitz egin duela Mirenekin eta bart gauean erran zidan zure ohiak gaizki ikusten zaituela. Ez omen zabilta pozik eta gauza guztietan, berarekin eta etxekoekin zerikusia duten gauzetan behintzat ezgauza, nekatuta eta presaka zabiltzala ikusten zaitu. Begok dio Mirenek oraindik maite zaituela, baina ez dakiela asmatzen nola birbideratu zuen harremana –Manu pentsatzen geratu zen.

–Ba..., uste dut arrazoi duela. Izanen da gaixorik egon naizela, baina arrazoi du. Ez nago gustura nire lanarekin, nire bizitza pertsonala egiten ez uzteagatik. Garbi daukat gehienetan ez naizela etxekoekin behar bezala... Baina "Mirenek maite nauen" kontu hori? Nik sentitzen dut ez dudala aita papera ongi betetzen.

–Eta etxekoekin ibiltzeko, lanean aldaketa egiten ahal duzu?

–Ez dakit nola egingen dudan!

Toki Alain sartu zirenean jende asko zegoen eta kuadrillako Andoni, Alfonso eta Satur topatu zituzten. Gutxitan izaten ziren elkarrekin, baina ezohiko egoera aprobeztatuz pote eta pintxo bana hartu zuten.

Lastima Pablo, Andres eta Xabier han ez izatea. Mintxo xelebrea agertu zen eta beti bezala han izan zen ikuskizuna!

–Andonik dio ez zaretela lagun onak –bota zuen gizon sentibera hark.

–Aupa hi! Hori da hori gaian sartzea! –erran zuen Felixek. Andonik jarraitu zuen.

–Nik ez dut horrelakorik erran. Mintxotonto honek harrapatu du esaldi baten bukaera edo, ez daki zertaz ari nintzen. Erran nahi nuena, hain zuzen ere, bazen ez garela lagun bezala askotan elkarrekin ibiltzen.

–Egia da. Nahiz eta zuek urrunago bizi, errazena da hemen elkartzea zuek, gu eta beste lagunak ere – izan zen Joxeren sententzia. Denak ados, pote bat eskatu zuten eta antolatuta izan gabe, zerbait meriendatu zuten.

## Maiatzaren 2a, asteartea

Manu goiz mugitu zen lanera. Zein eguraldi tristea! Tanta batzuk eskapatzen ziren eta eguerdian temperatura epelak espero zituzten. Autoan berriak entzuten ari ziren. Olabeko lurrikara aipatu zuten. Aurreko eguneko maiatzaren lehenengoaz aipamenak egin zituzten: UGTk eta CCOOk soldaten igoera aldarrikatu zuten, bestela grebetara deituko zutela erranez. ELAk eta LABek murrizketen aurreko egoerara itzultzea eskatzen zuten eta sindikatu guztiek lanpostuetan lan-baldintza hobek.

Bulegora igo zenean Jakerrekin elkartu zen. Gazteak kafe egin berria eskaini zion. Bulego handiko sofan eseri ziren. Jarreragatik harrিতa zegoen Manu. Gaztea ez zen hain zeremoniatsua izaten. Lehenengo hitzek ere mutilak zerbait zuela baieztatu zioten. Zermoduzka hasi zitzaion eta nagusiaren aurpegiagatik, ezohiko urduritasuna adierazten zuela konturatuta, berarekin kontsulta bat zuela eta bere aholkuak behar zituela erran zion. Jakerrek sarekada bat prestatzeko ideia zuen. Gazteak Ramon Zudaire foruzainen inspektorearekin hitz egin zuen aurreko egunean. Bera zen Jabier Lopez Astiz komisarioaren bigarrena eta askotan bezala auzi berezietz arduratzen zen. Ertzaintza, Foruzaingoa eta inguru zabaleko beste polizia koordinatzen ari zen inspektorea. Hildakoak eta kasurik larrienak Tuteran gertatu zirenez Foruzaingoa eta inguru hartako diskoteka nagusiak ziren tortura eta erailketa kasuetan lehendik lanean ari zirenak ikerketan eta zaintzan. Manu galdetu zion bere lankideari Interneteko ikerketaz.

–Jaker, zer topatu duzue Internet Sakonean? Iruditu zait zer edo zer ez duzula aipatu, zerbait isildu duzula alegia.

–Zer nahi duzu? Topatu dudan gordinkeria ez diot Lalari erakutsi eta ez diot inori erakusteko asmorik. Manu, gehienetan emakumeenak, snuff bideoak izan dira nazkagarrienak. Erailketak, torturak eta bortxaketak gezurrezko edo errealak, horiek bai direla lizunkeriak!

–Eta pistarik topatu al duzu? Gure inguruan ekintza horiek egiten dituztenekin loturarik topatu al duzu?

–Ez. Bideo horiek ikusten botalarria izan arte ikusi ondoren ez dut loturarik lortu. Beno, ...

–Beno, ...zer?

–Ezer ez. Prostituzioaz, gure lurraldeko erreferentzia egiten duen sadikoentzako orri batean bideo batzuen link-a edo lotura egiten dute, baina imajinekin ez da inolako informaziorik agertzen.

## 4. Jaker eta Lala

Gaia utzita, bazirudien beste gauza batez galdetu nahi ziola gazteak nagusiari. Manu jakin-minak jota zegoen. Manuk ez zuen ulertzen gaztearen jokaera, normalean lasaia eta hitz egiteko arazorik ez zuen mutila urduri jokatzeko ari baitzen. Jaker ez zen jabetzen jokaera bitxia erakusten zuela eta zalantza erakutsiz azkenean adierazi zuen kezkatzen zuena. Poliki eta hasieratik hasi zen kontatzen. Lala, andregai, ikerketetan zaletuta zegoen. Ez zen harritzeko kriminologia ikasten ari baitzen. Azken hilabeteetan parte hartzen ari zen kasu batzuetan, zaintza lanetan eta Interneten bidezko informazio bilaketan. Jakerren laguna zena, azken urtean bikotekide bihurtu zen eta orduantxe Jakerrek lankide bezala onartzeko proposatu nahi zion Manuri. Neska-lagunarekin ongi konpondu nahi zuen eta lankide izateak pikutara botatzen ahal zuen beraien arteko ongizate pertsonala. Arriskatzea erabaki zuen. Ez zion neskari erran, baina lanean serioago laguntzeko proposatu nahi zion eta Manuri baimena eta aholkua eskatu zizkion. Jaker lankide bihurtu zenetik, gero eta ikertzaile hobea zen. Manuri ez zitzaion inporta neskak kasuez jakitea eta batzuetan parte hartzea, konfiantzazkoa baitzen eta laguntza baino ez zien ematen. Hala ere, berak ere zalantza zuen ez ote zen bateraezina maitasun harremana eta lana. Hantxe zegoen koska. Manuk gauzak ez zailtzea erabaki zuen.

–Begira, Jaker. Niri Lara beti iruditu zait ikerketarako ona dela. Ez dizut ezer aipatu, zuen harremanetan ez sartzeagatik. Orain adierazi didazu lankide bezala onartzeko. Nik ez dut arazorik eta badakit ongi egingo dugula lan. Arriskua hartuko duzue zuen maitasun harremanetan. Proposa izeaiozu ea zer iruditzen zaion. Nik uste dut gustura onartuko duela, baina zuen harreman pertsonala pikutara botatzen ahal duzue. Zuek ikusi zer egiten duzuen. Ni ados nago. –Mutilak lasaitua hartu zuen eta era berean oso garbi ikusi zuen arriskua. Lehenengoz irribarre egin zuen eta erantzun zion Manuri.

–Arrazoi duzu. Ez dakit nolakoa izango den gure harreman pertsonala. Edonola ere, emakume burutsua eta lasaia da eta badakit lanean ez dugula arazorik izango.

Manuk Lala imajinatu zuen bulego hartan. Itxura oneko, eta ezin atseginagoa zen neska hark detektibe sena zuen. Pentsatu zuen kriminologia ikasketak bukatu artean zenbait hilabete pasatuko zirela. Denbora nahikoa lan egiteko moduan eta bulegoan egokitzen ari zirela. Lanbide hartan emakumezko gutxi zebilen eta polizien artean, gutxi ziren ardura zutenak. Alde horretatik gauzak aldatu behar ziren. Lala, gainera, oso ongi moldatzen zen edonorekin. Harremanetarako eta behar zenean hitz egiteko ez zuen arazorik, gizez beteriko lanbide hartan beharrezkoa zena. Irri eginez bukatu zuten hizketaldia. Beste kafe bat hartu zuten, eten egin eta bestelako kontuez aritu bitartean. Bi ikertzaile eta bazkideek bazuten beste kontu bat. Tartean Manuk bazuen bahiketaren aferaz zalantza eta gaztearen laguntzaren beharra. Azkeneko berriak eman ondoren galdetu zion hacker hari zer egiten ahal zuen. Honek adierazi zion ikertzen hasi behar zuela ea zer topatuko. Gazteak ikertu behar zuen garraio enpresan, Rafaelen jardueretan eta diru kontuetan.

Solasean bukatzen ari zirela, izena eman ez zuen pertsona batek telefonoz kontsulta bat egiten ahal zuen galdetu zion. Arraroa zen Manuri lagunkiro mintzatzen ari zitzaiolako. Egindakoaz konturatuta, nonbait, deitzaileak barkamena eskatu zion eta bere buruaren aurkezpena egin zuen. Pepi Fernandez zen, Begoña Ugarte enpresariaren beste lagun bat. Manuk agurtu egin zion. Begoñarekin ikustean ezagutzen zuen, baina ez gehiegi. Emakumeak adierazi zion arte-galerista eta margo-lanen

salerosketetan aritzen zela. Azken aldian jatorri garbia ez zuten margo batzuk agertu ziren eta Manuri ikerketaren posibilitateaz galdetu nahi zion. Manuk adierazi zion gaiaz ez zuela ideia handirik eta une hartan ez zekiela astirik izanen zuen. Beste ikertzaile batzuk bilatzea aholkatu zionean, Pepik ez larritzeko eta bilera lasaia egin bitartean lana ez errefusatzeko eskatu zion. Hurrengo goizean elkartzeko aukeraz hitz egin zuten. Berehala, ikertzailearen bulegoan hamaikak aldera gehiago hitz egitekotan geratu ziren. Hala ere, deia bukatu baino lehen, enpresariak adierazi zion Manuri ez zuela arteaz gehiegi arduratu behar eta Elena Burgi bere bazkideak lagunduko ziola horretan. Arteaz gutxi zekien Manuk, faltutzeaz eta garaiko artistaz gutxiago. Arte historiaz justu ideia orokor bat zuen. Izandako estilo nagusiez eta lanik eta egilerik famatuez ezagupen gutxi batzuk baino ez zituen.

Jaker bere langelan ari zen ordenagailuetan lan egiten. Mutilak barneko gela bat atondu zuen bere erara. Sofa, bi aulki, mahai bat, potentzia handiko bi ordenagailu, pantaila handi bat eta eramangarria ziren altzari-traste bakarrak. Leku txikia izan arren eta patiorako leihoa ere txikia izanda, bi pantaila txikietan eta handian noizbehinka nahieran aldatzen zituen imajina eta paisajeek bizitasuna eta zabalera ematen zioten lekuari. Gazteak gustura egiten zuen lan. Hasieran, bi ikertzaileak gela handian bi mahaitan antolatu zuten lantokia. Dena den, bisitek edo deiek ez zioten Jakerri lanean arreta jartzen uzten eta gela hura antolatu zuen. Behar zutenean, askotan, bata bestearengana joaten zen, baina bestela, egiten zuten lanean gehiago kontzentratzen ahal ziren. Hala ibili ziren egun hartan denbora batez.

la ordu bata eta erdiak ziren eta Manuk Rakelen deia jaso zuen. Lortu zuten diru kopurua eta prest ziren edonora mugitzeko, trukea egin eta Rafael askatzeko. Manuk emakumeari gogoratu zion diruaren artean GPSa utzi behar zuela. Urduri nabari zenez, ikertzaileak lasaitu zuen emakumea. Agurtu eta bahitzaileen deia zain geratuko ziren. Ikertzaileak azkar asko Gorkari deitu zion diruaren segizioa egiteko. Gazteak gaueko eta asteburuko segizio eta begirale lanetan jarraitzen zuen Lontxoren laguntzaz. Ordenagailuz GPSaren seinalea eta kokapena jarraitu ahal izango zuten. Gorka eta Lontxo prest izanen ziren diruaren bidea eta ziurrenez bahituaren mugimendua jarraitzeko. Ez zuten polizien laguntza, bahitzaileek eskatu zuten bezala, baina bahitua arriskuan sumatuz gero, deituko zieten salbatu edo askatu ahal izateko.

Eguerdian, Manu auzora eta etxera mugitu zen zerbait ahoratzeko eta deskantsatzeko. Bulegotik mugitzeak on egiten zion lasaitzeko. Hala ere, urduri zegoenez ez zen betiko tabernara joan eta etxean fruta eta bokata bat jan zituen. Kuluxka arina egin zuen eta gustura bulegora oinez igoko bazen ere, arratsaldean bahiketaren bukaeran prest izateko autoz igo zen. Ibilgailua aparkalekuan utzi zuen. Edonola ere, mugitzeko beharra zuen eta itzuli bat egin zuen Redin eta Medialunatik Ezkaba mendiari eta iparraldeko auzoei begiratzeko. Udaberriaren indarraz bete nahi zuen bere burua. Redinen jende gutxi zebilen. Zaldi Zuria pasa eta balkoira hurbildu zen. Urduri eta bizirik sentitu zen. Zuhaitz eta belardietako berde garbi dirdiratsuek liluratu zuten gizona. Egun iluna eta estalia izanda ere, udaberriaren indarra nabari zen. Arnastu zuen airean lurrin kutsu bat sumatu zuen. Ezkaba eta Txantreari begira geratu zen. Frantziar talde bat hurbildu zenean, lekua utzi zion. Ingurura begiratu zuen inork jarraitzen zuen ikusteko. Deus arrarorik nabaritu ez zuenez paseatzen jarraitu zuen. Zumalakarregiren atarira hurbildu zen. Inguruak eta atariak beste garai batera eramaten zuten. Berdin zitzaion garaia, baina eguneko denbora iheskorren gainetik eternitateaz eta iraunkortasunaz konturatu zen. Denboren gainetiko ibilaldiak on egin zionez, prest zegoen lanera eta bulegora itzultzeko.

Bulegoan sartu zenean berandu zen. Dena den, gustura ibili zen paseatzen eta on egin zion. Jakerrek komentatu zion goizean urduri nabaritu zuela eta poztu zela lasaiago ikusteagatik. Garagardo bat erdi bana konpartitu bitartean gazteak Rafaeli buruz jakin zuena kontatu zion. Ez zen gauza handirik, baina enpresak izan zituen arazoak Nafarroako Ogasunarekin. Kontabilitate imajinatiboa erabiltzen zutela agertzen zen txostenetan eta Ogasun-ikuskariak hainbat isun ordainarazi egin zieten. Rafael enpresako diru arduraduna zen, baina Jakerrek uste zuen kontu ilun gehiago izango zela. Zerbait gehiago jakingo zuen mundu digitalean begiratu gero, nolabait ere arrastoaren jatorria aurkitzeko arduradunaren inguruan mugitu beharko zuten. Manuk gogorarazi zion gazteari bahitua salbu eta aske izateko laguntzeko kontratatu zitzutela: bakarrik bahiketaren ariak eta segurtasuna interesa zitzaizkiela. Manu kasuen txostenak osatzen ibili zen eta konturatzeko joateko ordua zen. Rakelekin hitz egin zuten bulegoa utzi baino lehen, baina ez zuen bahitzaileen berririk eta orduko ez zekien noiz eta nora eraman beharko zuten dirua.

Aurreko egunean bezala geratuak ziren lagunak ibiltzeko. Azken aldian ahal zutenek lanegunetan ateratzen ziren. Norbaitek egun batean huts eginez gero, beste hiru edo lau egunetan ibiliko zen. Manu Joxerenera heldu zen ibiltzeko prest. Edozein modutan, badaezpada, poltsikoko telefonoari egingo zion kasu, deituz gero zitzuan mugitzeko. Autotik ez urruntzeagatik Patxi eta Joxerekin elkartu zenean auzotik ez urruntzea proposatu zien. Oblatas-en zubia pasa, erreka bestaldeko paseoa jarraituko zuten San Pedro zubiraino eta itzuli, autora lasterkan hamar minutuan heltzeko moduan. Hiru lagunak martxa arinean ibili ziren itzuli osoan. Toki Alaira sartu zirenean kaina bana eskatu zuten. Felixek lanaren aitzakia eman zien beraiekin ez ibiltzeagatik. Egia zirudien, Jende asko baitzebilten poteatzen eta pintxoak hartzen. Manu kaina bukatzen ari zela, bederatzi eta erdiak aldera jaso zuen Rakelen deia. Bahitzaileek abisua eman zuten dirua prest izateko eta berriro deitzean elkar-tokira arin mugitzeko. Poliziari ez deitzeko abisua errepikatu zuten. Ezin zuten ezer berezirik egin eta dena bukatu arte agurtu zuten emakumeak. Manuk Gorkari deitu zion prest izateko eta urrutitik behatzeko.

Manu laster etxeratu zen Gabrielak tuper banatan prestatutako barazki-zopa eta arrain goxoak eraman zituen. Etxekoekin mintzatu zen une batez. Gurasoak ongi zeuden eta emazte ohia eta seme-alabak beti bezala, prakak bete lan. Mirenek galdetu zion hurrengo larunbatean seme-alabekin geratuko zen. Aita desiratzen zegoen, baina ikertzaileak ez zekien lanaz libratuko zen. Diskoteken bortizkeriak eta hilketen kasuek arreta eskatzen zuten eta alternatiba bakarra seme-alabak gauean amona-aitonekin uztea zen. Mikelekin bere futbol taldeko martxari buruz solastu zen; Manuri gaia gustatu ez arren, Mikelen zaletasuna zen aldetik, gustura entzuten zion semeari kontakizuna. Anek gogoratu zion pizzerian bazkari bat zor ziela eta larunbatean semearen futbol-partidaren ondoren joatekotan geratu ziren. Amaiarekin ere hitz egin zuen. Eskerrak honek asteburua okupatuta zuen, bestela beste dezepzio bat emango zion. Lagun harekin igande arratsaldean geratu zen.

Afaldu eta oheratzeko prestatu zenean Rakelen deia jaso zuen. Ordu bat eta erdi lehenago deitu zieten hiper bateko aparkalekuan elkarrekin geratzeko. Atariaren inguruan ez zegoen beste autorik eta zain egon ondoren beste auto batean bi bahitzaile eta Rafael enkaputxatuta agertu ziren. Dirua hartuta, gizagaixoa utzi zieten. Zorionez bahitua askatu zuten arazorik gabe.

Rakelek agurtutakoan, Gorkaren deia jaso zuen. Bera eta Lorentxo etsituta zeuden. Ez zuten GPSaren bidez jarraitzerik izan. Gertatutakoa bat zetorren Rakelek kontatutakoarekin. Urrutitik jarraitu zuten



Rakel. Hiper ezagunaren aparkalekuan agertu zenean, arin egin omen zuten trukea. Urrutitik bi begiraleek bahitua izandakoa auto batera sartu zela ikusi zuten. Gizagaixoa behintzat aske zen, baina GPSaren seinalea orduantxe desagertu zen, beste auto batean bahitzaileek diruarekin alde egin zutenean. Bahitzaileek GPSa aurkitu eta txikitu izan balute bezala izan zen. Bestela, inhibitzaile bat erabiliko zuten. Ez zen gaizkileak jarraitzerik izan.

### Hilaren 3a, asteazkena

Manuk goiz hasi nahi zuen lanean. Ongi gosalduta, oinez igo zen, behaketarako auto premiarik izan gabe. Eguraldi polita eta eguzkitsua iragarri zuten, baina hala ere langarra ari zuen. Arratsaldean hogeita hiru gradura igoko ziren tenperaturak. Bulegoan sartzean, sukaldean zerbait hartzeko gogoa izan zuen. Lehenengo kafea bukatzen ari zela, Jaker agertu zen. Mutilak agurtu ondoren, kafea hartzen zuten bitartean, gazteak aurreko arratseko ikerketaz mintzatu zitzaion nagusiari. Rafaellek bazituen auzi batzuk Ogasunarekin, baina larriagoa zen gazteak jakin zuena. Diru-kontu imajinatiboez gain ezkutuko kontuak eta diru beltzaren erabilera sumatzen zuten Ogasunean. Bestalde, Jakerrek jakin izan zuen Rafaelen harremanen artean batzuekin informazio arraroak gurutzatzen zituela, zeinetan telegrafikoki eta klabeetan idazteagatik zerbait ilegala ezkututzen zutela susma baitzitekeen. Jakerrek mezuak eta bestelako datuak gorde zituen aurrerantzean gehiago sakontzekotan. Manuk, gauzak horrela, ikerketa bertan behera utzi behar zutela pentsatu zuen. Eskatu ezean, ez zuten kontratuaren haratago ikertu behar. Rakeli azkeneko jakingarriak adierazteaz gain, ez zuten Rafaelen eginetan arakatzen jarraituko. Kontua zen auzi hartan, bahiketa ordaintzeko edo, Rafaelen dirua erabili zutela. Zuzenean ez zuten inolako diru-iruzurrik topatu. Litekeena zen diru haren bidez, tranpak edo zor bat ezkutatu izana.

Rakelekin hitz egin zuen ikertzaileak, luze eta sakon egin ere. Emakumeak ulertu zuen han bazela zertan ikertu. Hala ere, ez zuen aurrera egiteko asmorik. Momentuz kasua bukatutzat eman zuten. Jaker ez zen bere txokora erretiratu. Gaztea eta Manu mahaiaren ondoan eseri ziren, bazuten eta beste kasu zail bat ikertu beharrekoa. Prostituten kasuan plan bat behar zuten.

## 5. Bilboko sarekada batetik eta arte-iruzurra bestetik

Ramon Zudairerekin eta Bilboko Ertzaintzako Isidoro Markina inspektorearekin telefonoz ari ziren hitz egiten bi ikertzaileak, gaizkileak sarekada batean harrapatzeko. Larunbat gauerako plan bat antolatu behar zuten sadiko taldea harrapatu zutela aprobetxatuz. Hala ere, basakeria fenomeno hura inguru zabalean ematen ari zenez, Furuzaingo, Ertzaintza, Guardia Zibila, Polizia eta ikertzaile pribatuen arteko koordinazioa landu behar zuten. Esku librean Markina inspektorea mintzatzen ari zen.

–Jaunok, larunbat gaueko sarekada gauzatu baino lehen, zibilekin eta poliziekin elkartu behar dugu. Gaizkileak inguru zabal batean ari dira jokatzeko edo behintzat beste talde batzuekin harremanetan ari dira, baina gure kasuetan Bilbotik Zaragoza bitarteko diskoen inguruan izan dira kasu gehienak. Beraz, bihar, ortzegun arratsaldean bilera izango dugu Logroñoko hotel batean. Ordua eta helbidea beranduago emango dizkizuet. Garrantzitsua da ikertzaile pribatu eta “hackerron” nolabaiteko parte hartzea.

–Ziber-ikertzaileek Internet Sakonean ikertuko dute, baina zer paper utzi diguzue ikertzaileoi? –galdetu zuen Manuk. Zudairek erantzun egin zion.

–Zuek hobeki mugitzen zarete kamuflatuta. Guk sarekada aseguratu baino ez dugu eginen.

Goizaren bukaeran Pepi Fernandez eta Elena Burgi agertu ziren. Pepi ilehoria zen, altua eta makilatuta zegoen. Elena gaztaintzara zen eta aurpegi borobil eta begirada-keinu irribarretsua zuen. Elena arte-marchand bat zen eta margo-lanen merkaturan aditua. Diosalak eginda, berokiak kendu zituztenean estilo kaxual-eko jantziak erakutsi zituzten. Pepik gona laburra, atorra estua eta lepoko ikusgarria janzten zituen gorputz eskulturala nabarmenduz. Elenak, berriz, praketa eta jertse erosoak janzten zituen. Jaker ere agertu zen bulego nagusira. Aurkezpenak eta agurrak eginda, besaulkietan eseri ziren gizonak, bi aldeetan, emakumeak erdiko sofan esertzen ziren bitartean. Emakumeek ez zuten ezer hartzeko gogorik eta presa zutelako aitzakian lehenbailehen hasi nahi zuten. Eseri zirenean, Pepi, izter, belaun eta berna ikusgarrien jabe izatearen jakitun, irri egin zien gizonari. Ez zuen pentsatzen bere gorputza hutsez gizonak sorgintzen zituela, baina gizonak aztoratzea eta zirikatzea gustatzen zitzaion eta bere buru-argitasunarekin nahi zuena lortzen ohitura zuen. Pepik errepikatu zuen aurretik zekitena. Berak arte-galeriak zituen hiri batzuetan eta margo-lanak saltzen zituen. Azkenaldian agertutako margo batzuk zalantzak zituen eta susmatzen zuten faltsuak zirela. Emakumeak arte ezagupenez ez arduratzeko erran zien, laguntza izanen baitzuten. Irri erakargarria erakutsiz jarraitu zuen. Ohiko tarifak izateaz gain kasua denbora gutxian argituz gero, diru-sari ederra emanen zutelala hitz eman zien.

Elenak jarraitu zuen zehaztasun batzuk ematen. Agertutako margo faltsu haiek ez ziren hildako margolari famatuen lan ezagunak edota jatorri garbikoak. Margo garaikide haiek inpresionistak, post-inpresionistak, fauvistak, modernistak, abstraktuak, kubistak eta futuristak ziren, ziurrenez artelanik garestienak. Hain zuzen ere, Pollock espresionista abstraktua, Monet inpresionista eta Cezanne eta Van Gogh postinpresionistak ziren gehien plagiatu eta faltsifikatzen zirenak. Merkataria frantziar batzuek aditu famatu batzuen egiaztagiriek merkaturan arte-lan asko eta garestiak aurkeztu zituzten. Galerista eta margo-merkataria, milioi pila bat balio zuten margoak ikertzen ari ziren, faltsuak zirela pentsatzen zutelako. Kasua zen tailer bat eta margolari on batzuk, lan faltsu haiek egin zezaketenak, Iruñean topatu

zituztela. Egia erranda ez zuten erabateko probarik, baina susmoa zuten Iruñeko margolari haietako batzuek margo faltsu on batzuk egin eta merchant frantziar iruzurgileekin harremanetan zeudela. Ikertzaileen lana proba batzuk aurkitzea zen. Dirutza mugitzen zen horren inguruan. Iruzurgileen kontrako probak aurkitu eta sarea geldituz gero, dirutza emango zieten ordainsari gisa.

Manuk kontatu zien bi bezeroei, zorionez lanean ari ziren beste kasu batean praktikan bukatu zutela eta beraienean aukera gehiago izango zutela ikertzeko. Lorentxo, arte kontuetan zaletua zen aldetik zuzeneko ikerketa egiten ahal zuela adierazi zien. Hala ere, beti bezala eta informazioaren arabera, Manuk kontatu zien ezin zuela hitz eman konponduko zutela. Hura ez zen magia, informazio eta pistekin lan egitea baizik. Jakerrek, aldiz, hainbat helbide, foro, galeria, web eta pertsonen datuak eskatu zizkien. Azkenik ohiko kontratuen baldintzak azalduta, bi enpresariak sinatu zuten. Hurrengo egunean Elena berriro agertuko zen, denboraz, lasai eta zehatzago, arte eta faltsutzeaz mintzatzeko. Ikerketa-ildoez hitz eginen zuten.

Eguerdian bi ikertzaileak ondoko jantoki batera joan ziren elkarrekin bazkaltzeko eta lasai, aparteko patxadaz hitz egiteko. Jaker harritura zegoen Begoñaren lagunarekin. Jakerrek uste zuen enpresa-emakumeak izateko bitxiak zirela, bazutela anbiguetate eta arinkeria puntu bat. Manuk ez zuen pentsatzen hainbesteko zenik, baina onartu behar zuen on Tomas eta beste enpresari batzuk bestelakoak zirela.

–Ez nauzu konbentzituko –izan zen Jakerren komentarioa.

–Ez dut ulertzen zergatik erraten duzun. Azken batean negozio bat daukate eta ahal dutena egiten dute aurrera egiteko. Negozio horiek arte eta espektakuluekin zerikusirik izateak ez du beste lanen seriotasuna, baina aktibitate ekonomikoa da azken batean. Eta Elena? Ez al zaizu iruditzen serioa eta profesionala dela?

–Bai, bera bai. Hala ere, Pepi eta Maribel Erbiti bestelakoak dira. Ez dirudi serioak direnik, friboloak baizik. Agian bai, arte eta denbora-pasako negozioak izateagatik izanen da! –Manuk aspaldi ezagutzen zituen Begoña eta Pepi eta pentsatzen zuen enpresariak izateaz gain irekiak eta atseginak zirela.

Arratsaldean, bi ikertzaileak kasu berriaren lan-ildoez mintzatzen aritu ziren. Informazio osoa eta zalantzak hurrengo egunean argituko zituzten. Hala ere, zekitenagatik, bi gauza egin ahal zuten, alde batetik eman zizkieten pertsonen izenetatik abiatu eta haiei buruzko informazioa jasoko zuen Jakerrek; eta bestetik, ikertu pertsona haien ondoan ahalik eta hurbilenetik egiten zutena. Susmagarri haietako batzuk tailer batean ari ziren margotzen, zeinetan bazkide izateko Lorentxok izena ematen ahal zuen. Bigarren eginkizun horretarako Gorka eta Lorentxo ibiltzen ahal ziren arratsaldeetan, susmagarrien bizitzak aztertzen. Gainera, Lorentxok arteaz bazekien zerbait eta interesa izango zuen. Gazte hari galdetu ziotenean adierazi zuen jarraipena gustura egingo zuela. Gorkak Lorentxoren lagun min bezala jokatu zuen, segizioan lagunduz. Ikerketak luze joko zuenez, Manuk informazioak eta ikerketak koordinatzeaz aparte, lagundu egingo zien. Ondoren, nor bere eginkizunetara joan zen, Jaker bere ordenagailu-gelara eta Manu bere txosten eta kontu burokratikoetara. Bahiketa kontuan, Transnasa enpresaren izenean kontratatu zuena Rakel Elizalde zenez, honi bidaliko zizkion txostena eta gastuen faktura. Aparte, beste jakingarri batzuen txostena bidaliko zion helbide elektronikora.

Aspaldian espero zuten deia izan zuten. Jabier Lopezek baieztatu zien tortura eta sadismo sarea desegiteko bileraren berri eman behar ziela. Erailketa kasuak Tuteran inguruan eman ziren, baina tortura eta snuff kasuak Bilbo, Donostia eta Zaragoza artean izan zirenez, baita Logroñon kasu bat, Logroñon elkartzea erabaki zuten. Asteburuko planetik harantzago, aurrerantzean nola jokatu ere erabaki behar zuten. Ortzegun arratsaldean Logroñon partaide guztien bilera ospatuko zuten, Jaker eta Manu ere partaide izanik.

Lana bukatutakoan, auzora bidean norbaitek jarraitzen zuela pentsatu zuen Manuk. Atzetik jarraitzen zuen gizona hogeit hamar metro atzetik zebilen eta besterik gabe bide berdinetik ibiliko zela pentsatu zuen. Hala izango zen, auzora ailegatzean beste alde batera mugitu baitzen. Lagunekin elkartu zenean erran zien badaezpada arretaz begiratzeko, norbaitek atzetik jarraitzen baitzuen. Ibiltzera atera orduko gai hori jorratu zuten lagunek. Honek ikertzaile bezala zituen arriskuak eta etorkizuna hasi ziren aipatzen. Felixek maiz ikusten zuen ikertzailea lanetik ateratzean eta zein nekatuta eta kezkatuta izaten zen aipatu zuen, Manu han izan ez balitz bezala.

–Manu beti ibiltzen da larri eta kezkatuta. Zuek ez duzue ikusten eguerdian. Gauean laneguna bukatuta, hobeki sentitzen da, baina eguerdian ez du lanarekin etenik egiten.

–Bai, nik ere pentsatzen dut lan horrek kalte egiten diola –aipatu zuen Patxik, konfiantzarik handiena zuen lagunak. Manu haserretzen hasi zen.

–Aizue, hemen naiz eta ez dut uste hain gaizki nagoenik.

–Ba..., gero eta okerrago ikusten zaitut nik ere –aipatu zuen Joxek.

–Mila esker guztioi nitaz arduratzeagatik, baina ez didazue laguntzen aipamen horiekin. Benetan hain gaizki ikusten al nauzue?

–Bai –izan zen hiruron erantzuna.

Etxera itzuli baino lehen Manu gurasoenetik pasa zen. Ama eta aitarekin egon zen zerbait afaltzen zuten bitartean. Gustura egon zen haiekin aspaldiko partez ez baitzuten hitz egiteko astirik. Dena den, gurasoak ere bere lanaz kezkatzen ari zirela egiaztatu zuen. Gero, berandu zenez etxeratu zenean deitu zien emazte ohi eta seme-alabei. Seme-alabak, lehenago egin ez zituzten etxeko lanak egiten ari ziren. Emazteak leporatu zion haiekin gutxitan eta presaka ibiltzeagatik. Berak ere onartu zion lan hark ez ziola bizitzen uzten. Kexa baino kezka adierazten zuten hitzok. Junek eta Mikelek asteburuan ibiltzeko eskatu zioten, baina ikertzaileak ezin zuen ezer ziurtatu. Handik gutxira, penatuta ohera joateko zorian zegoenean telefono dei bat izan zuen. New Yorkeko laguna zen, Iñaki. Orduagatik desenkusatu zen.

–Kaixo Manu. Laneguna bukatuta, zuri deitzeko gogoia sartu zait. Hemen arratsaldea da eta espero dut ohera joan baino lehen harrapatzea.

–Kaixo Iñaki, zer moduz? Orain joatekotan nintzen, baina ongi egin duzu deitzean. Gustura hartzen dizkizut deiak.

–Nik ere bai zureak.

–Noiz etorriko zara Iruñera?

–Sanferminetarako. Josetxoren berririk al duzu?

Une batez Manuk ahaztu zuen eguneroko bizitza. Lagunarekin iragana eta etorkizuna izan zituen buruan.

## Maiatzaren 4a, ortzeguna

Egun ederra zen. Egia erranda ez hain ederra, baina udaberria zela nabari zen eta Manuk bizitza sentitu zuen, kanpoan, naturan eta bere baitan ere bai. Arratsaldean autoan ibiliko zen derrigorrez, baina goizean oinez abiatu nahi zuen lanera. Etxe ondoko dendan ogia eta egunkaria erosi zituenean zerbait arraroa sentitu zuen. Ingurura begira ez zuen inor edo ezer deigarri ikusi, baina norbait bere peskizan zegoelako susmoa ez zitzaion joaten. Alde zaharrera igotzen ari zelarik, disimuluan baina arretaz begiratzen zuen atzera betaurreko bereziak erabiliz. Eguzkitarako betaurreko haiek aldeetan ispilu txikiak zituzten eta inork nabaritu gabe atzera begiratzen ahal zen.

Jakerrekin elkartu zen atarian. Bulegoan sartu orduko gazteak bere gustuko kafea prestatu zuen. Manuk ordenagailua piztu eta korreoa begiratu ondoren sukaldera joan zen kafea hartzera. Lorentxo heldu zen orduantxe eta hirurek komentatu zuten nola jokatu eta banatuko zuten lana, arte-iruzur kasu hartan. Elenari utziko zioten dena azaltzen, baina Lorentxok, pintura-tailerraren martxaz arduratuko zenez, kopiatutako lanez galdetuko zion. Jaker Frantziako merkatariak eta iruzurren merkatuek interesatuko zen, leku haiek eta gaizkileak ikertu ahal izateko; eta Manu, alde legalaz, teknikoaz eta arriskuaz arduratuko zen.

–Zuek egin itzazue behar dituzuen galderak, baina argi izan emakume horrek bere jakinduriarekin markatzen ahal duela ikerketan asmatzea edo alferrik ibiltzea. –Laguntzaileek ulertu zuten artearen alderdi teknikorik gabe galduta zeudela eta onartu zuten. Gainera, biek pentsatzen zuten, hain beharrezkoa zenez, ez zutela aholku haren beharrik.

Elena agertu zenean kafea eskaini zioten eta bulego-gela nagusira joan ziren sofa eta besaulkietan esertzera. Erdiko mahaian, behin kafeak erretiratuta, emakumeak txosten batzuk, liburuak eta argazki bildumak utzi zituen, bere azalpenetarako lagungarri. Lorentxo presaka zebilenez lehenago hasi ziren berari zegozkion kontuekin. Elenak azaldu zizkion Lorentxori zein ziren susmopean zituzten margolanak. Argazkietan Pollocken The she-wolf edo Otso Emea, Sekretuaren Zaindaria, Arra eta Emea eta Stenographie bezalako margolanen oso antzekoak, baina desberdinak ziren margo iruzurtiak erakutsi zizkien eta haiek bezalakoak ere Monet, Sezanne eta Van Goghenak ziruditen beste batzuk. Denak Van Goghen Gau Izartsua bezalako lan bati begira geratu ziren. Lorentxo liluratuta zegoen. Beraren gustukoak ziren margolari eta estiloak izanda, interes handiz jarraitu zuen dena. Mutil gazteak estiloek besteek ulertu ez zuten galdera teknikoren bat egin ondoren, kopiatzailez galdetu zion. Konpañia kaleko

tailerrean Txomin Barbarin eta Maria Irisarri ikertu behar zituen, kopia onak eta bertsioak egiteagatik ziren famatuak. Lorentxok beste galdera bat egin zion.

–Analisiek ez al zuten iruzurrak zirela erakutsi?

–Ez. Eskaneatuek eta materialek garaikoak izan zitezkeela erakutsi zuten. Hala ere, badago erlazio bat margolanen nagusiak, martxantak eta margolari hauen artean. Ahal bada beraien lagun bihurtu behar duzue. Zuk zer maila duzu margolari bezala? –Lorentxok aurpegi serioa jarri zuen.

–Estilo horiek maitatzeaz aparte, zale hutsa eta ni ez naiz lagunak nolana egiten dituen horietakoa – Manu tartekatu zen gaztea animatzeko.

–Zu zara gure artean tailerrean zale bezala sartzen ahal den bakarra. Gainera, Gorkak lagunduko dizu eta lortuko du hurbilpena.

Arte-salerosleak jarraitu zuen mundu hartako gora-beherak kontatzen. Jakerrek Elenari merkatarietz eta iruzurren merkatuez galdetu zionean, honek Pariseko Alicie Duval eta Didier Marsillac izenak eman zizkion eta adierazi zion zehaztasun gehiagorik ez zuela. Adituak informazioa eta argazkia pasa zizkion memoria batean Jakerri. Gauzak nahiko garbi zeudenez, Manuk alderdi legalak eta teknikoak argitzeko eskatu zion, lan-mahai gainean dokumentu batzuk erakutsiz. Horretan sartu baino lehen, Lorentxok eta Jakerrek agurtu zieten eta beren eginkizunetara abiatu ziren, bata bere ohiko lanera eta bestea ondoko bulegora. Elena joan zenean Jakerrek zalantzazko margo haiei buruzko informazioa erakutsi zion Manuri. Jakerren ordenagailuak erabili zituzten, mahaigainean, eta pantaila handian, margolari famatuen lanak eta aurkitutakoak konparatzeko.

–Oso antzekoak dira –erran zuen Manuk.

–Niri berdinak iruditzen zaizkit –gaineratu zuen gazteak.

–Ez dira, ba! Konparazio hauek Lorentxori erakutsi behar dizkiozu.

–Ongi da, baina iruditzen zait ezinezkoa dela faltsuak direla antzematea.

Lanpetuta, bi kasu zerabiltzaten bien artean eta bakarrik Lala, Lorentxo eta Gorkaren laguntzaz ez zuten aski denbora ongi lan egiteko. Egia zen prostituten kasua asteburuan baino lantzen ez zutela, baina horrek erran nahi zuen asteburuan ez zeukatela atsedeen hartzeko eta etxekeekin lasai egoteko aukerarik izanen. Bi ikertzaileek egun hartan laster bazkaldu, atsedeen txikia egin eta lauretarako Logroño bidean izanen ziren. Arteaz eta Elenaz mintzatu ziren.

–Harrigarria da askotan zer gutxi baloratzen eta ordaintzen den artea edo literatura, eta bestetik zein garesti jartzen dituzten batzuen lana. Manu, espekulazio hutsa da mundu hau!

–Eta kirol mundua ez? Zenbat neke eta lan oinarritzko kirolean eta zenbat milioi puntako kirolari bati fitxa egiteko!

–Bai, hala da. Kasu honetan berdin gertatzen dela iruditzen zait. Arte merkatariak eta galeristek dirutza irabazten dute, espekulatu ere bai. Ez dakit zenbat artelan faltsu izanen den. Horrekin batera Elena bezalako langileak ikerketa eta lan isila egiten dute batzuk aberasteko.

Arratsaldean, hirurak pasata Logroñora abiatu ziren polizia eta ikertzaileen koordinazio-bilerara. Ordu eskas batean egin zuten bidaia. Autobia luxu bat zen, aspaldiko bide txarrarekin konparatuz. Hala ere, itzalpeko peajeaz eta nafar guztiek ordaintzen jarraitu behar zuten dirutzaz oroitu ziren. Irratiko musika klasikoa jarri zuten hasieran, baina Jakerrek Laboaren diska bat aurkitu zuenean biak kantatzen hasi ziren eta errematerako Bon Jobiren abesti ezagunekin oihuka sartu ziren Logroñon. Animatuegi ez jokatzeko itzali eta ingurabideko sarrerei egin zieten kasu. Madrileko etorbidea hartu eta Espoloneria helduta lur azpiko aparkalekuan sartu ziren denborarik ez galtzeko. Handik gertu zegoen hotelera joan ziren.

Manu eta Jaker hoteleko bilera-gelan sartu zirenean berandu zen. Laurak pasata, prostituten tortura kasuak ikertzen zituzten taldeetako koordinazio-buru guztiak eta beste ikertzaile batzuk topatu zituzten: mahai handi eta zabalaren inguruan, Isidoro Markina inspektorea Ertzaintzako, Ramon Zudaire foruzain-inspektorea, Demetrio Besteiro zibilen subteniente, Santiago Alonso poliziako komisarioa, Benito Sabala Bilboko ikertzailea eta Fernando Muñoz Logroñokoa. Jaker eta Manu mahaiaren aurreko aldean eseri ziren. Gehienak ezagunak, berehala polizia eta zibila hasi ziren egoera eta izandako gertaerak errebasatzen. Beraiek hartu nahi zuten agintea. Besteirok leku desberdinetan izandako torturak eta erailketak zerrendatu ondoren, Alonsok aipatu zituen beste ikertzaile eta polizia-talde buruen eginak. Hasieratik besteak izendatzeko abizenen aipamena inposatu zen, formalitate eta profesionaltasunerako nahia azpimarratuz eta laguntasun giroa baztertuz. Ikertzaile pribatuek espero zuten polizien jokaera hura, baina Foruzainen inspektoreak eta Ertzaintzako buruak ez zuten baztertze hura onartu. Ramon Zudairek hartu zuen hitza:

–Jaunok, Besteirok eta Alonso jaunak ongi laburtu dute egoera, baina ez dugu ahaztu behar oraingoz oso gutxi daukagula. Raul eta Walter txuloek ez digute ia ezertan lagundu, Tuteran inguruko pisu batzuk ixten izan ezik. Gaizkileen buruak gure eskuetatik urrun daude.

Denak hasi ziren batera hitz egiten, eztabaidatzen, elkarri aditu gabe. Manuk, mahai kolpe bat emanez isiltasuna eta banan banan mintzatzea erregutu zien. Isiltasuna egin zen. Bazirudien inork ez zuela esatekorik. Handik gutxira Sabalak adierazi zuen bere ustez egin beharrekoa:

–Jaunok, hildakoak eta kasurik larrienak Tuteran gertatu zirenez, eta pistarik argiena Bilboko sadikoena denez, Foruzaingoko Zudairek eta Bilboko Ertzaintzako Markina inspektoreak antolatu duten sarekada prestatzea eta borobiltzea proposatu behar dizuet. Bestela ere, orain arteko lekuetan ez ezik Irun, Donostia, Zaragoza, Logroño eta Gasteizko diskoteketan zaintza prebentiboa antolatu beharko genuke. Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak lan handia izanen du Zaragozatik Gasteizerako bideetan kontrolak jartzen eta ikertzaile pribatuek Hackerrekin batera informazio sareak prest izan behar dituzte.

Baiezko borobila eman gabe ere, denek onartu zuten ideia eta hiru talde antolatzea adostu zuten. Nazionala eta Zibila Ebro bailarako bide eta hirietako kontrolak antolatzen hasi ziren; Ertzaintza eta Foruzaingoko buruak hiri batzuetako zaingoak prestatzeaz gain, gaizkileak harrapatzeko Bilboko sarekada zehazten arituko ziren eta ikertzaile pribatuek komentatu zuten nola osatuko zuten

inteligentzia zerbitzua. Denek informazioa trukatzeko eta errazteko Dropbox eta WhatsApp talde bana antolatu zuten Polizia Nazionalak gidatu nahi zituena. Telefono mobilen zenbakiak eta helbide elektronikoak eman zizkioten Alonsori. Bi ordu pasa ondoren bilera bukatutzat eman zuten. Manuk bukatu baino lehen proposatu zien besteei larunbat gaueko Bilboko sarekadarako azken koordinazioak eta berriak izateko egun berean arratsaldeko bostetan zuzeneko Scape-konferentzia bidez gauzatzea. Larunbat gauerako plan bat antolatu behar zuten sadiko talde hura zutela aprobetxatuz. Altxatzen ari zirela, Fernando Muñozek pintxo-pote bat hartzea proposatu zien guztiei. Manuk onartu zuen garaiz ari zirelako eta pote azkar bat hartu ahal zutelako. Sabalak, Markinak eta Ramon Zudairek ere onartu zuten, baina Besteirok eta Alonsok desenkusatu ziren. Ikertzaileek eta inspektoreek gustura hartu zuten pintxo-pote bana, aspaldiko harremana berritzen zuten bitartean.

Handik ordu betera Iruñean ziren eta Manu lagunekin elkartu zen. Egun hartan ez zen Patxi agertu gaixorik zegoelako. Joxe eta Felix martxa arina hartu zuten eta Manu atzean uzten ari ziren handik gutxira. Hamar bat metro aurreratuago barre egiten zioten lagunari. Manuk mugimendu arraroa egin zuen lokarriekin oztopatu izan balitz bezala eta lotzeko belaunikatu zenean besteei deitu zien itxoiteko eta hurbiltzeko. Barre-algaren artean Felixek zerbait erran zuen:

–Lagun. Oso motel eta makal zabilta. Orain ez disimulatu lokarriekin! –Manuk ahopeka erantzun zion.

–Disimuluz begira iezaiozue sudadera beltza daraman gizonari. Zuetako batek har dezala ezkerretako bidea eta kontrolatu zer egiten duen, nire atzetik dabilen edo nire imajinazioa den. Hurrengo bide elkarketan gure atzetik arituz egiaztatuko duzue. –Joxek berak egingo zuela erran zuen ahopeka, bide hartatik jarraitu zuenean.

–Ongi da, baina ez egin ezer gehiagorik. Egiaztatu jarraitzen nauen eta kito. Tabernan elkartuko gara. Mila esker. –Felixek eta Manuk jarraitu zuten aurrera lagunarengandik despeditu izan balira bezala. Ez zuten atzera begiratu eta jarraitu zuten. Felixek galdetu zion arriskuan ote ziren. Manuk egia erran zion.

–Ez dut uste, baina badaezpada kontuz jokatu behar da. Ziur aski ez da profesionala izanen, baina nire urratsak jarraitzeko agindu diote. Itzultzen garenean jakinen dugu. Orain buelta egingen dugu. –Toki-Alain Felixek hiru garagardo atera zituen. Joxe agertu zenean botilari trago handia eman zion zerbait erran baino lehen. Manuri begira harridura adierazi zuen.

–Morroi hori zuen atzetik ibili da denbora guztian. Itzuleran ere egin du eta hona sartu zaretenean une batez geratu da, zerbait apuntatu du eta joan egin da.

Ikertzaileak lagunai azaldu zien ez zutela apuratu behar. Lanbide hartan espioitza eta kontraespioitza normalak ziren eta badaezpada egiten zituen egiaztapenak. Hala eta guztiz ere, ez zegoen oso eroso. Ez zien adierazi ideiarik ez zuela eta kontuz jokatu behar zutela. Agurtutakoan nor bere etxera erretiratu zen.

Gauean etxearekin mintzatu zen asteburua antolatzeko. Lehen-lehenik Amaiarekin mintzatu zen ortziraleari gauean berarekin egonen zen ala ez jakiteko. Lan handia zuen emakumeak eta larunbatean lana zuen. Edonola ere, biharamunean, ortziraleari arratsalderako geratu ziren. Ondoren, familia-etxera deitu zuen. Junek erran zion ez zuela zinera joan nahi, Gaiarreko ikuskizun batera baizik. Gero, Mikelek



bere eskakizuna egin zion, berak alde zaharreko taberna ezagun bateko pintxoak janez afaldu nahi zuen. Mireni kontatu zion Amaiarekin egongo zela gauean eta honek ez zion eragozpen gehiegirik jarri. Hala ere, ez zuen kezkatzen zuena isildu.

–Manu, espero dut kontuz ibiliko zaretela!

–Zer erran nahi duzu, jo eta jo oihuka arituko garela?

–Badakit ezetz, baina nahi gabe biluzik edo... harrapa zaitzakete.

–“Ketekete” gehiegi imajinatzen duzu!

–Barkatu. Jeloskor edo jarri naiz.

–Barkatu, baina badakizu ez nintzatekeela inorekin ibiliko zuk nahi izanez gero.

Isildu ziren, baina biek bazekiten beraien arteko harremanetan nahi eta ezin zebiltzala, ez zirela normalean erabat gustura ibiltzen. Biek nahi izango zuten elkarrekin jarraitu. Dena den, Mirenek ez zuen Manuren lanagatik elkarrekin jarraitu nahi eta Manuk ezin zuen bere lana baztertu. Gehiago ez mintzeko bertan behera utzi zuten gaia eta elkar agurtu zuten.

## Maiatzaren 5a, ortziralea

Irratian eguraldia iragartzen ari ziren. Egun hartan zeru estaliak eta temperatura epelak izanen zituzten goizetik. Sargori puntua nabari zen. Euria eginen zuen arratsalde eta gauean. Egun hartan, beranduxeago hasiko zen lanean, auzoan erosketa batzuk egin behar zituelako. Etxetik atera zenean ez zuen inor espiatzen nabaritu. Erosketak egin zituen larunbateko gosaria eta bazkaria prestatu ahal izateko. Afaltzeko legatza erosi zuen. Irin-arrautzeztatuta egingo zuten pintxotara joan ezean, baina bestela gordeko zuen beste baterako edo izozteko. Bazkaltzeko entsalada anitz on bat intxaurrekin prestatzeko osagaiak erosi zituen eta oilategiko oilasko eder bat. Etxera bidean inork ez zuen jarraitu ezta alde zaharrera oinez igo zenean. Jarraitzaileek jakinen zuten non bizi eta nondik ibiltzen zen.

Bulegoan Lala zegoen. Jakerrek eta berak hitz egin zuten etorkizunaz. Neska pozak zorutzen zegoen. Beraiekin lan egitea bere ametsa zen, inoiz errana ez bazuen ere. Manuri eskerrak eman zizkion lankide bezala onartzeagatik. Honek gogoratu zion agian damutuko zela eta denak barre-algara batean aritu ziren. Lalak ez zuen ortziralean klaserik eta azterketa batzuk prestatzeaz aparte larunbateko sarekadan hartu nahi zuen parte. Manuk berari laguntzen utziko zion, baina ez zion utzi erabat sartzen. Segurtasuna eta autodefentsa ikastaroak egin behar zituen benetan parte hartu baino lehen. Bestalde, aseguratu eta Gizarte Segurantzaren alta eman beharko zuen.

Aurreko eguneko bilera komentatu zuten. Ez zen ohikoa horrenbeste polizia talde desberdin eta ikertzaile pribatu elkarrekin lanean aritzea. Bestalde, nabarmena zen testosterona eta denak gizonak zirela. Lanbide haietan emakume gutxi aritzen zen eta are gutxiago aginte postuetan. Emakumeentzat

giro txarra eta itogarria zen. Lalari bost axola zion giro horrek. Prest zegoen horretan lan egiteko, ikertzen ibiltzea maite zuelako. Lalak horrela adierazi zuen.

–Oso garbi daukat lanean zuekin gustura ibiliko naizela eta prest nago matxistekin lan egiteko. Denbora gutxian ziurtasunari buruzko ikasgaia gainditu eta autodefentsa praktikak egingen ditut. Nahiz eta denborarekin gauza gehiago ikasi eta praktikatu, bi hilabete barru prest izanen naiz zuekin ibiltzeko eta laguntzeko –Jakerrek barre egin zuen eta bere iritzia eman zuen.

–Esperientziaz erran behar dut nahiko ongi defendatzen zarela eta uste dut nik ere gehiago ikasi behar dudala. Agian neuk ere kriminologia ikasi behar nuke.

–Lanaz gain ez duzu denborarik modu arruntean ikasteko. Nahi izanez gero, urrutiko unibertsitatean ikasten ahal duzu poliki-poliki eta nik lagunduko dizut.

–Inbiria ematen didazue. Nik ere ikasi behar nuke –izan zen Manuren komentarioa. Lalak bestela pentsatzen zuen eta adierazi zuen.

–Manu, zuk daukazu benetan inporta dena: esperientzia.

Arratsalde eta gauean libre ibili nahi zuen Manuk. Jaker eta Lala ordenagailuetan aritu ziren arte-iruzur kasuarekin ikertzen jarraitzeko. Mutilak kasuaren zehaztasunak kontatu zizkion neskari eta Manuk lan burokratikoa eguneratu zuen txostenak osatuz. Eguerdian denek lana utzi zuten hurrengo eguneko arratsaldea arte.

## 6. Manuren egoera pertsonala

Eguerdian, Manu Toki Alaitik pasa zen zerbait bazkaltzera. Felix jantokia prestatzen hasia zen. Goiz zen eta Manu, laguna agurtu ondoren sukaldera sartu zen Gabrielarekin pixka batean egoteko. Sukaldariak barazki-menestra, borraja eta entsalada Zesar zituen aukeran. Bigarrenetarako filete errusiarra, oilasko-izterrak eta txitxarro. Emakumeak lehen platerak zituen prest eta bigarrenak egiteko prest, jatunei egin berritan emateko. Gabrielak irribarre batekin hartu zuen Manu.

–Zer moduz zaude Manu? Inoiz ez dugu lasai hitz egiten.

–Hori bera pentsatu dut neuk ere. Ni nahiko ongi nago, nahiz eta familiarekin nahi adina ez ibili. Zu nola zabilta?

–Azken aldian hobeki. Eskerrak Felix eta biok oporrak hartzen hasi garen eta arratsaldeetan ordu batzuetan ordezkatzeko gaituzten. Zuk eta Mirenek hitz egin behar zenuten.

–Zergatik diozu?

–Oraindik elkar maite duzuelako. Oporretan eta elkarrekin ibili garenean oso nabarmena izan da zuen artekoa oraindik ez dela bukatu. Banatzen zaituzten hori baino ez duzue konpondu behar.

–Gabriela, gehiegi esatea da. Zergatik bota didazu horrelakorik?

–Biok maite zaituztegulako. Berrito elkartu arte ez zarete benetan zoriontsuak izanen.

–Ai Zelestina...! Sukaldari ona zara eta lagun ona, baina ez dut uste igarle bezala etorkizuna duzunik.

–Zuk uste?

Gizonak sukaldean bertan hartu zituen borraja eta txitxarroa. Ondoren etxeko natillak hartu eta barrara mugitu zen Felixekin une batez egoteko. Handik denbora gutxira berrito elkartuko zirenez etxera joan zen kuluxka egitera.

Arratsaldean lagunekin elkartu zen ohi baino lehenago ibilaldia egin ahal izateko. Laurok Arga beherako bidea egin zuten Landabeneraino eta itzuli. Ez zuten inor begira nabaritu. Zazpiak aldera Manu, June eta Mikel alde zaharrera heldu ziren eta Amaiarekin elkartu ziren taberna batean. Pintxo-potetan ibili ziren eta bederatziatarako Gaiarrera hurbildu ziren ikuskizunaz gozatzeko. Anne Etchegoyen gustura entzun zuten bere istorio eta abestiekin.

Gauean denak pozik jaitsi ziren Manuren etxera lo egitera. Etxera heltzean Mikelek solas berezia izan zuen Manurekin, biak komunean hortzak garbitzen ari ziren momentuan:

–Zuk bakarrik egingen duzu lo?

–Ez. Amaiarekin.

–Nik ere berarekin egin nahi nuke.

–Brometan ala?

–Ez. Manu, askatasuna behar genuke nahi dugunekin lo egiteko.

–Arrazoi duzu, Mikel eta horregatik eginen dugu lo elkarrekin. Orain utzi tontoarena egiten eta zoaz zure ohera.

–Beno, baina Amaiari galdetu behar genioke norekin egin nahi duen lo –erran zuen irribarrez eta begirada pikaroa jarriz.

## Maiatzaren 6a, larunbata

Amaia goiz joan ondoren gosari ederra prestatu zuen aita zoriontsuak. Goizean elkarrekin ibiliko ziren hirurak. Eguraldi hobea zuten, eguzkitsu eta epela. Planetariora joateko asmoa zuten. Manuk gogotsu hasi zuen eguna seme-alabekin ibiliko baitzen. “Donostiatik Iruñera” izeneko argazki erakusketa ikusi zuten, “Deep Sky” izeneko filma, azalpena eta proiektziora sartzeko denbora egiten zuten bitartean. Hamabi eta erdietan, puntualki argiak itzali ziren eta unibertso misteriotsuari buruzko odisea eta bidaia birtuala egin zuten. Laurogeita hamar minutuz eguneroko errealitate kanpo izan ziren. Dena den, hura ez zen osotara egia, Manuren kasuan behintzat. Ikertzaileak pentsatu zuen zeru hura bezain sakona zela Internetekoa: zerbaitengatik Web Sakona bezala ezagutzen zen hartan errealitate ezkutua eta delinkuentziarako merkatu beltza zegoen. Jakerrek, Internen ibiltzeko oso trebea izanda ere, ez zuen orduko emakumeen salerosketarako haririk edo pista onik topatu.

Ikuskizuna bukatu zenean hurrengo egunetakoei begira geratu ziren. Mikelek Dinosaurioei buruzko filma ikusteko gogoia adierazi zuen. Juneke ere ikusitakoarekin liluratuta “Planetec” izeneko filma eta proiektzioa hurrengo larunbatean arratsaldean ikusi nahi zuen. Aita gizajoak ahal zuen bezala lasaitu zituen, kontuan izango zuela eta ahal izanez gero planetariora itzuliko zirela hitz emanez. Bi ikuskizunak jarraian ikusi ahal izango zituzten.

Bazkaldu eta atsedean pixka bat hartu ondoren Manuk familiaren etxera eraman zituen alaba eta semea, hauen kexue artean. Dena den, bai Mirenek eta bai Manuk aspaldi azaldu zieten Manuren lanagatik arriskua izaten ahal zutela eta onartu egin zuten. Familia hartan bazuten paranoia barneratuta.

Arratsaldeko bostetan Jakerrek eta Manuk Scape-konferentzia egin zuten Markina eta Zudaire inspektoreekin. Lalak neska txintxoaren papera bete zuen eta isilik, atzean geratu zen denari arretaz kasu eginez. Azken berriak onak ziren. Sadiko talde hura harremanetan zen neska-saltzaileekin eta diru askoren truke neska gazte batzuk eskaini zizkieten. Gauean Barakaldoko Kong diskotekan geratu ziren. Markinak plana kontatu zien. Beranduago, seieta Lorentxo eta Gorka agertu ziren eta aprobetxatu zuten arte-iruzurraren gora-beherak komentatzeko. Lorentxo gustura hasi zen pintura tailerlean eta

Gorkak lortu zuen hango margolari batzuekin harremanak izatea. Margolari ona zen Michelle izeneko neskarekin ligatzen hasia zen. Emakume interesgarria zen Michelle, pertsona eta artista bezala. Ongi margotzen zuen eta erakusketa batzuk eginak zituen, baina ez zuen lortu profesional bezala ezer askorik. Gorkak espero zuen egindako laguntasun harreman horien bidez iruzurgile izan ahal zirenak ikertu ahal izatea. Hala eta guztiz ere, bi mutilak ez ziren asteburuan arte-iruzurraren ildotik ikertzen arituko. Gainera ez ziren besteekin Bilbora joango, Tuterako diskotekaren inguruan zelatan ibili baizik.

Taldekoak berandutzen ari ziren eta meriendatzera joan ziren. Bokata batzuk hartuko zituzten gustura, baina azken urteetan arratsetan bokatak egiten zituzten taberna asko desagertu zen alde zaharretik edo besterik gabe ez zituzten egiten, pintxoak eskainiz. Dena den, pintxo goxo batzuk hartu zituzten kaina batzuekin. Zazpietan bi ikertzaileak eta Lala prestatu egin ziren Bilbora abiatzeko. Jakerren autoan joan ziren. Ordu eta erdian han izango zirelakoan, musika baxua eta atsegina jarri zuten. Kriminologia ikasketaz eta ikertzaileen beharrez mintzatu ziren. Lalak alde praktikoen beharrak aipatu zituen eta Jakerrek lanbidean bi urte eskas pasa zituenez, arrazoa emateaz gain, legediaren ezagutza eta psikologiaren beharra azpimarratu zituen. Manuk, aldiz, Jakerren trebetasuna goraiatu zuen, interneten bidez ikertu ahal izateak ikaragarri lagundu baitzien lanean.

Altubera iristean abiadura handian zebilen auto batek peajera hurbiltzean beste auto bat jo zuen eta ondorioz karanbolaz beste bi autoren kontra jo zuten. Eskerrak abiadura gutxituta istripuak txikiak izan ziren. Beraien autoak ukitu eta urratu batzuk baino ez zituen jaso. Tamalez istripuaren ondorioz zirkulazio eragozpenaz aparte ordu erdi bat pasa zuten parteak betetzen.

Deustuko komisariara heldu bezain pronto, inspektoreekin eta Benito Sabala ikertzailearekin elkartu ziren. Istripuaz jakitun, haien zain geratu ziren. Bederatziak pasa zirenez, kanape eta edari batzuk eskatu zituzten zerbait afaltzeko. Logroñon ezagututako Benito Sabalak kontatu zien, sadikoak aspaldian harremanetan ari ziren lau desorekatu omen zirela. Bakarka edo taldeka elkarrekin saioak antolatzen zituzten, baina azken aldian mugarik gabeko jarduna lortu zuten diru dezenteren truke. Sadiko haietako batek, mugak pasatzen ari zirela pentsatuz, neska gaixo bat askatu zuen eta gaizkile haien berri eman zion Ertzaintzari. Zoritzarrez, polizia mota guztiekin lan egiten zuten Hackerrek ezin izan zuten gaizkileen jatorrizko egoitza kokatzerik izan. Gaizkileek Internet Sakonean jokatzeko zuten eta TOR nabigatzailearen bidez ezabatzen zuten beren abiapuntua. Jakin izan zutena zen mafia kolonbiarrak kontrolatzen zuela eta harremanetan zeudela Europa ekialdeko eta Nigeriako talde batzuekin. Harrigarriena zen gaizkileak Bilbotik Zaragozarako lurraldean jokatzeko. Frantzia, Italia, Espainia eta Britainia Handiko hirien kanpoaldeetan ere aritzen baziren ere, ordura arte emandako tortura eta erailketa kasu gehienak zonalde hartan gertatu ziren, gehien bat.

Barakaldoko Kong diskotekara abiatu ziren. Sadikoek kontatu zuten bezala, diskoteka inguruan leku asko ziren emakume gaixoen jokalekutzat har zitezkeenak. Diskotekan baino gehiago inguruko pub-etan mugitzen ziren drogak eta prostituzioa. Operatiboa Ertzaintzako Markina inspektoreak gidatuko zuen furgoneta handi batetik komunikazio-gunea antolatuz. Ramon Zudaire, Manu Elkano eta Benito Sabala ere han kokatu ziren. Ertzaintzako Ana Bolibar subinspetorearekin ibiliko ziren Lala eta Jaker, Sadiko#1 eta Sadiko#2-ren ondotik. Azken momentuan WhatsApp bat jasoko zuten neska esklaboak diruaren truke aldatzeko. Treep pub-era joateko abisua jaso zuten. Telefonoa bikoiztuta zuten, ertzainek momentu berean jakin zuten dena. Ana, Lala eta Jaker aurreratu ziren pub-ean sartzen.

Edariak eskatuta, ordaindu eta txoko batera mugitu ziren sadikoeek edariak eskatzen zituzten bitartean. Ana Bolibarrek kontatu zien besteei zer espero ahal zuten.

–Sadikoak adin ertaineko bestaldeko bi gizon haiek dira. Bata burusoila eta ileurdina bestea. Biek txintxo aurpegia badute ere, onartu dute jendeari min ematen hartzen dutela atsegin. Ez dira hiltzaileak, baina horrelako estimuluak behar omen dituzte sexu kontuetan. Beren bikoteek ez zuten horrelakorik onartzen eta prostitutekin hasi ziren –Lala harrituta zegoen eta ezin izan zen isilik geratu.

–Eta neska gazteak hil behar al dituzte?

–Ez. Haiek ez. Horregatik deitu ziguten. Hala ere, badirudi neska adingabe eta babesgabeak direla orain modan daudenak. Ia ziur naiz agertuko diren neskak mehe-meheak eta oso gazteak izango direla. Kontatu digutenez, bi neskekin bi gizon latinoamerikar agertuko dira. –Jakerrek, dena den, ez zuen oso garbi zer egin behar zuten eta zuzenean galdetu zion. Anak ere zuzen erantzun zion.

–Gure lana, operatiboa gaizki ateraz gero hasiko litzateke. Autoa kanpoan dugu eta jarraituko genituzke. Beraz, espero ditugunak agertu orduko autora joango gara eta zain geratuko gara. Behar bada banatuz gero, zuek oinez jarraituko zenituzkete neskak. Gaizkileak nire kontu lirateke, lankideen laguntzaz.

Ordua bazen ere, beste ordu erdi bat pasa zen ezer gertatu gabe. Espero bezala “saltzaileek” dena ikuskatuko zuten “trukea” gauzatu baino lehen. Jakerrek eta bi emakumeek tontoarena egin zuten. Ordu erdi luze bat pasa zen bi gizon eta bi neska meheak agertu arte. Neskek ez zuten hamazazpi urte izango. Bata beltzarana eta bestea ilehoria ziren, eslaviarrak nonbait eta ia disimulurik gabe “Lolitz” jantzita zebiltzan. Urrutitik ikusten zen neskak erdi negarrez zeudela. Beste mezu baten bidez hurbiltzeko adierazi zieten sadikoei. Trukea egiteko itxura egin zuten bi sadikoeek, kanpotik inguru guztia ikuskatuta zuten ertzainek eta bi gaizkileez gain, beste bat aurkitu zuten auto batean. Hiru gaizkileak atxilotu zituzten eta bi neska eraman zituzten komisariara. Operatiboko ia guztiak hara mugitu ziren galdeketa-aren ondoriozko informazioaren zain. Bilera gela batean zerbait ahoratzen eta hizketa arinean eman zuten denbora. Hamabiak pasa ziren Markina inspektoreak informazioa eman orduko.

–Jaunak eta andrea, galdeketa egin diegu. Eman dizkigute Bilbo, Zaragoza, Irun, Logroño, Iruñea eta Tuterako pisu batzuen kokapena, baita kide batzuen izena eta telefonoa ere –Benito Sabalak moztu zion jarria.

–Barkatu, erran nahi al duzu gaizkileen buruak, nagusiak harrapatu ditugula?

–Ez. Nagusirik ez –adierazi zion etsituta bere ezaguna zen ikertzaileari–. Tamalez, ez dugu morroi horien gaineko inoren pistarik lortu.

–Baina, aipatu duzu leku askotako pisuen kokapena eta morroi batzuen izenak lortu dituzuela! –jarraitu zuen Sadabak.

–Bai. Baina horrek emakume zenbait askatzea eta gaizkile arrunt batzuk harrapatzea baino ez digu ahalbideratuko. Nagusiek komunikatzeko modu seguruak erabiltzen dituzte. Dirua, paketeetan, korreoz

eta helbide seguruetan jasotzen zuten, eta aginduak kontrolik gabeko sakelako telefonoen bidez ematen zituzten.

Beste lekuetako informea jaso zituzten. Nahiz eta gaua ez bukatu, orduko bazuten egoeraren berri. Ez zuten inongo erantzule nagusirik ezta gaizkile garrantzitsurik topatu. Bilboko hiru morroi mexikarrak aparte, beste hamar bat agindupeko atxilotu zituzten. Beraien nagusi txiki edo bitartekari batzuen izen edo izengoitiek ez zuten haria jarraitzeko eman. Bestalde, euskal kostaldeko eta Ebro ibarreko diskoteken inguruan, momentuz behintzat, ez zen prostituta zauriturik agertu.

Ordu bata zen Bilbotik atera zirenean. Ordu eta erdian Iruñean ziren. Jakerrek eta Lalak Manu utzi zuten auzoan eta jarraitu zuten beren lagunekin elkartzeko. Manuk ere bereak bilatu zituen. Joxe eta Patxi beste batzuekin afaltzera joan ziren eta orduko nonbait izanen ziren azkeneko kopa edo garagardoa hartzen. Garagardotegian ez ziren, baina ezagun batek erran zion handik ibiliak zirela eta pub batera joateko asmoa zutela. Lagunek gustura joaten ziren leku hartara azkeneko kopa hartzera. Bost minutuan han zen eta espero bezala eserleku batzuetan topatu zituen. Han ziren Patxi eta Joxe, Andres eta Xabierrekin. Hurbildu zenean Mintxo ere ezezagun batzuekin mintzatzen ari zela konturatu zen. Lagunei galdetu zien zerbait edan nahi zuten. Gehienek edariak bukatu gabe zituztenez, ez zuten ezer gehiago nahi. Andresek garagardo bat eskatu zion. Harentzako eta berarentzako bi garagardo eserlekuetara eraman zituenean lagunek lekua egin zioten. Lagunak pozik zeuden bromak egiten, afari ona eta kopak hartu ondoren. Joatekotan, Mintxo hurbildu zitzaien.

–Ikusten dituzue bi horiek? –erran zuen utzitako gizonak seinalatuz–. Uste dut ligatu nahi dutela.

–Eta? Zer inporta zaizu bi gizonak ligatzeko asmoa badute? –galdetu zion Xabierrek erantzun arraro baten esperoan.

–Ligatu, elkarrekin nahi zuten! –izan zen Mintxoren erantzuna.

–Eta zuk zer egiten zenuen haiekin? Norekin ligatu nahi zenuen zuk? –galdetu zion Andresek.

–Nik..., edaria eskatzen ari nintzela, atseginak zirenez galdetu diet zer moduz zeuden eta zer egiteko asmoa zuten.

–Ta? Ez al zara haiekin joan? –izan zen Andresen galdera.

Denen algara artean Mintxo haserretu, altxatu eta joan zen. Handik minutu gutxitara denak nekatuta zeudenez, biharamunerako geratu ziren.

## Maiatzaren 7a, igandea

Frantziako presidentziarako hauteskundeak ziren. Beste berririk ez zen. Gosalduta, Manuk egun ederra izanen zutela iragarri zuen leihotik begiratu zuenean. Dutzatzen ari zela, telefonoaren doinua entzun zuen. Lehortu gabe, Jabierrek deitu ziola ikusi zuen. Berehala jakin zuen deiaren arrazoia: Zaragozan

neska bat erdi hilda topatu zuten. Larriki zaurituta zegoen labanez edo antzeko tresnez egindako ebakiak izaki, baita hezur hautsi batzuk ere bai. Koma sakonean zegoen. Nigeriarra zen, hemezortzi urte baino gehiagokoa eta ez zen mehea; altua eta zabala baizik. Foruzainen burua desenkusatu zen deitzeagatik, baina biek bazekiten zein lanbidetan ari ziren, azkeneko berri txarrak garrantzitsuagoak ziren eguneroko bizitza baino. Hura ez zen berri bakarra. Beranduago jakin zutenez, Lizarrako Paris diskotekan arazoak izan ziren. Manuk udaltzaingoan galdetu zuen. Lizarrako Andres udaltzainarekin mintzatuko zen arratsaldean. Goizeko seietan bukatu zuen txanda eta bazkaltzeko altxatuko zenez ordurako deitzekotan geratu zen ikertzailea. Manuk Andresi deitu zion geratutako orduan.

–Kaixo Andres, zer moduz emaztea eta seme-alabak?

–Ongi. Aiton-amonaren etxean gaude familia-bazkaria egitekotan. Alabak ekarri gaitu Iruñera karneta atera berritan.

–Etorkizuna haiena da. Guk ere familia-bazkaria dugu...

–Manu..., ziur gaueko gora-beheraz galdetu behar didazula.

–Bai... Zer gertatu zen diskotekan?

–Ez zen diskotekan bertan. Disko ondoan furgoneta batetik neska bat atera zen zaurituta. Guri tokatu zitzaigun ospitalera eramatea. Hil nahi zutela errepikatzen zuen. Galderen bideez, kostata adierazi zigun prostituitzera behartu zutela; baina orduan zerbait, askoz larriagoa egin nahi ziotela sumatu zuen. Gizon batek mina egiten zion eta zioenez hil nahi zuen.

–Furgonetaz edo gizonaz informazio gehiagorik lortu al duzue?

–Ez. Furgoneta desagertu da eta inor ez dugu topatu. Neska, Guatemalatik heldu berria zen eta ezin izan digu beste informazio gehiagorik eman.

–Ongi da, Andres. Mila esker. Utziko dugu solasa, besterik ez bada. Ospa dezagun bazkaria eta ahantz dezagun kaka hau momentu batez.

–Hori da. Ongi ibili Manu.

Bisitan ziren Lehengusina Sara eta senarrarekin une batean izan ondoren, etxekoekin bazkaria egin zuten. Etxeko guztiak zeuden eta gustura egon ziren. Halakoetan baino ez zuen ikertzaileak errealitate gordina ahazten. Bazkalondo atsegina izan ondoren banatu ziren. Aitona-amonei bina musu eman ondoren June, Mikel eta Miren beren etxera mugitu ziren eta Manu berera.

Kalearen bestaldean norbait ari zen haiei begira. Egun hartan Manuren lagunek ere beren familiekin zuten hitzordua. Gizonak beste zereginik ez zuenez bere etxeko bakardadera zuzendu zituen urratsak. Behin etxeratuta, gerezi batzuk garbitu eta sofara eramane zituen jateko eta telebista ikusteko. Nekatuta zegoen eta konturatu gabe, lotan geratu zen. Esnatu zenean gauerdia zen eta lotarako prestatu zen.



## Maiatzaren 8a, astelehena

Eguraldi ona zuten. Berrietan beste berririk ez zen. Macron garaile suertatu zen Frantziako presidentziarako hauteskundeetako bigarren itzulian: 66-34, Le Penek aurreko hauteskundeetatik askoz partaide gehiago lortu zuen.

Goizean goiz, beste iruzur posible baten berri izan zuten. "Pollock" handi berri bat agertu omen zen AEBn eta New Yorkeko adituek erabateko adostasunik izan gabe ere, benetakotzat hartu zuten. Pariseko arte-galeria batean ere, Van Goghen beste Eguzki-lore berri txiki bat erakutsi zuten. Pepi Fernandezek eta Elenak adierazi zuten hark ere iruzurra zirudiela. Ezin zuten probatu, baina iruzurraren baldintzak betetzen ziren: ordura arte inork ez zuen artelanaren berri inon probatu, ezta dokumentu batean aipamenik ere, testamentu batean esaterako, nolabaiteko erreferentzia egin; lanak ezustean agertzen ziren aspaldiko familia burgesen ganbara edo traste-biltegietan; nagusiak ez ziren ohiko jabeak eta benetakotasuna adierazi zuten arte-kritikariak ez ziren zalantzarik gabekoak. Bestalde, aipatutako zalantzak aparte, ezin zuten probatu benetakoak zirela. Azterketa teknikoek ez zuten ezer arrarorik topatu. Materialak eta pigmentuak garaikoak ziren, kromatografoek ez zuten ezer berezirik topatu eta Pollocken teknikak ziren erabili zirenak. Hala ere, arraroa zen erreferentziarik gabe bat-batean agertzea. Jakerrek, beste hacker batzuen laguntzaz, Internet Sakonean arte-lanen iruzurretako web-orriak bisitatu zituen. Hackerrak konturatu ziren web batzuek artisautza eta arte produktu desberdinak saltzen zituztela. Gehienetan lapurtutako gauzak ziren, baina beste batzuk erreproduzio eta kopia onak, originalak eta benetakoak balira bezala. Ordura arte ez zituzten puntako margo-lanen erreproduzio produktuen salmentarik topatu. Hala ere, susmatzen zuten jarraituz gero lortuko zutela. Dena denbora kontua zen.

Lorentxo gustura ibiltzen zen tailerrean. Arratsaldeetan joaten zen eta konturatu gabe pasatzen zitzaizkion orduak. Tailerrean denek libreki margotzen zuten, noizbehinka gonbidatu batek klase bat ematen zienean izan ezik. Lorentxok Txomin Barbarin eta Maria Irisarri ikertu behar zituen, kopia onak eta bertsioak egiteagatik baitziren famatuak. Pasa zituen egunetan gehien maite zituen abstraktuen antzeko artelanak egiten aritu zen. Ez zen apartekoa, ezta txarra ere. Tailerreko margolari batzuekin harremanak egin zituen arren, Txomin Barbarinek ez zion bat ere kasurik egin. Maria Irisarri, berriz, ondoan ibiltzen zen margotzen eta berarekin mintzatzen zen arteaz eta teknikez. Jackson Pollock, Pablo Picasso, Henri Matisse, Joan Miro, Paul klee, Vasili Kandinski eta Mark Rothko ziren beraien gustuko margolariak eta biek Pollocken automatismo teknikak maite eta erabiltzen zituzten.

Bitartean, Gorka joaten zen lagunaren esperoan eta Michellekin harremanetan jarraitu zuen. Emakumeak asko hitz egiten zuen eta Gorkari ez zitzaion gehiegi kostatu hark susmagarrien ibilerak eta balentriak kontatzea. Nahiz eta Lorentxo eta Mariarekin zerbait hartzera ateratzen ziren, aparteko batean Maria eta Txomini buruz galdetu zion. Haietaz galdetzea ez zen harritzeko modukoa, biak baitziren tailerreko izarrak.

—Maria ikusi duzu nolakoa den. Maria Irisarri oso atsegina da, baina Txomin harroa eta erabat sinistua.

–Hala izanen da. Baina galdera, artista bezala zer jarrerak dituzten jakiteko zen.

–Biak oso onak dira. Hala ere, Mariak denen aurrean garatzen du bere lana; Txomin, aldiz, ahal izanez gero, beste gela batean ixten da.

Bulegoan, Jaker, Lorentxo, Gorka eta Manu elkartu ziren espezialistarekin bilera bat egiteko. Lorentxok eta Gorkak beren betiko lanera joan behar zuten laster, baina gaiaz gehiago jakin nahi zuten. Elena Burgi agertu zenean, ura eta kafeak hartzeko pitxerrak eta edalontziak eskura, mahai nagusiaren inguruan eseri ziren. Azken iruzurraren zalantzen ildoari jarraituz, Pollocken arteari eta bilakaerari buruz galdetu zioten. Manuk jakinminez galdetu zion.

–Barkatu ezjakintasuna Elena, baina Pollockek egindako lan guztiak ez al daude testatuta edo kontrolatuta? –emakumeak pazientziaz eta umorez erantzun zion.

–Pollockek milaka lan egin zituen, haietako batzuk saiakerak baino ez zirenak. Pintura automatikoa egiten hasi zenean margo pilak egin zituen neurri askotan eta paper gainean.

–Orduan, ezinezkoa da benetakoak diren ala ez asmatzea! –izan zen Jakerren komentarioa.

–Ezinezkoa ez. Aparteko iruzurra ez bada, gehienetan badago benetakoak ez diren jakiteko modua. Hona memoria honetan ekarri ditut azaltzeko moduan argazki batzuk. Jaker, zure pantaila handian ikusterik al dago? –Jakerrek baiezkua egin zuen eta bere eremura gonbidatu zituen besteak.

Jakerren bulegora sartu ziren guztiak, eroso jarri eta pantailari begira imajinak ikusteko prest. Elenak kontatu zien Paul Jackson Pollock post-espresionismo edo espresionismo abstraktuko artistarik ezagunena izan zela. Hasieran beren margoetan irudiak nabaritu zitezkeen: Otso emea, Konposizioa emakume batekin, Sekretuaren zaindariak, Arra eta Emea eta Stenographie lanak ikusi ahal izan zituzten.

Adibideetan ikusi ahal izan zuten Pollockek mogimendu zehatz bat eginik uniformeki margotzen zuela, automatikoki. Mihisean edo paper handi batean, batzuetan bi metro baino gehiagokoa, lurrean plastiko edo egunkariekin babesten zuen zorua eta pintura akrilikoa erabiltzen zuen. Ondorenean “Dripping” teknika azaldu zien. Jackson Pollockek, “Action Painting” margoketa automatikoa nola egiten zuen ikusi ahal izan zuten: pintura-isurketa, batzuetan makil edo adar batekin egiten zuen, tantak edo isuriak beti berdintsu azalera guztian homogeneoki zabaltzeko.

Beste bideo batzuetan ikusi ahal zuten Pollockek nola erabiltzen zituen beste tresna batzuk: pintzel desberdinak, paleta handi eta txikiak. Ikertzaileek komentarioak egiten zituzten artistaren tekniken erraztasunaz konturatzean. Pollockek isurketa horiek koadro osoan zehar erregulariki egiten zituen, koadro handiekin soka batetik zintzilikatuta behar bazen, gehienetan Dripping teknika erabiliz. Elenak kontatu zien iruzurrak azkeneko teknika horrekin egindako tamaina ertaineko lanak zirela, harrigarriki grisa, berde esmeralda eta gorri desberdinez osatua. Suposatzen zen teknikaren hasieran egindako margoak zirela eta milioi batzuetan saldu nahi zituzten. Azkenik emakumea eta beste bi laguntzaileak joan ziren. Jaker eta Manu nor bere lanean aritu ziren denbora batez.

Eguerdian bazkaltzera joanda arratsaldean berriz elkartu zirenean, Jakerrek eta manuk ortzegunetik ordura arte gertatutakoa errepasatu zuten. Lehen-lehenik prostituten erailketen kasua errepasatu zuten. Manuk adierazi zuen itxaropena.

–Asteburuko lanen ondoren, Jabier Lopezek erran didanez hankaz gora utzi zuten gaizkileen azpiegitura. Zaragoza, Tuteran, Iruñea, Logroño, Bilbo, Irun eta Baionako pisuak aurkitu dizkiegu eta gaizkile talde ederra harrapatu dugu.

–Dena den, ez dugu erantzulerik aurkitu eta egitura berregiten ahal dute.

–Ez dut uste. Inguruko diskotekak kontrolatzen ditugu. Badakite zain gaudela.

–Benetan uste duzu auzia konponduta dagoela?

–Arrazoi duzu, egoeraren deskribaketa baino gehiago nire desioa izan da hau. Hala ere, espero dut emakume gaixo horien tortura eta erailketekin bukatzea.

–Nik ere bai. Baina ez naiz hain baikor.

Pixka batean jarraitu zuten beren lanaren balorazioa egiten. Bestetik arte-iruzur kontuan oso zaila zuten aurrera egitea. Ustezko artista iruzurtiak azioan harrapatzea zaila zen. Gainera, ez zen erabat segurua benetako pista jarraitzen zutenik. Ziurtatzeko probak behar zituzten; baina, nola hurbildu Txominengana? Ez zuten bat ere erraza. Momentuz jarraituko zuten hasitako bidetik. Lorentxok eta Gorkak suerte eta aukera izatea espero zuten.

Lanetik atera eta Manu jaitsi zen auzora. Berandu zen eta lagunak joanak ziren ibiltzera. Seme-alabekin telefonoz hitz egin zuenean lasaitu eta erlaxatu zen pixka batean. Lagunak itzuli zirenean gustura meriendatu zuten. Lagunek bazuten eguneko solasgaiak aparte, Macronen garaipena alegia, beste gai bat: beraien seme-alabez eta senide gazteek arduratuta haien etorkizunaz ari ziren hizketan. Hemezortzi-hamaika urte arteko seme-alabak izanda normala zen. Hala ere, Manuren familian gazte batzuk Alemanian lanean zirela jakinda galdetu zioten. Honek kontatu zien.

–Atzo eguerdian lehengusina Sara gurasoenean bisitan zen senarrarekin eta kontatu zigun herriko lehengusuaren seme-alaben egoera. Haien urte tarteak Hogeita bi-hogeita hamabikoak dira eta denetariko egoeran daude. Txikiak, Iratxe, medikuntza ikasten ari da, Lurdesek lanaldi erdiko lan kaxkarra dauka... –Joxek moztu zion interesatzen zitzaion informazioa jasotzeko.

–Hara, ez enroilatu! Ez al zen seme nagusia lanean Alemanian zegoena?

–Bai. Orain kontatu behar nizun. Duela bi urte joan zen neskarekin bizitzeko. Orain lan hobea du eta ezkondu dira. Baina Xabier eta Ane luzaro geratuko dira, hemen lan duina lortu arte behintzat. Kanpora joan diren gazteak noiz itzuliko diren ezin da asmatu. Ea egoera ekonomikoak eta enpleguak hobetzen jarraitzen duten eta kanpoan daudenentzat eta gure gaztetxoentzat lanpostuak sortzen diren.

Handik gutxira elkarri agur erran eta etxeratu ziren. Manuk telefono-elkarrizketa luzea izan zuen gurasoekin aitarekin hasi eta amarekin gero. Irakurtzen bukatu zuen eguna.

## 7. Gorka eta Lorentxoren ikerketa margolan-iruzurretan

Maiatzaren 9a, asteartea

Eguraldiak txartzera joko zuela iragarri zuten. Iluntzean, gauean edo hurrengo goizerako euria espero zuten. Manu, erosketa batzuk egin ondoren igo zen bulegora. Lanean hasi zela, laster agertu zen Jaker. Beste kafe bat prestatu eta hartu zuten solasean ziren bitartean. Beranduago, bakoitza bere lanean jarri zenean, Manuk Lorentxoren deia jaso zuen. Aurreko eguneko Elenaren arte ikastaro trinkoak eragina izan balu bezala, Lorentxok aipatu zuen bere ikerketetan aurrerabidea izan zuela. Ikertzaileak Jakerri deitu zion eta esku librean jarri zuten telefonoa. Lorentxok kontatu zien Maria Irisarriri gustatu zitzaiola berak Dripping teknikarekin egin zuena. Gizona hunkituta zegoen.

–Atzoko bideoek eraginda Dripping teknika erabiliz margo bat egin nuenean, Mariak adierazi zidan bere miresmena, ez nirekiko, egin nuenagatik baizik. Uste dut bere laguntasuna lortu dudala. –Gizona animatuta zegoen.

–Ongi da! Zer lortzen ahal duzu konfiantza lortuta? –Manuk ez zekien bromatan edo seriozki galdetu zion.

–Ez dakit ziur, baina bere konfiantza aprobetxatuz galdetuko diot ea iruzurraz eta Txominen ibileraz zerbait dakien.

–Kontu handiz galdetu, Lorentxo!

Ondoren, Gorkak hitz egin zuen. Honek aurrerapen handia egin zuen. Berea lagunak egiteko erraztasuna zen eta Michellerekin izugarrizko harremana lortu zuen. Agian laguntasuna baino ligatzea zen lortu zuena. Hala ere, emakumeari Txomin gustatzen ez zitzaionez Gorkak lortuko zuen hark Txomin zelatatzea, asmatutako edozein aitzaki sinesgarria erabiliz. Gazteak bere umore bereziaz honela hitz egin zion Jakerri, bere lagunari.

–Jaker, ez dakizu zer nolako neska den Michelle!

–Baina, ez al zoaz ikertzera? –Jakerrek eta biek horrelako solasak izaten zituzten.

–Ikertzera eta neska katxarro argi eta atsegin bat topatuz gero, lagun egitera.

–Lagunak bilatzen dituzu zuk, bai zera! Zuk ohera eramatea bilatzen duzu.

Manuk, arinkeria eta axalkeria maite zituen lagunartekoan. Baina hura ez zen txantxetarako kontua eta adierazi zien bi gazteei. Aurreratzen ari ziren kasuan, baina ez zuten brometan hartu behar. Gorkari garbi utzi zion ligatze kontua uzteko eta nahi zuen atsegintasunez jokotuta ere, Michellerekin lan bat egiten ari zela. Bere momentuan gauzak argituko zizkion eta ordutik nahi izanez gero jarraitu eta sakondu ahalko luke harremanetan. Momentuz ba, ligatzea baztertu behar zuen.

Manuk pentsamendu kontrajarriak zituen tailerrean Gorkak eta Lorentxok egiten zuten ikerketaz. Ez zitzaion gustatzen arinkeria lan kontuetan, baina bereziki Gorkak ezin zuen beste modu batean jokatu eta ikerketa-lan hartan hurbiltzeko lagunak egitea zen modu bakarra. Edonola ere, detektibe nagusiak arte garaikideaz hurbiltze praktikoa egiteko momentu aproposa zela uste zuenez, pentsatu egin zuen Guggenheim museoan Espresionismo Abstraktuko erakusketa berezia bisitatu ahal zutela. Laguntzaileekin telefono komunikazioa eten baino lehen laurok Bilbora museoan bisitaldia egitea proposatu zien. Nahiz eta Lorentxo eta Gorka presaka ibiliko ziren, inork ez zuen eragozpenik jarri bisita eta ibilaldia egiteko.

Eguerdian, Manuk etxean bazkaldu zuen goiz. Buruko minez zegoen eta oso goiz izanda ez zen joan Gabrielarenera bazkaltzera. Toki Alaikoei deitu ondoren etxeratu zen. Gabrielak egindako ajoarriero pixka bat desizoztu eta berotu zuen. Lokuluxka arin bat egin ondoren elkar-tokira abiatu zen. Hiru eta erdietan puntualki agertu ziren hiru gazteak. Gorkak auto dotore eta indartsu bat zuenez zitzu bizian joan ziren, nahiz eta behar zenean abiadura kontrolatu. Hizketa animatuan aritu ziren. Hiru gazteak txikitatik ibiliak ziren elkarrekin, baina gainera laurak arrotxapearrak ziren eta bazuten zer aipatu, erreferente anitz, leku eta jende askori buruz.

Euskadiko plazako aparkalekuan utzi zuten autoa eta museoaren ondoko taberna batean hartu zuten jateko zerbait eta kafea. Museoan, goiko pisua ikusi zuten lehen-lehenik, betiko bilduma gaineratik ikusteko. Arin ikusi ere jende gutxi zebilen-eta. Bigarren pisuan, berriz, espresionismo abstraktuko arte-lanak poliki eta gustura aztertu nahi zituzten. Gorky, Kooning, Kline, Rothko, Barnett, Newman, Mitchell eta Still-en olio mihiseetan dasta zitzaketen mogimenduaren adibiderik ospetsuenetakoak. Ehun eta hogeita hamar lan eder eta handi. Hala ere, Pollocken lanak ikustera joan zirenean lan gutxi batzuk baino ez zituzten ikusten ahal. Maskulino eta femenino izeneko lana zen figurazio pixka bat erakusten zuen lan bakarra; baina bestela, han ez zuten Pollocken sei obra baino gehiago topatu. Pollocken margolanen ondoan beste antzeko batzuk ikusi ahal izan zituzten. Action Painting-en bi mihise handi eta beste erraldoi bat baino ez ziren artista handiarenak. Konturatzeko, bukatu egin zuten erakusketako bisitaldia. Ehun eta hogeita hamar margolanak eta eskultura bakan batzuk gutxi iruditu zitzairen. Azken batean Espresionismo Abstraktuaren erakusketa txiki bat baino ez zen. Zortziak izateko, ixteko, ordu bat falta zenez Postimpresionismoaren erakusketa bisitatu zuten, Signac, Redon eta edozeren gaineratik Toulouse-Lotrec-en kartelgintza ikusi ahal izan zuten. Haiek ziren XIX-XX. mendeen aldaketako margolaririk onenetakoak.

Zortzietan atera, zerbait hartu eta itzulera egin zuten. Euria izan zuten ibilbide osoan. Gehienek gehiago espero zuten bisitalditik. Postimpresionismoko eta Pollocken margo-lan gehiago ikusi nahi izango zuten; harrigarriki, Lorentxo bere munduan zegoen, ikusitakoa hausnartzen, besteek nabaritu ez zituzten konexioak eta magia barneratzen. Arratsean Iruñera itzulita, Manu lagunekin elkartu zen betiko tokian. Merienda-afaria egin zuten giro onean. Ikertzaileak Guggenheim-eko bisita izan zuen mintzagai eta legunek ez zioten bere lanaz galdetu.

Maiatzaren 10a, asteazkena

Ilun eta triste esnatu zen eguna, euritsu hasi eta gero hobetzen joanen zena. Manu ere triste zegoen. Mekanikoki prestatu eta joan zen lanera. Jaker lanean hasia zen eta agurtuta, Manuk ordenagailuetan lanak egiten utzi zuen. Berak ere eginkizun batzuk zituen egiteko eta beranduago kaferako elkartu arte jarri zen lanean. Handik ordu eskasera ezusteko ona izan zuten. Jabier Lopezek deitu zion ikertzaileari esateko bazirudiela emakume-tratuan hasi eta tortura egitea eskaintzen zuten gaizkileak desagertzen ari zirela inguruko diskoteka eremuetatik. Ez zuten erabateko aktibitatea geldituko, baina ez zuten erailketa eta tortura kasurik izan beharko. Desagertze horren arrazoia, izan zuten presioagatik izanzen zen ziur asko. Bezerorik gabe, gaizkileak beste lurraldeetara mugituko omen ziren. Internetez ere bultzatu zituzten. Egia erranda hackerrek lan handia eta isila egin zuten egunetan. Momentuz lortu zuten jendilaje haietaz libratzea. Manuk txostenak osatu eta gastuak zehaztu behar zituen. Ikertzailea pozik sentitu zen, prostituten erailtze eta torturatze kasu kezagarria erabat argituta ez bazegoen ere. Handik aurrera asteburu lasaiagoak izango zituzten, gainera. Diskoteken nagusiek kontratatu bazituzten ere, Maribel Erbitiri zuzendu behar zion txostena. Era bererlanagatik faktura egin behar zuen. Lalak izan ezik, Jakerrek, Gorkak, Lorentxok eta laurok sartutako orduak pila bat ziren. Dirutza irabazi behar zuten. Eskerrak diskoteken nagusien elkartze berezi hura zela ordaintzen zuena. Ikertzaileak Jakerrri kontatu zion dena eta elkarrekin zerbait hartzera atera ziren. Bueltan nork bere lana egiten jarraitu zuen eguerdira arte. Lan neketsua eginda, bazkaltzera joan ziren .

## 8. Eva Urrozen jazarpena eta Filo Maturana

Arratsaldean txostenak ia bukatuta eta diru kontuekin aspertuta zegoela, Manuk telefono-deia izan zuen. Entzun zuen ahotsa emakume urduri batena zen. Ez zion ongi ulertu eta ozenki errepikatzeko erregutu zion.

–Bai, Arratsalde on. Ez dizut ongi ulertu. Deiaren arrazoia eta izena ozenkiago erranen dizkidazu, mesedez?

–Barkatu. Eva Urroz naiz eta zure laguntza profesionala behar dut...

–Pozten naiz zu ezagutzeaz. Erran lasai zer gertatu zaizun.

–Bulegaria naiz eta bakarrik bizi naiz. Gizon batek gaez deitzen dit eta beldurtuta bizi naiz.

–Noiz hasi ziren deiak eta zer erraten zizun?

–Duela hiru aste hasi zen dena. Ahots arraroa erabiliz galdetu zidan zer egiten nuen eta berarekin egon nahi ote nuen. Nik galdetu nion nor zen eta zer nahi zuen. Alferrik. Ez zidan nahi nuena erantzun. Jarraitu zuen berearekin, zer janzten nuen galdetzen eta abar.

–Ulertzen dut. Jazarri, larritu eta beldurtu nahi zintuen. Zer egin zenuen?

–Poliziarri eskatu nion laguntza, baina ez zuten ezer lortu. Aurre-ordaindutako telefono batetik egiten zituen deiak eta ahotsa eraldatuta zuen. Iruñetik egiten omen zituen deiak. Ikertzaile pribatu batek ere ezin izan dit lagundu eta zu gomendatu zaitu.

–Nor da ikertzaile hori?

–Filo Maturana. Berak dio zuk eta zure laguntzaileak baino ezin didazuela lagundu.

–Filo... –Ongi pentsatu zuen zer gaineratu.

–Ongi da. Etorri beharko zenuke lasaiago hitz egitera eta kontratua sinatzera. Hala ere, argitu behar dizut ez dudala onartuko Filo ikerketaren tartean sartzea.

Emakumearekin geratu zen ordu bat beranduago. Manuk pentsatu zuen Jakerrantzako lana zela, baina emakumearen bizitzaz gehiago ikertu behar zuela. Edonola ere, gogorik ez bazuen ere, Filorekin hitz egin behar zuen. Beldurrez deitu zion. Emakumezko ikertzaile hark bera zirikatzea beste asmorik ez zuen izanen.

–Filo Maturana naiz. Nor da?

–Filo, Manu naiz. Eva bidali didazu eta zuk ikertutakoaz hitz egin nahi nuke.



–Manu! Beti bezain lehor. Zer moduz zaude?

–Filo, ez ginen oso lagun bukatu. Nirekin duzun jarrerak eta egiten dituzun lanek ez didate bat ere graziarik egiten. Beraz, goazen harira. Zer erran ahal didazu?

–Manu, ez nuen ezer garbirik atera. Horregatik, espero dut hacker horrekin eta guk biok elkarrekin jazarlea harrapatu ahal izango dugula.

–Filo, badakizu ez dudala zurekin ezer nahi. Hacker horri Jaker deitzen diogu eta bion artean gehiago eginen dugu, zure enbarazuarekin baino.

–Manu, ahaztu gure artean izandako ezulertu guztiak. Elkartu gaitezke informazioa ikertzeko.

–Filo, beti garbi hitz egin dizut. Zure etika faltaz aparte, nazkatuta nago zure sexu jazarpenarekin...

–Behin gozatu genuen elkarrekin. Ongi pasatzen ahal dugu berriro. Badakit bananduta jarraitzen duzula eta zure laguntxo berriarekin...

–Ez zaizu inporta nire bizitza pribatua. Esadazu zer jakin zenuen Evaren jazarleari buruz?

–Manu... Ez duzu erremediorik. Badakizu elkarrekin...

–Erantzun behingoz. Zer jakin ahal zenuen?

–Ez baduzu nirekin ikertu nahi, erranen dizut telefono eta jazarlearen berri jakitea ezinezkoa izan zela. Xehetasun eta momentu on bat nahi izanez gero, badakizu non nagoen.

–Aio Filo. Ez espero nire deia.

–Sarri artio, Manu.

Handik gutxira Eva agertu zen. Emakumea hogeita hamar bat urtekoa zen, itxura onekoa eta hezia. Manuri kontatu zion aurreko astean deiez gain mezuak jaso zituela. Mezu haiek paperezko eskutitz moduan heltzen ziren. Ikertzaileak haietako bat aztertu zuenean Evaren helbidea eta korreoko zigiluak ikusi zituen kartazalean eta inprimagailuaz letra larriz eta tamaina handian jazarpen hitzak agertzen ziren. Emakumeari telegrafikoki ongi ote zegoen baino ez zioten galdetzen. Telefono deiei erantzutea eskatzen zioten, laguntza eta maitasuna eskainiz. Beste eskutitzak berdinak ziren. Ikertzaileak eskutitzak irakurri bitartean emakumeari begiratuak bota zizkion. Emakumea urduri eta kezkatuak zegoen. Orduan beste berririk eman zion. Norbaitek atzetik jarraitzen zuela uste zuen. Manuk babesteko beste leku bat ote zeukan galdetu zion.

–Bai. Beno, ez dizut erran daukadan senide bakan baten etxean izan nintzenean eskutitz horietako bat hara heldu zitzaidala eta lagun baten etxean berdintsu. Beste lankide batek erran dit lanean baimena

eskatu behar dudala eta betiko bizitzatik aldendu. Egin dugun plana da, ezustean beraren etxera joatea, dena konpondu edo jazarlea harrapatu arte.

Manuri ongi iruditu zitzaion. Momentuz salbu egonez gero, bitarteko guztiak erabiliko zituzten gaizkilea harrapatzeko. Emakumeari inguruko pertsonaz eta bere bizitzaz galdetu behar zion. Ikertzaileak denbora eman zuen emakumea lasaitzen eta gizon erasotzailearen peskizan egiten ahal zutela erraten. Hasteko, soldata eskasekoa zenez, ez zion ezer ordainaraziko arazoa konpondu ezean. Dena den, Manuk Evari lagunduko zion pertsonaz galdetu zion.

–Barkatu Eva, baina kontatzen ahal didazu nor den etxera gonbidatu zaituen laguna.

–Emilio Solano da. Lankidea eta aspaldi honetan lagun handia. Erran dizudan bezala, bera da erasotzailea despistatzen eta ni lasaitzen laguntza eman didan lagun bakarra. Gainera, bere etxean egoteko aukera ematean arnasaldi eta lasaialdi ederra hartzen ahalko dut. Aspaldian ez nintzen hain ongi eta erlaxatuta sentitzen. Atzo bere etxera joan nintzenean lortu nuen lehenengoz ongi lo egitea.

–Pozten naiz. Zure lagun horren eta besteen datuak eta helbideak eman behar dizkidazu. Bestalde, badut galdera bat zuretzat. Zer egin behar duzu ezkutuan egonen zaren bitartean?

–Lasai hartuko dut. Irakurri egingo dut, korrika egin eta margotu egingo dut. Aprobetxatuko dut erlaxatzeko. Erasotzailearengandik libratzea gauza handia izanen da. Opor berezia izango da.

–Primeran, baina nora joango zara pintatzera? Hara joaten zara normalean?

–Bai. Udaleko ikastaro batean apuntatu nintzen eta azken astean ez naiz joan gaizki egoteagatik. Orain gustura joango naiz...

–Barkatu Eva, baina ezin zara ohiko tokietara joan, ezta lasterka egitera.

Ikertzaileak azaldu zion zein garrantzitsua zen betiko lekuetatik ez agertzea. Saiatu eta egin. Era berean zuzeneko harremana izateko eta azken informazioa edukitzeko beharra azaldu zion. Orduantxe Manuk Evaren poltsikoko telefonoa klonatu zuen. Jakerrek erakutsi zion egiten eta ez zuen aukera galdu. Azkenik, datuak eman ondoren emakumea lasaiago joan zen.

Jaker agertu zenean nagusiak lan berriaren gora-beherak kontatu zizkion. Ez zitzaion iruditu oso kasu zaila izanen zenik. Hala ere, iruzurrekin bazuten buruhauste nahikoa eta gazteak beste ikerketa bat zeukan esku artean. Famateu batek ziber-erasoa jasaten zuen eta miresle astun batek ez zuen bakean uzten. Jarraitzaile hori hacker bat zenez, ez zen erraza hura harrapatzea eta bere idoloa bakean uzteko konbentzitzea. Gazteak bere penak kontatu zizkion Manuri.

–Zuri infideltasun kasuekin gertatzen zaizuna sentitzen dut nik famatuen jarraitzaile astunen aferekin. Kasuok dirua emanen digute, baina astunak suertatzen dira –Manuk erantzunik sentituena eman zion laguntzaileari.

–Ez onartu kasu horiek! Nahikoa lan daukagu bestela ere –gaztearen erantzuna, ordea, burutsua izan zen.

–Ez. Jasanezintasuna ongi ordainarazten diegu... Kexaka eta purrustaka ibiltzeko eskubidea ez dugu zapuztu behar.

Lan-eguna bukatutzat eman zuten. Manu auzora jaitsi zen nekatuta eta gosetuta. Toki Alain meriendatu zuen Felixen ondoan, Joxe eta Patxi paseorako agertu bitartean. Lagunak paseatzera atera zirenean, Manu lan zail baten aitzakian etxera joan zen. Familiarrei deiak egin ondoren erlaxatu zen eta ohera joateko prestatu zen.

## Maiatzaren 11, ortzeguna

Eguraldi nahasia iragarri zuten. Euri-zaparradak izanen omen ziren. Egun hartan oso goiz hasi ziren lanean. Jaker agertu zenean aurreko eguneko Evaren jarraipena egin zuten. Denbora gutxi zen, baina non ibili zen eta izan zituen komunikazioak egiaztatu zituzten. Momentuz ez zuten ezer arrarorik topatu. Edonola ere, Jakerrek komentatu zuen zer egingen zuen. Interneten Evaren inguruko jendea ikertuko zuen. Manuk, bitartean, ohiko ikerketak egingen zituen. Emakumeak ez zuen korreorik jaso. Ez zen ohiko tokietan ibili eta telefono-deiak ikertu beharko zituen Manuk. Orduan Gorkak deitu zien beraien ikerketa komentatzeko eta kontsulta bat egiteko.

–Manu, atzo ez ginen arte-tailerretik agertu eta ezin izan genuen ezer egin. Michellek galdetu dit zergatik ez ginen agertu eta tontoarena egin dut ongi entzun ez banio bezala. Deia eten egin dut oraintxe bertan. Zer erran behar diot –Manuk ez zuen zalantzarik izan eta erantzun zion.

–Erran egia. Lagun batzuekin Guggenheim-eko espresionismo abstraktuaren bilduma ikusten aritu zineten. Ez duzu alferrik gezurrik asmatu behar. Erraiozu Lorentxori berdin jokatzeko. Zerbait gehiago nahi al duzu?

–Ez. Beno...

–Dena den, Gehiegi presionatu gabe, bideratu behar dituzue zuen arteko solasak Txominen bizitzari buruzko gauza gehiago jakiteko.

–Primeran. Mila esker. Jarraituko dugu ikertzen.

Handik gutxira Mirenek deitu zion asteburua antolatzeko. Kanpora joanen zen eta Manuk egin behar zuen seme-alaben kargu.

–Manu, sentitzen dut aukerarik ez izatea, baina badakizu zure gurasoak ere kanpoan direla. Beraz, ikusi behar dugu nola antolatu, baina ortzira le eguerditik igande arratsaldea bitartean ez dugu zainduko dituen inor...

–Lasai. Larunbatean barbakoa antolatuko dugu eta arratsaldean planetariora mugituko gara. Igandean Oiasso museora eta Donostiara joango gara. Ortzirale arratsaldean, berriz, ez dakit nola moldatuko naizen...

–Ez izan kezkarik. Lagunekin geratu dira eta June nahiko ongi moldatuko da. Afaria antolatu eta gauerako hartzen badituzu ez da arazorik izanen.

–Orduan ez dago arazorik. Ongi ibili asteburuan, Miren.

Filo gizon batekin ari zen telefonoz mintzatzen. Bere bulego edo langela txar hartan, eraikinaren lehen solairuko bulego-sail batean, lan-mahaia, hiru aulki, bi besaulki eta ordenagailu-modem-inpresora zituen lan egiteko. Lan kaskarrak egiten zituen, dibortzio eta antzeko ikerketak egin behar zituen aurrera egiteko. Dirua nonbaitetik atera behar zuen. Edozein gauza egingo luke lan arruntetatik ateratzeko. Gainera, dirutza irabaziko zuela hitz eman zioten. Bezeroaren jarrera ez zitzaion gustatzen, baina gogoz eginen zuen lan hura. Mina egiteagatik ere eginen zuen. Gizona agintzen ari zen hurrengo urratsetan zer egin.

–Orduan, Eva horren kasua pasatu diozunez aukera izango duzu berarengana hurbiltzeko? Nik jarraitu ahal dut, baina ezagutu behar nuke zertan pentsatzen ari den eta bereziki zer egiteko asmoa duen. Jakin behar dut noiz eta non jokatu haren kontra.

–Manuk ez nau aguantatzen. Bakean uzteko erran dit.

–Begira, ez dugu presarik, baina lortu behar duzu haren ondoan ibili. Erakargarria izan behar duzu. Zure sexua erabili.

–Jakin ezazu, hain zuzen ere sexualki hurbiltzeagatik errefusatzen nauela.

–Oso emakume erakargarria zara. Egin behar duzuna da bere bulegoan agertu eta itxura apala emanaz kasu horretan laguntzen saiatu. Mikrofono batzuk jarri behar dizkiozu.

–Ez da posible izango. Aurreko batean horiexek jarri nizkion eta ziur naiz mikrofonoak bilatuko dituela. Badakit ez duzula onartuko, baina agian beste emakume batek egin ahalko luke nik lortu ezin dudana...

–gizonak moztu zion.

–Ez. Nik badakit zuk egin dezakezula. Lortu behar duzu hurbil egotea, nola edo hala.

Gizon hark benetan gorrotatzen zuen Manu. Filok pentsatu zuen ez zuela beste erremediorik. Bai, saiatuko zen lagunkoi izaten, engainatzen. Manuk ordainduko zion kartzelan sartu izana. Berak sufriaraziko zion. Filok hilabete asko pasa zuen kartzelan gaizkile batzuei laguntza emateagatik, Manuk parte hartu zuen kasu batean. Mendeku bila, emakumea hurbilduko zitzaion Manuri.

## Maiatzaren 12a, ortziralea

Berrietan nabarmendu zuten 43 udal, zonalde ez-euskaldunetik mistora pasatuko zirela. Bestetik nafar banderaren aldeko manifestazioa bihurtu zen hizpide. UPN zen Ultzamako biogas-plantako gastu eta diru emateei buruzko ikerketaren kontrako alderdi politiko bakarra. Manuk, dena den, bazituen zeregin batzuk eta ez zen berri haietan gehiago sakontzeko geratu. Manuk goiz hartan erosketak egin zituen afarirako eta hurrengo egunetarako. Laster bulego bidean zen. Nahiz eta oso egun argia ez izan, goizeko giro garbi-ederra dastatu zuen oinez arin Santo Domingo aldapara zuzentzen zen bitartean. Zuhaitzek berde berriak janzen zituzten eta airea polenez beteta zegoen.

Bulegoan sartu zenean Jaker bere gelan zen lanean ordenagailuetan jo eta ke. Famatuaren jazarle kasuaz gainera, enpresa baten segurtasunaz ari zen, ohiko lana. Hala ere, Evaren telefona kontrolatzen eta bere ingurukoak ikertzen ere ibili zen. Manuri komentatu zion jakin zuena, ezer berezia ez bazen ere, laster mandatu batera atera behar zuelako. Manu txostenak eguneratzen ari zen. Azkeneko bi urteetan asko aldatu zen beren lana. Ia bakarka ibiltzetik Jakerrekin egiten zuen lana laukoiztu egin zen eta beste hiru lankideek, Lorentxo, Gorka eta azken aldian Lala, asko laguntzen zieten. Jakerrek ikerketa gehienak gauzatzen zituen teknologiak erabiliz eta berak alde administratiboa eta lanak zuzentzen zituen. Lalari, kriminologia ikasketak bukatu eta lanean erabat sartuz gero, erakutsi behar zion bere ordezkoa izan ahal izateko. Hala ere, etorkizunerako beste gogo bat zuen: Manuk ia obsesiboki pentsatzen zuen familia lan hartako arriskuetatik libratu behar zuela.

Bulegoko txirrina jo zuten. Atea zabaldu zuenean Filo ikusi zuen. Mundua erori zitzaion. Ez zekien nola libratu harengandik. Nola kanporatu pentsatzen ari zela, emakumea desenkusatzen hasi zen.

—Manu, barkamena eskatzera etorri naiz. Banekien ez zenidala telefonoz kasurik eginen eta behingoz zuzenean desenkusatu nahi nuen. Gaizki hartu zaitut eta bukatu dira nire erasoak. Ez zaitut berriro zirikatuko eta nire laguntza eskaini nahi dizut nahi duzun ikerketarako.

—Ba... Ez dakit zer erran. Orain lanpetuta nabil. Uste dut hoberena...

—Ezin dizut barkamena agindu, baina ez nazazu bota lehenago entzun gabe. Evari buruz ikertu nuena kontatu behar dizut. Nik ezin nuen gehiago ikertu eta horregatik bidali nizun, baina baliteke zerbait interesgarria edukitzea eta kontatu nahi dizut. Utzi pasatzen eta bost minutuan bakean utziko zaitut.

Emakumea benetan ari zela zirudien. Ikertzaileak ez zuen botatzeko indarrik. Filo erasokorraz libratzeko aukera ez zen ahazteko modukoa. Atea zabaldu zuen. Emakumeak kontatu zion hamar egunetan Evaren inguruan ikertzen ibili zela eta ez izandako senargai ezta inguruko lagunaren artean inor ez zen nabarmendu. Ez zuen asmatu ikerketaren jarraipenarekin. Dena den, Manuk galdetu zion bere lagunaz.

—Zer dakizu Emilioz? Noiztik ezagutzen du Evak?

—Jakin dudanez lankidea da duela urte pare bat. Azken aldian asko lagundu dio Evari. Ezkondu gabeko emakume bakartiok batzuetan eraso mota desberdinak izaten ditugu eta ongi etortzen zaigu gizonezko lagun bat ondoan.

Handik gutxira Filo joan zen berak ikertutakoaz txostenak utziz. Joan zenean Manuk mikrofono detektagailua pasatu zuen badaezpada. Ez zen fidatzen, aurreko batean mikro batzuk utzi baitzituen. Zorionez ez zuen bat ere topatu, ongi bilatuta ere. Egia izango ote zen Filo berarekin izandako jarreraz eta egindakoaz damututa zegoela? Hala eta guztiz ere, Emilio Solano ikertu nahi zuen. Evarekin hitz egin behar zuen aurreko egunean nola ibili zen jakiteko. Agurtu ondoren azken orduetara galdetu zion.

–Kaixo Eva, nola zaude? Zer moduz ibili zara azken orduetan?

–Kaixo. Ongi nago. Emilio primeran portatzen ari da. Erasoaz... bi telefono deiez aparte ez dut eskutizik jaso eta hobeki sentitzen naiz.

–Primeran. Pozten naiz, baina kontua da bizitza normalera itzultzea lortu behar duzula. Arraroa irudituko zaizu, baina gaur arratsaldean zure etxera itzuli behar duzu. Lasai, zainduta egonen zara nire laguntzaileen begiradapean. Dena den, momentuz ez zara lanera itzuliko eta nahikoa janari erosi behar duzu egun batzuetan atera gabe egoteko. –Emakumea harrিতuta zegoen.

–Ez dut ulertzen. Hemen, Emilioren etxean lasaitasun gehiago lortu dut. Utzi egun batzuetan hemen pasatzen. Gero...

–Begira Eva, dakidanagatik hobe duzu etxera itzultzea. Sartu etxean, ez mugitu eta ez ireki atea nahi baduzu, baina ikusiko duzu nola konpontzen den dena denbora gutxian.

–Ongi da. Emilio lanetik itzultzen denean erranen diot eta lagunduko dit erosketetan.

–Ez. Arratsaldean kontatuko diozu telefonoz. Gorka izeneko gazte bat bidaliko dizut laguntzeko. Ordu biak aldean agertuko zaizu. Egin ezazu nik erraten dizudan bezala eta dena konponduko da berehala. Esadazu horrela egingo duzula!

–Ez dut ongi ulertzen, baina egingo dut.

Manuk bazuen informazio bat gorde egin zuena. Evari egindako telefono deiak entzun eta ikertu zituen. Ahots eraldatua ikertu zuen eta Emiliorena izan zitekeela zirudien. Gainera haren autoan GPS bat eta etxean mikrofonoak jarri nahi zituen.

Manuk Gorkari deitu zion Evarengana bidaltzeko. Komentatu zion dena eta zehatz-mehatz adierazi zizkion egin beharreko urrats guztiak. Ondorenean Gorkak arte-lanen iruzurraz azkeneko berriak eman zizkion. Bere lagun Michellek zioenez Txomin Barbarinek bazuen bere herrian etxe bat, familia-etxea izandakoa, baina orduan berak eskuratua eta erdizka berreraikia, batzuetan margotzeko erabiltzen zuen tokia. Beraiek erabiltzen zuten tailerra, Iruñeko alde zaharrekoa, haren pisutik hurbil zegoen. Baina asteburu askotan Txominek Lizarraldeko herriko etxean pasatzen zuen denbora eta margotu ere egiten zuen gela batean.

## 9. Manu zelatatzen ari ziren

Konturatzeko eguerdia zen. Ordu biak pasa, seme-alabak berehala agertuko ziren bere etxean. Ordenagailua itzali ondoren, bulegoa ordenatuta utzi zuen eta arin abiatu zen auzora. Presa zuenez igogailua hartuko zuen jaisteko.

Arkupeko itzal batetik norbait begira zegokion. Emakumea oso argia zen eta aurreko kasu batean ia lortu zuen politikari batez mendekatzea. Gutxiengatik ez zuen bere asmoa lortu, tartean gaizkileak, abokatuak eta jabetzen ez ziren pertsonak erabiliz. Foruzaingoa, seguritate zerbitzu batzuk eta Manu, xakean, airean izan zituen denbora luzez. Azkenean berak eraikitako sarea desegin zuten Foruzaingoak eta Manuk. Ihes egin zuten bakarrak bera eta mafioso arriskutsu bat izan ziren. Berrero ere Manu enbarazu egiten topatzen ari ziren eta horrezkero ez zen hain lasai geratuko.

June eta Mikelek deitu zuten ataritik. Sartu eta agurtu ondoren geletara joan ziren gauzak uztera. Algara gehiegirik egin gabe sartu ziren sukaldean. Anaia-arrebak beren lagunez ari ziren hizketan, nor zen lagunik onena eta zergatik. Norgehiagoka, isildu ziren nekatuta. Manuk, garbituta eta erdi lehortuta zituen letxoaren hostoak eta barazkiak. Hiruron artean banatu zituzten eginbeharrak. Mikelek lehortu eta June ebaki zituen. Gaztetxoek, binagretaren esperoan entsalada atontzen zuten bitartean Manuk oilasko-bularrak eta zizak ebaki eta egin zituen bi zartagin desberdinetan. Bigarren platera eginda, entsaladari olio-ozpin eta gatza botata mahaian eseri ziren. Bazkaltzen ari zirela bi gaztetxoek beraien egunerokoaz aritu ziren. Mikel DBHren hasieran zegoen eta June azken ikasturtean. Ikasgaien zailtasunez eta ikasitakoez mintzatu ziren. Manuk, noizean behin, gehiegi itsutzen zirenean lasaitasun mezuak eta zentzuzko aholkuak ematen zizkien. Zein erraz larritzen ziren! Bera ere txikia zenean mundu bat egiten zuen edozein tontakeriagatik. Nagusiak ere, batzuetan, ez al ziren huskeriengatik kezkatzen?

Lo-kuluxka arina egin ondoren June eta Mikel kalera atera ziren lagunekin elkartzera. Seme-alabek arratsalde osoa pasatuko zuten beraien laguneren etxean eta Manuk aprobeixatu behar zuen Eva eta Emilioren ibilerak jarraitzeko, nahiz eta zuzenean lan egiten zutenak Gorka eta Lorentxo izan. Gorkari deitu zion. Mutila Evaren etxean zen zaintzeko eta lasaitzeko eta orduko ez zuten inolako arazorik izan. Berdin gertatu zen Lorentxorekin. Azken honek jarraitu eta kontrolatu behar zuen Emilio. Edozein arazo izanez gero, deituko zioten elkarri laguntzeko edota aholku eskatzeko. Edonola ere, arratsalde erdirako geratu ziren.

Bitartean, Manuk lagunekin ibilaldi luzea egin behar zuen. Ohiko lau lagunak Toki Alaitik abiatu ziren. Ikertzailea etxetik atera zenean Filo mugitu zen. Egoera ezin hobea zen beren asmoetan aurrera egiteko. Giltza berezi batzuekin Manuren pisuan sartu zen. Manu joanda eta seme-alabak laguneren etxeetan izanda, pisu barnean mikroak ezkutatu zituen, kontuz eta presarik gabe, Manu espiatu eta segada segurua antolatu ahal izateko. Itzalak ongi ordainduko zion.

Arratsaldeko zortziak pasa, Lorentxok deitu zion Manuri. Manu, ibilaldi luzea eta arin-arina eginda, Felixenean zen lagunekin kainak eta merienda osasuntsu bat egiten. Gazteak adierazi zion Emiliok eskutitz bat postontzi batean bota zuela eta berrero etxera itzuli zela. Gorkak ere aipatu zuen Evak bi dei jaso zituela. Manuk bazekien dena, haren telefonoa klonatu zuelako eta entzuteko moduan izan zela. Deien grabazioak maneiatu ere egingo zituzten igorlea Emilio zela probatzeko. Bi gazteei eskerrak

eman zizkien. Eva ziur utzita, lana bukatutzat eman zuten bi gazteek. Kasua garbi zegoen, baina azken urratsak burutu behar zituzten.

Seme-alabak Toki Alain agertu zirenean afaltzera joan ziren. Umeek bazekiten Hamburgeseria eta zabor-janarietako tokiak mugatuta zituztela, baina pizzeria hura desberdina zen. Kalitate handiko jangaiak erabiltzen zituzten eta jantokia baino labea eta banaketa zerbitzua zen. Etxetik bost minutura zegoen tokia. Lerroan beste bost minutu pasa zituzten, baina bazekiten pizza arin eginen zietela. Lau osagai aukeratu zituzten: urdaiazpikoa, txanpiñoiak, arrautza eta mozarella. Ordaindu, tiketa hartu eta prestatu bitartean inguruko kaleetatik egin zuten itzulia. Jende asko zebilen kaletik. Gehienak etxe bidean afaltzera zihoazen. Giro onean jaso zuten pizza eta Manurenera abiatu ziren. Behin etxean, edariak eta edalontziak atera zituzten eta ordura arte epel, puska goxoak jan zituzten. Junek Amaiaz galdetu zion Manuri. Emakumeak bazuen lan handia eta ez zuen aukerarik izan beraiekin ibiltzeko. Neskak behintzat onartzen zituen Amaia eta baita hark Manurekin zeukan harremana ere, baina era berean pentsatzen zuen aita Amaiarekin biziz gero, Mirenek eta beraiek Manurekiko harremanetan zerbait galduko zutela.

–Manu, haserretu al zarete amaia eta biok?

–Ez. Amaiak badu lan handia eta asteburu honetan kanpoan da.

–Bai, baina aspaldi honetan urrunduzarete pixka batean!

–June, aurreko astean elkarrekin ibili ginenean ez zenuen desatsegintasunik erakutsi. Zergatik diozu hori?

–Ez da hori. Amaia gustatzen zait eta gustura ibili nintzen. Hala ere, nahiago dut urruntzen ez bazara...

–Mikelek ere bere iritzi eta sentipena adierazi zuen.

–Ba, niri Amaia gustatzen zait eta ez dut inolako arazorik berarekin. Oso ederra eta jatorra da. Opari politak egin dizkit...

–Zu beti bezain espiritual! –izan zen arrebaren komentarioa. Hala ere, ez zuen solasarekin bukatu.

–Manu, mesedez, ez moztu gurekin eta Mirenekin! –Manu larritu zen.

–June, izan ziur ez zaituztedala baztertuko.

Edonola ere, Manuk pentsatu zuen azken aldian Amaia eta biak urrunduzarela. Bazirudien harremana mantentzen ari zirela, baina muga bat ez gainditzeko kontu handiz ari zirela. Alde batetik hori zen berak nahi zuena, harremana atsegin zuen, Amaia maite ere maite zuen, baina muga jarri zion harremanari.

Gau hartan telebistan ETB1-en Burubero Fest lehiaketa ikusi ondoren, pelikula luze eta entretenigarri bat ikusi zuten: Prometheus. Manu zalantzan egon zen, pelikula ikusi ala ez, baina hamabi urtekoentzat izan zitekeela jakinda, eta elkarrekin ikusiko zutenez gehiegizkoa edo kaltegarria izango zela uste izanez gero itzaliko zuen aparatua. Dena den, Alien-en antzekoa zela eta alde makabroaren gainetik kalitatea



eta imajinazioa gailentzen zirenez bukaera arte ikusi zuten, oso gustura ikusi ere. Handik gutxira, oheratu ziren.

## Maiatzaren 13a, larunbata

Goizean, gosaldu eta prestatu ondoren atera ziren. Seme-alabek bazituzten kirol ospakizunak. Zeruan ostarteak ikusten ziren eta tarteka, zeru eguzkitsua izango zuten. Ez zuten euririk espero. Mikelek futbol partida zuen lehenago eta Junek saski-baloikoa beranduago. Joxe eta Samuelekin elkartu ziren. Mutikoen partida ez zen oso luzea izan eta Junerena izan arte pote bat hartzera joan ziren. Nesken partidari ez zen hainbeste pertsona heldu ibiltzen, baina bi taldeetako lagunak algara handia sortzen zuten beraien lagun-jokalariak animatzen. Gezurra zirudien zenbateko lehiakortasun izaten zuten. Hala ere, bukatu bezain laster bi taldeetako neskek, partidaren berotasuna galduta, adiskidetsu agurtu zuten elkar. Toki Alaira joan ziren gero. Han zerbait hartzen ari zirela, Jakerrek dei egin zion Manuri, jakin zuena adierazteko.

–Manu, Emilioren berri eman behar dizut.

–Ongi da. Zer da jakin duzuna?

–Aurrekariak dituela. Beste batean auzipetuta zuten neska bat erasotzeagatik. Zigor arin batekin atera zen. Hau duela urte pare bat gertatu zen.

–Jaker, mesedez, dei iezaiozu Lopez komisarioari edo Zudaire inspektoreari dena azaltzeko. Orain nahasirik nabil eta ezin dut lasai hitz egin. Erran... jazarlea atxilotzeko eta galdekatzeko. Lehenago salatu behar genuen Emilio.

–Egin egingen dut. Evarekin hitz egingen al duzu zuk?

–Bai. Ez dut uste arazorik izanen denik. Ongi dagoela egiaztatuta, mezua utziko dizut.

Denbora galdu gabe deitu zion emakumeari. Eva ongi zegoen eta ate-leihoak ongi itxita. Ez zegoen urduri eta hark egin zuen gauza bakarra, berak zerbait berririk jakin zuen galdetzea izan zen. Manuk ez zuen larritu nahi, baina badaezpada hark jakin behar zuen nor zen jazarlea.

–Eva, jazarlea Emilio da. Aurrekariak ditu eta...

–Emilio? Ez da posible... Ez dut ulertzen... Bera oso ongi portatu da. Lagundu egin dit...

–Berak estutu zaitu beraren beharra sortzeko eta salbatzaile agertzeko. Ez zenigun kontatu Emilio zure atzetik zebilela!

–Ez. Ez zen oso astuna izan eta berehala lagun on bat bezala jokatzeko hasi zen. Orain diozula, garai hartan hasi ziren deiak eta mezuak.

–Beno, orain lasaitu. Ziur aski foruzainak agertuko zaizkizula eta psikologo batek laguntza eskainiko dizu. Ba al duzu norbaiten beharrik?

–Uste dut... Maia, lagun bat deituko dudala. Eskerrik asko denagatik.

–Dena bukatu da. Hitz egingen dugu.

Ondorenean, seme-alabak ongi zeudela jakinda, kanpora atera zen leku apropos batetik Jabier Lopezekin hitz egiteko. Egin zuenean komisarioak jakinaren gainean zegoela erran zion. Udaltzain bikote batekin psikologoa bidaliko zioten Evari eta Emilio atxilotzera abiatuak ziren orduko.

Bazkaria kanpoan antolatu zuten. Runako txoko gordean barbakoa antolatu zuten. Ospakizun haiek lagunaren arteko familietan antolatzen zituzten txandaka. Bego, Ane eta Patxi, familia-kide guztiak egon ziren lekua gordetzen eta bazkaria prestatzen. Halakoetan entsalada eta haragi desberdinak izango zituzten aukeran. Mikel, June eta Manu ia dena prestatuta zegoenean agertu ziren. Miren kanpoan zen eta mahaia atontzen lagundu zuten. Mahai-aulkiak eta trasteak Patxiren trasteroan gordetzen zituzten. Joxe orduantxe heldu zen eta txingarrak prestatzen lagundu zion Patxiri. Fina eta Samuel, Joxeren emaztea eta semea beranduago agertu ziren, denak sarrera batzuekin bazkaltzen hasi zirenean. Neskak eta mutikoak elkarrekin eseri ziren, baina Fina eta Bego ez ziren ongi konpontzen eta aparte zeuden, hiru gizonen bi aldeetan, mahaiaren bi muturretan eta neska-mutikoak hiru gizonen aurrean. Gehienek giro onean eta gustura bazkaldu zituzten entsaladak eta haragi errea, saltxitxa eta hanburgesa beganoak eta arkume-txuleta goxo batzuk.

Bazkalondoan, tarte batean, Manuk deitu zion Jabier Lopezari Emilioren atxilotzetaz galdetzeko. Arratsaldeko lehen orduan argitu ziren gauza batzuk. Foruzainak Emilio atxilotzera joan zirenean ez zuten harrapatu. Garbi zegoen presaka ibili zela, bere gelan eta beste gela batean anabasa handia zegoelako. Arropak, karpetak, dokumentuak eta hainbat objektu nonahi eta nahasirik topatu zituztelako. Hala ere, tiradera edo kaxoi batzuetan argazki batzuk utzi zituen eta berehala konturatu ziren susmagarriak eta bitxiak zirela. Haietako asko emakume desberdin batzuei egindako argazkiak ziren. Argazkiek emakumeak beren bizitza normalean "harrapatzen" zituzten. Segimenduak eta zaintzak ziren eta haietako batzuk Evarenak ziren. Emilio Eva jazartzen ari zeneko probak ziren. Hala ere, txoriak ihes egin zuen autoan jarri zioten GPSa nonbait aurkitu eta bota ondoren. GPSa Gorkak jarri zion Emilioren autoari, gizonak Eva haren etxetik berera eraman zuenean.

Arratsaldean, dena jasota, planetariora joango ziren, aurreko asteburuan aipatu zuten bezala. Denak ez. Begok, Anek eta Patxik bazuten familia ospakizun bat. Mikel, Samuel, June, Joxe eta Manu autoan sartu ziren Dinosaurio eta Planetec pelikulak ikustera joateko. Oso gustura egon ziren eta zortzietan auzora itzuli ziren. Toki Alain poteatzen eta meriendatzen egon ziren. Han zeudela, Mintxo agertu eta haiengana hurbildu zen. Tabernan beraien ondoan gizon bat ari zen hizketan, keinu nabarmenak eta manerak erakusten zituena. Fernandez deitzen zuten denek eta homosexual ezaguna zen. Guztiek edo gehienek onartzen zuten. Hala ere, beti bazen baten bat haren kontra zerbait erranen zuena hain berezia izateagatik. Mintxo hasi zen hari buruz hizketan.

–Maritxu hori beti antzerkia egiten ibiltzen da. Niri berdin zait, baina ez dut aguantatzen... –beste batek erantzuten ahal zuen, baina Manuk egin zuen.

–Aizu lagun, zu ere nabarmen geratzen zara zure ateraldiekin eta ez dugu ezer erraten.

–Hara, eta zu ere bai zure iritziak ematen dituzunean. Gure artean detektibe pribatu famatua zarenez denek egiten dizute kasu bortizkeria edo zerbait arraroa gertatzen denean. –Manu haserretu zen. Ez zitzaion ahoberokeria inporta, baina ez zuen jasaten bere lanaz edo bizitzaz publikoki hitz egitea. Behar baino ozenkiago erantzun zion.

–Aizu, ez oihukatu nire lana ozenki aldarrikatuz. Nik ez dut zure lanbidea aipatu. Ez dut uste gustatuko litzaizukeenik. –Mintxo putzu-garbitzailea zen Iruñeko garbiketa zerbitzu enpresa batean eta estoldak garbitzen ibiltzen zen. Ez zitzaion bere lanaz hitz egitea gustatzen, gehienetan kaka eta gauza nazkagarriak garbitzen ibiltzen baitzen.

–Ados, baina ezin dut onartu maritxu batek hain lasai jendearen aurrean bere gustu probokatzailerak eta jarrera desegokia aldarrikatzea.

–Mintxo, pertsona hori ahobero izango da, baina ezin duzu homosexuala izateagatik besteen jomugan utzi. –Eztabaida bukatu zen, baina harrezkero komentario batzuk egin zituzten lagun taldeetan. Beraien artean Junek interesa erakutsi zuen eta galdetu zien gaiaz.

–Zergatik hasi da Mintxo horrekin sartzen? –Finak erantzun zion emakume ikuspuntua eman nahian.

–Gizonek ez dute beren harrotasuna eta arra izatea inork zalantzan jartzea nahi. Norbaitek gizentasuna zalantzan jartzen duenean urduri jartzen dira –Joxe tartekatu zen, emazteak beste inoren iritzia onartuko ez zuelakoan.

–Tira Fina, ez pasatu. Zuk diozun bezala izanen da kasu batzuetan, baina ez beti. Gizon guztiak ez dira homofoboak. Mintxo kasu bat da.

Urrutitik, Anjel Flores, Manuri, haren lagunei eta seme-alabei begira zegoen. Askotan jarraitu zituen Manu eta ingurukoak, mina nola egin ahal zion erabakitzeke. Manuri min egiten saiatu zen beste batean; baina, orduan, akabatu baino lehen mindu eta sufriarazi behar zituzten. Filo, Alfa eta Itzala, laguntza baino gehiago enbarazu egiten zuten beste mindu batzuk ziren. Edonola ere, Itzalaren dirua eta baliabideak behar zituen. Filok eta Alfak laguntza eta gorrotoa eskaintzen zizkioten. Filori deitu zion.

–Filo, Manu harrapatzeko ordua heldu da.

–Anjel, gizon hori ez dugu hain erraz engainatuko. Ongi prestatu behar dugu plan bat. –Gizonak ez zuen ezezkorik onartu behar.

–Aizu, Badugu bera harrapatzeko aukera bat. –Emakumea larritu zen.

–Nola egin nahi duzu? Zer egingo duzue zuk..., Alfak eta Itzalak?

–Ez arduratu gurekin. Zuk bera tranpan sartzen duzun bitartean guk aseguratuko dugu ez duela ihes egiten. Gainera haren jarraipena egiten ari gara. Ordua da zure papera egiteko. –Filok etsi egin zuen.

–Zer nahi duzu nik egitea?

–Bihar ez bada, etzi segada egin behar diogu. Emilio Solanoren pista eman ahal diozu. Hura erabiliz harrapatu nahi dut Manu hori. Saia zaitetz desordu batean deitzen eta konbentzitzen harengana bakarka joateko. Gu zain egongo gara.

–Saiatuko naiz ongi egiten, baina gogoratu behar dizut Manu ezin dela hain erraz manipulatu.

–Zuk ongi egin eta kito.

Filok aldez aurretik asmatu zuen Emiliok Eva estutzen zuela. Kasualitatea izan zen Emilio poltsikoko telefonoaren bidez deialdi batean harrapatzea. Evaren lantoki ondoko tabernan izan zen. Gizonak eskapada bat egin zuen Eva estutzeko eta larritzeko eta komunean sartuta egin zuen dei bat. Kasualitatez Filo lantokiko atariari begira ibili zen goiz osoan eta gizona ezagututa emakumezkoen ondoko komunetik entzun ahal izan zuen beste emakumea estutzen. Handik aurrera gizona jarraitu zuen, bere bizitokia eta baita beste gordelekuren bat ezagutzeko. Bere laguna zen Floresek aholkatu zion Filori Manuren esku kasua uztea gehiago kontrolatzeko eta aurea hartzeko.

Egun hartan, Manu eta seme-alabak goiz joan ziren etxera eta ohera. Nahikoa jan zuten bazkarian eta poteo tartean pintxoren bat hartuta, ez zuten ezer afaltzeko gogorik, esnea edo jogurt bat ez bazen. Hamaikak pasa ziren eta hurrengo goizean egun-pasa ederra egin behar zuten zuten atseden hartzera. Samuel eta harrigarriki Ane haiekin joango ziren. Anek hemezortzi bete zituen eta Junek hamalau. Hala ere, Aneri tarteka Junerekin ibiltzea gustatzen zitzaion eta June zorutzen zen. Bi neskek ez ziren besteekin gaizki moldatzen.

## Maiatzaren 14a, igandea

Aurreko eguneko eraso informatiko globala zen albiste nagusia. Hainbat enpresa handitan eta erakundetan sartzen ahalegindu ziren piratak, datuak blokeatuta dirutza eskatzeko. Beldurra zabandu zen, baina ez zuten garbi ondorioak zein izanen ziren. Zirudienez eta zorionez informatiko batek gelditu zuen eraso. Astelehenean ordenagailuak piztean jakinen zuten dena pasatua izanen zen ala ez. Eguneko beste berriak Herri Urrats eguna eta presoan aldeko mobilizazioak ziren.

Samuel eta Ane agertu ziren. Goiz atera ziren autoz kostaldera. Hala ere, bazekiten Herri Urrats ospatuko zutela eta Donostiatik joanez gero Behobia bidean auto ilara handiak izango zituztela ordu batzuetan, eguerdia bitartean eta Belate eta Bidasoatik joatea erabaki zuten. Ordu eta gutxira Irunera hurbildu ziren, baina ez zuten denbora gehiegi galdu errotondak pasa eta Irunen sartzeko. Autopistan, bitartean lerro luzeak egiten ari ziren Behobiako peajeetan pasatzeko zailtasuna zegoelako. Oiasso museo errromatarraren ondoan aparkatu zuten eta kafetegi batean sartu ziren denbora egiteko.

Hamarretan, puntualki sartu ziren sarrerek ordaindu ondoren. Museoa harrigarria eta interesgarria zen. Oiaso erromatarra ikusi eta hartaz ikasi zuten. Maketak ikusgarriak ziren. Arkeologia, historia eta antropologia izugarri ongi adierazten zituzten eta beraiek gustura jarraitu zituzten. Hasierako bideoaren bidez ideia orokor eta interesgarria ematen zuten.

Batzuetan zailak izan arren, gaia haiek atsegintasunez erakusten ziren panel didaktikoen bidez. Erakusleihoetan objektuei buruzko azalpen interesgarriak ulergarriak ziren. Zeramikak, metalezko objektuak eta eskulturak beren testuinguruan azaltzen zituzten eta mapek, marrazkiek eta denbora-diagramek laguntzen zuten garai hartako bizilagunak beren bizitza egiten imajinatzen: portua, termak, Foruko eta eguneroko bizitza; artisautza, olak, meatzaritza eta merkataritza, denak abentura moduan sentiarazten zizkietenak. Txanponak, bitxiak, oihalak, tresnak eta armak ikusi zituzten. Bukaeran erromatarrez jantzi ziren eta argazki eta bideoak egin zizkioten elkarri. Bazeuden tailerrak ere: "Alea iacta est" izeneko bat besteak beste, non erromatarren jokoak egin ahal zituzten; beste txoko batzuk zeuden marrazkiak egiteko edota Herkulesen hamabi lanak gauzatzeko. Kanpoan bisitak egin ahal ziren, baina egun hartan nahikoa egin zuten eta konturatzeko ia ordu bata zen. Gustura geratu ondoren zerbait hartu zuten. Mutilek eta neskek beren iritzia eman zuten. Anek adierazi zuen lehena.

–Niri oso antolaketa ona iruditu zait.

–Nik didaktika azpimarratuko nuke –izan zen Juneren aipamen burutsua.

–Niri mozarrotzea gustatu zait –erran zuen Samuelek.

–Niri asko gustatu zaizkit maketak eta azalpenak. –Mikelek bere alde praktikoa erakutsi zien eta Manuk, denek berari begira zeudela ikusita, iritzia eman behar izan zuen gaizki ez geratzeko.

–Zer erran behar dut ba? Denok arrazoi duzuela. Antolaketa, didaktika, alde ludikoa eta ikusi eta ikasi beharrekoa oso atsegin erakusten dute. Ezin dut gehiago erran!

Irunetik atera zirenean egun zoragarria egiten zuen. Santiago zubia libre zegoenez, handik arazorik gabe pasatzen ahal ziren Hendaia itzuli txiki bat egitera. Ia pentsatu gabe zubia gainditu eta bestaldeko Hendaia herrian barrena sartu ziren. Portu txikira zuzendu ziren aparkatzeko asmoz. Tamalez ez zegoen lekuri eta nola edo hala molestatzen ez zuen leku batean autoa utzita paseo txikia egin zuten. Eguerdia zela nabari zen. Handik zebiltzan guztiak bisitari kanpotarrak zirela zirudien. Txalupei eta itsasoari begiratu bat eman eta isunari beldurrez itzuli ziren autora. De Gaulle etorbideetik gora posta ondoko aparkalekuan gelditu ahal izan zuten autoa. Jende gutxi zebilen, Iparraldeko bazkalordu goiztiarra baitzen. Paseo eta ikusmira ederrak ziren han, baina bizitza handiko kaleetatik urrun, berehala mugitu ziren Donostiara abiatzeko.

Pozik eta entzuten ari ziren abestiak kantatzen aritu ziren ibilaldi laburrean. Kursaal ondoko aparkalekuan autoa utzita erreserbatu zuten jatetxera mugitu ziren eraikin famatuaren ondotik pasatuz eta zubian urari eta inguru zoragarriari begiratzen zieten bitartean. Bulebarrean bizitasun handia nabari zen. Terrazetan ez zegoen tokirik eta kaleetatik kuadrillak eta familiak poteatzen eta zerbait jaten zebiltzan. Haiek ez ziren pintxotan arituko. Kale animatuetatik egindako ibilaldiarekin gozatu zuten. Jatetxean ez zegoen leku librerik. Eskerrak egun batzuk lehenago lekua eskatu zuten. Ondoko

mahaietan familiek eta lagun kuadrillek alai eta ozenki adierazten zuten beren poza. Eseri ziren eta eguneko menutik aukerak egin zituzten. Sarrera desberdin asko dastatu ahal izan zuten. Ondoren, Manuk aprobetxatu zuen etxeko espezialitatea eskatzeko: arraina parrillan prestatzen zuten. Lubina izan zen aukeran zutena eta benetan goxo zegoen. Andereñoek arrain pastela eskatzen zuten bitartean, mutilek haragi errea eskatu zuten. Bazkaldu bitartean Museoaz solas entretenigarria izan zuten gaztetxoek. Gero, beren gustuko bizitokiaz aritu ziren. Neskei Donostia hiri zoragarria iruditzen zitzaien eta mutilei Iruñea bezalakorik ez zegoela. Manu saiatu zen gaztetxoek oihurik egin ez zezaten. Postre mundialak hartu ondoren beterik eta gustura zeuden.

Bazkaldu ondoren portura eta hondartzako paseora joan ziren ibiltzera. Bapo geratuta arindu behar zuten betekada eta Inguruko edertasunaz gozatu. Portu ondoan Acuarium-ari begira geratu ziren, baina jende asko zegoen lerroan eta beste baterako utzi behar izan zuten. Itsasoa ikusgarri zegoen. Egunaren ederraz gozatu ziren Kontxako paseotik ibili ziren bitartean. Nekatu ez, baina itzuli behar zutenek aparkalekura joan ziren.

Donostiatik atera zirenean Manuk pentsatu zuen auto bat haien atzetik zebilela, jarraitu egiten zituztela. Beste batek ez zuen nabarituko, baina Manuk bazekien horretaz. Ez zen justu haien atzean kokatu baina kilometro asko pasatu ziren eta Gorriti parean ehun bat metrora atzetik zuten. Auto arin eta indartsua zen eta arraroa zen haiek ez aurreratzea. Okerrena izan zen gaztetxoak ere konturatu zirela. Junek ez zuen atzera begiratzen, baina autoen matrikularekin jolasten hasi zirenean, kapikuak eta arraroak bilatzen, atzera ere begiratu zuen. Neskak harridura adierazi zuen.

–Manu, hor dabilen auto beltz handi hori gure atzetik dabilela erranen nuke. –Manuk tontoarena egin zuen.

–Bai, ikusten dut. Zergatik erraten duzu?

–Atzean, baina gure atzetik, urrutitik gure arrastoa galdu nahi izanen ez balute bezala ari dira.

–Nik ere hori pentsatu dut lehenago –aipatu zuen Anek.

–Ez dakit zer erran. Auto gehienak Iruñea eta haruntzago bidean dabilta eta normala da beste auto batekin ibiltzea. Gu abiadura onean gabiltza eta haiek ere bai.

–Ez. Gu baimendutako abiaduran gabiltza, baina auto hori oso indartsua da eta arraroa da denbora guztian gugandik 100 metrora izatea.

–Hara! Egia izanen da, baina berdin erraten ahal dugu gorri horretaz...

–Bai, gorria gure atzetik dabil, baina zaharra da eta ezin du gehiago egin –izan zen Mikelen komentarioa.

Manuk garrantzia kendu zion eta aipatu zuen kasualitatea izanen zela. Handik kilometro gutxitara galdu zuten auto beltzaren arrastoa eta auzia ahaztu zuten. Arrotxapeara heldu zirenean nekatuta zeudenez, Manuk, Ane eta Samuel beren etxe ondoan utzi zituen. Gero seme-alabak izan ziren etxera eraman

zituenak. Mirenekin eguneko kontuei buruz solasean pixka batean izan ondoren, Manu ere berera mugitu zen. Irakurtzen eman zuen arratsa.

Filok deitu zion Manuri. Gaueko hamaikak pasa ziren.

–Manu, etorri lehenbailehen! Gogoratu egin dut, zuei kasua pasatu baino lehen, entzun egin nuela Emiliori buruz amaren herrian etxe bat zuela. Martzilla zen herria eta hona etorri naizenean jakin dut Emilio azken egunetan agertu dela. Zure laguntza behar dut dena segurtatzeko, azken ikerketak egin eta atxilotzeko. Ni ez naiz ausartzen bakarrik atxilotzen, eta uste dut ahalik eta mobida gutxien eginda lortuko dugula. Ondoko kuarteleko zibilei laguntza eskatu behar diet, behin txoria lekututa. Dena den, zu etortzea nahi nuke.

–Zer diozu? Dei iezaeizu zibilei eta egin ezazue ikerketa eta atxiloketa.

–Manu, zure laguntza behar dut. Ziur naiz zibilek ez dutela behar den bezala egingo. Guk biok harrapa dezakegu behar den kontu handiz. Ostatu on batean naiz eta zuretzat beste gela bat eska dezaket. Goizean goiz egin dezakegu ikerketa eta zibilen laguntzaz harrapatu...

–Bihar goizerako hor izanen nauzu...

–Ez, Manu. Goizean txoriak ihes egin dezake. Gaztelu ondoko ostatuan ordu batzuetan deskantsatu eta argitu aurretik harrapatzera joango gara.

–Ongi da. Ordu batean han izanen naiz. Filo... ez dut nahi zuk dakizun tontakeriarik. Niretzako gela bat nahi dut. Ulertu?

–Ez kezkatu. Nekatuta eta urduri nago kasuarekin. Zu zatozen bitartean zerbait afaldu eta oheratuko naiz gero. Hotelean zure esperoan egonen dira eta ez nauzu seiak arte ikusiko. Ordurako eskatu dut gosaria prest izatea. Ongi iruditzen al zaizu?

–Ongi da. Espero dut tontakeriarik jasan behar ez izatea, baina gaztelu atarian egonen zara nire zain, Emilioz dakizuna kontatzeko. Gero arte orduan.

Manuk larrialdirako poltsa hartu zuen eta autora mugitu zen. Denbora eman zuen autoa kontrolatzeko eta inor zain ez zuela segurtatzeko. Handik gutxira autopistan zen Martzilla bidean.

Ordu batean herrian sartu zenean gauerdia pasa zen. Cava-ren plazan autoa utzi eta ingurura begiratu zuen Filoren bila. Ostatua handik gertu zegoena izango zen, baina gazteluaren atarian topatzea adostu zutenez haren zain geratu zen. Handik minutura hurbiltzen ari zen auto bat. Ustekabean leiho batetik, pistola bat ikusi zuen ateratzen. Ozta ezkutatu zen ondoko autoan tirorik ez jasotzeko. Hiru tiro entzun eta nabaritu zituen autoaren txapan eta leihoetan. Zer egin ez zekiela polizien sirenak entzun zituen. Foruzainen auto batzuk azaldu ziren, erasotzaileen autoaren atzetik mugitu zirenak. Bertan geratu zen. Auto batetik inspektore bat jaistean, Manuk bere izena aipatzen zutela entzun zuen.

–Manu Elkano Jauna, Pablo Sola inspektorea naiz. Jabier Lopez komisarioak erran digu Martzillako gurutzean agertuko zinela eta zu babesteko. Gaizkile horiek harrapatuko ditugu. Komisarioa ez da agertuko, baina foruzain bat utziko dugu zure lasaitasunerako. Zerbait behar al duzu?

–Gabon inspektore. Eskerrak agertu zareten! Gaizkile horiek ni akabatzeko asmoa zuten. Hau tranpa bat izan da eta antolatu duena Filo Maturana da. Hostalean dagoen begiratu behar dut. Dena den, galdekatu behar nuke hurrengo urratsak eman baino lehen.

–Ongi da. Simon Larra izeneko foruzainak lagunduko dizu. Ni hemen geratuko naiz iheslarien berri izan arte. Zerbait nahi baduzu erranen didazu.

–Primeran. Ni banoa ostatura.

Foruzainaren laguntzaz ostatuan sartu eta harreran galdetu zuen Filoz. Ostatu langileak erran zion minutu batzuk lehenago atera zela. Orduantxe deitu zion Filok. Emakumea desenkusatzan hasi zen.

–Manu, ongi zaude? Sentitzen dut. Bahitu naute eta tiro hotsak entzun ditut. Dena oso azkar pasatu da. Autotik bota naute. Zorionez, ez dute astirik izan poltsa eta telefonoa kentzeko...

–Ez dizut sinesten. Nola jakin dute hona nentorrela? Nork erran die? Nortzuk dira hiltzaile horiek eta zergatik hil nahi naute?

–Ez dakit. Ziur asko norbaitek jarraitu nau. Manu, minutu gutxitan izanen naiz han eta dakidana azalduko dizut.

Handik gutxira. Filo agertu zen eroriko baten arrastoak zituela. Manu ez zen fidatzen, baina probarik gabe ezin zuen ezer egin. Emakumeak erran zuen ordu batzuk lehenago jakin zuela Emilio non bizi zen. Ez zuten Emilio bezala ezagutzen, baina argazkiak erakutsita Filok baieztatu ahal izan zuen bera zela. Simon foruzainak etxea zainduko zutela erran zien. Ikertzaileak pentsatu zuen ez zutela goiza arte zain egon behar. Tiro hotsekin herritarrak aztoratu zirenez, laster batean egin zuten operatiboa. Emilio atxilotuta eraman zuten Iruñera, baina Filok eta Manuk adierazpena egin eta sinatu behar izan zuten Martzillako ostatuan. Konturatzeko hirurak pasa ziren eta nekatuta zeuden. Manu hostalean sartu zen lotara joateko.

## Maiatzaren 15a, astelehena

Goizean ez zuen Filo topatu: ihes egin zuen, nonbait. Manu Iruñera itzuli zen egun eder hartan. Aurreko egunean gertatutakoa gogorra izanda ere, ongi eta bizirik sentitu zen. Jabierrekin komentatu zuen aurreko gauean pasa zena. Filo bilatuko zuten, baina ez zuten froga handirik berak segada eta hilketa ahaleginean parte hartzeagatik: dena susmoa baino ez zen. Hala ere, arraroa izanen zen hura gertatzea, berak jakin gabe. Ihes egin zuten gaizkileak ez zituzten harrapatu, itxuraz inguruan ongi gordeta geratu baitziren. Emilio atxilotu zutenean onartu egin zuen egindako jazarpena eta Eva bahitzeko asmoa zuela. Epaiaren esperoan espetxeratuko zuten. Ikertzailea Evarekin ere mintzatu zen ondoren. Kasua itxita



zegoen eta falta zen bakarra emakumeari xehetasun guztiak kontatzea. Evari sinestezina iruditu zitzaion eta harrিতa zegoen gertatutakoarekin, baina era berean lasaitu ederra hartu zuen.

Ikertzaileak faltan sumatu zuen Jaker. Aurreko ortziralean gertatutako ziber-eraso orokorra zela-eta, Manu urdurituta zegoen ordenagailuak piztu ala ez zalantzan. Jaker zen ordenagailuz eta Interneten aritzen zena. Lana bulegotik atera gabe egiten zuen gehienetan. Hala ere, batzuetan egunak ematen zituen Enconter eta kongresu batzuetan zituen lankide eta lagunekin. Berlinen asteburua eta beste bi egun pasatuko zituen. Manuk lankidea behar zuen, laguna. Denbora gutxian beharrezkoa egin zitzaion, baina ez zuen une hartan deitu behar ume txiki bat balitz bezala.

Manuk ordenagailua piztu zuen azkenean. Itxuraz ezer gertatu ez zenez, jarraitu zuen. kasuaren txostena osatu eta diru kontuak zehaztu zituen. Dena eginda, ongi gorde eta kopia bidali zion Evari korreo elektronikoz. Goiz erdia zen. Handik gutxira beheko ateko txirrina jo zuten. Ikertzaileak ia ahaztuta zuen Pepi Fernandez eta Elena Burgirekin geratu zela hitz egiteko. Pepi beti bezain dotore agertu zen traje bat jantziz. Elenak bakeroak eta top bat janzten zituen, eroso. Bi emakumeak agurtu eta esertzera eta zerbait hartzera gonbidatu zituen. Biek ura eskatu zuten eta mahaiaren aurrean sofa-besaulkietan eseri ondoren hasi ziren eguraldiaz eta egun haietako kontuaz hizketan. Laster, gaian sartu ziren. Kasua berezia zen eta hasieratik bazekiten ikerketan sartzea eta aurreratzea kostatuko zitzaizela. Ikertzaileak, handik aurrera beste kasuez kezkatu behar ez zutenez gehiago zentratuko ziren kasu horretan. Pepik komentatu zuen azken aldian ez zela margo gehiagorik agertu, agian gaizkileek, ikerketak egiten ari zirela susmatzeagatik. Dena den, Elenak ikerketaren aurrerapenen berri izan zuen. Emakumeak uste zuen Gorkak eta Lorentxok, poliki, baina lan handia egiten ari zirela ustezko margolari iruzurgileen inguruan. Pepik, ordea, aurrerapen haiei buruzko laburpena egitea eskatu zien besteei.

–Barkatu, baina ez ditut zuek egunero eman dituzuen urrats guztiak ezagutzen. Sentitzen dut, baina uste dut hurrengo pausoak zein izanen diren erabakitzeke egoera zehatza ezagutu behar dela. Konta diezadakezue Gorkak eta Lorentxok zer egin eta zer jakin duten? –Elenak egin zuen egoera orokorraren aurkezpena.

–Dakizunez, Lorentxo zen arteaz eta margotzeaz zekien ikerlaria. Tailerrean sartu da eta beraren bidez lortuko dugu iruzurtiak izan daitezkeenak ikertzea. Gorka, bere kidea, oso lagunkoia da eta laguntzen dio. Biek lortu dute harreman on bana ikerketa jarraitzeko. –Manuk jarraitu zuen bakoitzak jakin zuena azaltzen.

–Laburtuta erranen dizut Lorentxok susmagarri batekin, Maria Irisarriekin, harreman ona lortu duela eta Gorkak Michelle izeneko baten laguntzaz bigarren ikuspuntua ematen digula. Maria oso ona da espresionista abstraktuen bertsiok egiten, baina ez dirudi iruzurgilea denik. Michellek baieztatu du Maria oso pertsona ona eta zuzena dela. Txomin Barbarin, beste susmagarriak, berriz, tailer bat dauka herrian eta ezkutuan zer egiten duen jakitea da helburua. –Pepik bere izaera erakutsi zuen hurrengo galdera egitean. Irribarre batekin galdetu egin zuen.

–Hala izango da, baina ziur al gaude Mariak edo Michellek ez dutela zerikusirik iruzurrarekin? –Elenak erantzun zion.

–Ez dago dudarik. Gorkak zentzumen berezia du gezurra harrapatzeko eta Lorentxok dio Mariak ez duela interes ekonomikorik. Txomin Barbarin, berriz, gai da teknikoki egiteko eta ez omen du eskrupulu gehiegirik.

–Ongi da. Zer egin dezakegu? –Manuk erantzun zion.

–Gorkak dio Michellek dena jakinez gero, laguntza handia izango litzatekeela eta Mariari ere esatea pentsatu behar dugula. Kontua da Barbarinen herriko tailerlean sartzea. Bestetik, Michellek eta bereziki Mariak segurtatzen ahal dute Txominen lana iruzurra dela. Uste dugu Txominek egin dituela Pollocken iruzurrak. –Pepik segundu batzuetan sententziatu zuen.

–Bidea hori dela dirudi. Hitz egin ezazue Gorka eta Lorentxorekin iruzurti hori harrapatzeko –Pepik presa zuenez Elena eta Manu utzi zituen plana borobiltzen. Hala ere, biek uste zuten Gorka eta Lorentxoren ikuspuntua eta iritziak beharrezkoak zirela eta arratsalderako utzi zuten. Goiz bazen ere, Manu bazkaltzera jaitsi zen auzora. Autoz laster izan zen han.

## 10. Iruñeko gauetan droga gogorak zabaltzen ari ziren

Jai Alain sartu zen. Oso goiz zenez ez zebilen inor. Lagunak agurtu zituen. Orduko ez ziren bazkariak ematen hasi. Zer edo zer bazkaltzen ahal zuen galdetuta, Gabrielak erran zion prestatuta zituen plater bakarrak dilistak eta haragi gisatua zirela. Berak dilistekin aski eta soberan zuen eta horrela eskatu zuen. Barran, Felixen ondoan bazkaldu zuen ardo pixka baten laguntzaz. Gustura bazkaltzen ari zela, Felixek arazo bat zuela erran zion. Gizona, kezkatuta, kontatzen hasi zitzaion lagunari.

–Gure iloba Iker, Gabrielaren ahizpa zaharraren seme txikia, droga-munduan sartuta omen dago. Ez dakigu zer punturaino eta zer egin daitekeen.

–Ea Felix... Lehenengo gauza zer gertatzen ari den jakitea da. Ongi egin duzue aipatzean. Ikertuko dugu zer punturaino dagoen sartuta. Emadazu helbidea eta erran noiz ateratzen den kontu horietan aritzeko.

–Nik... Gabrielak eta biok kontsultatu baino ez genizun egin nahi!

–Tontakeriak! Erran dizudan bezala, zer gertatzen zaion jakitea da premiazoena. Ez izan kuidadorik. Entzun dudanez Iruñean eta beste leku batzuetan droga gehiago mugitzen ari da eta hau izan daiteke Ikerren momentu txar bat, pasa daitekeena.

–Hala izan dadila! Langabezian dago eta ia gauero hamaikak aldera ateratzen da ordu txikiak arte. Bazkaldu arte egiten du lo eta ez da pertsona arratsaldea arte. Zakar jokutzen du etxekeekin. Erranen diguzu...

–Felix, ez aipatu ordaintzekorik. Zuek lasai hartu.

Jogurt bat hartu zuen bukatzeko. Manuk pentsatu zuen arratsaldean bertan Gorka eta Lorentxori galdetuko ziela segizioa egin ahal zuten. Bestela berak egin beharko zuen, baina nahiago zuen jarraipena gazte haiek egitea, bera giro hartan nabarmen ez geratzeko. Handik gutxira Gabriela eta Felix agurtu eta etxera joan zen atseden pixka bat hartzera.

Arratsaldean, Lorentxo eta Gorka agertu zirenean, asteburuko informazioa trukatu zuten. Manuk kontatu zien Martzillan gertatutakoa eta beraiek, asteburuan lagun berriekin egin zutena. Lorentxok, Maria Irisarriekin pasatzen zituen orduak tailerrean koadroak margotzen eta Gorka Michellerekin ateratzen ari zen. Azken honek kontatu zien beste ikertzaileei buruz Michellek erran ziona.

–Michellek erran dit Txomin Barbarin misteriotsu jokutzen eta ezkutuan ibiltzen ari dela azken aldian. Lehen, irekia eta atseginagoa zen tailerreko betiko margolariekin eta orain, aldiz, ez du besteekin harremanik nahi eta aparteko gela batean aritzen da. Hurbildu daitekeen bakarrenetakoa Maria Irisarri da. Nik uste dut Michelleri dena kontatu eta laguntza eskatu behar diogula. Mariari ere eskatu behar diogun pentsatu behar genuke. Lorentxo, zer diozu? –Honek erantzun zion.

–Mariak ez du bere lagunari buruz ezer erran nahi. Sumatzen du zerbait gertatzen ari dela eta niri zuzenean galdetu dit zergatik ari naizen galdetzen. Ni desenkusatu naiz bere lana interesatzen zaidala erranez, baina uste dut egia erran behar diogula. –Manuk ere hala pentsatzen zuen.

–Bai, Lorentxo. Michelleri zein Mariari dena kontatu beharko genieke. Beraien laguntza behar dugu eta ez mesfidantza. Jakin behar dugu Txomin Barbarinek herriko etxean zer egiten duen eta horretarako zuen lagunaren laguntza behar dugu.

Kasu harekin eman beharreko urratsak erabakita, Manuk Gabrielaren ilobaren arazoa kontatu zien. Bi laguntzaileek ezagutzen zituzten Gabriela eta Felix eta interesa erakutsi zuten. Ez zuten arazorik izan arratsetan arte-tailerretik atera ondoren afaldu eta Ikerren ibilerak jarraitzeko.

Zazpiak aldera Manu lanetik atera zen. Betiko lau lagunek, Joxe, Patxi, Felix eta bera, paseoa egiteko asmoa zuten. Kontu handiz atera zen kalera eta autoa aztertu zuen abiatu baino lehen. Azken aldian paranoiko sentitzen zen eta mikroen detektagailua piztu zuen mikroak edo bilatzeko. Ez zuen ezer topatu. Nork jarraitu eta zelatatu nahiko zuen pentsatzen geratu zen, alferrik. Lagunak Manuren esperoan ziren. Ikertzailea hamar minutu beranduago agertu zen arnaska. Barkamena eskatu ondoren abiatu ziren arin-arin, bikoteka. Bera eta Felix lehenik eta Joxe eta Patxi pauso batera ohitura zuten bezala. Jende asko ibiltzen zen bide haietatik ordu hartan. Felixek galdetu gabe, ikertzaileak kontatu zion bere laguntzaileek Ikerren ibilerak behatuko zituztela. Hala ere, guztiak ari ziren gaztearen kasuan pentsatzen. Berrogei minutuan, nekatuta, atsedean egiteko geratu eta eseri zirenean Patxi mintzatu zitzairen. Gizona beldur zen.

–Droga asko mugitzen ari da gazteen giroetan. Anek dio hatxis eta mariaz aparte estasi eta speed saltzen ari direla. Gure alabak hamezortzi urte baino ez ditu eta kontatu digu festa batzuetan droga horiek eskaintzen dituztela. Egoera oso larria da. Poliziek gaizkile horiek gelditu beharko lituzkete.

Lagunek nork bere modura kezka adierazi zuten. Orduan Felixen ilobaren ibileraz ari ziren hizketan, baina Patxik droga ikusten zuen Aneren bidean eta Joxe eta Manu, seme-alaba gaztetxoagoak zituztenez, ez ziren lasai sentitzen. Manu ezin izan zen isilik geratu eta hitz eman baino desioa adierazi zien besteei.

–Ikerrekin zer gertatzen ari den ikertzen dugun bitartean mafia berriaz informazio gehiago izanen dugu. Foruzaingoaren laguntza ere eska dezakegu, gaizkile horietaz probaren bat lortzen badugu. Ezin dizuet ezer hitz eman, baina ahal duguna egiten dugu. –Lagunak isilik itzuli ziren auzora. Felixenera heldu zirenean pintxo eta garagardo bana hartu zuten. Pixkana inguru eta giro seguruan, jan-edanek lagunduta beren senera itzuli ziren. Neurri batean bizitzaren alde baikorragoa ikusteko gai izan ziren.

Manuk, Gabrielak prestatu eta eman zizkion purea eta arraina eraman zituen tuperretan. Bi egunetarako afaria izanen zuen. Etxean, ikertzaileak telebistako berriak jarraitu zituen. On egin zion lagunekin ibiltzeak baita hitz egiteak ere. Une hartan gazteen giroetako droga-arriskua perspektibaz ikusten zuen. Ahal bazuten mafia haiek geldiaraziko zituzten. Afaldu berritan izanen zirelakoan etxekoei deitu zien. Mikelek hartu zuen telefonoa. Mutilak hurrengo larunbatean partidara eramanen zuen galdetu zion. Futbolaria zen, lagunekin jokatzea gustatzen zitzaion eta behin baino gehiagotan leporatu zion aitari partida guztietan ez egotea. Manuren kasuek, batzuetan, ez zioten nahi bezala seme-alabekin

egoten uzten. Hitz eman zion han izateko ahal zuena eginen zuela. Junek, berriz, anaiari entzunda goxo hitz egin zion.

–Kaixo, aita. Mikel ez dago haserre, baina zu egotea nahi du. Lasai, pasatuko zaio. Ahal bada, ama ere joanen da. Orain dutxan dago, baina erran dit deituko dizula. –Handik gutxira Mirenek deitu zion larunbatean elkarrekin bazkaltzeko, agian inguruko herri batean. Emazteari bere kezka adierazi zion.

–Ez dakit posible izanen dudan. Lanpetuta nabil eta ez dakit libratuko naizen. Gurasoek ere bazkaria antolatu nahi dute igandean, ohitura dutenez.

–Lasai, Manu. Ikusten dut urduri zabiltzala. Zure amarekin mintzatuko naiz, larunbatean gurekin bazkaltzera etortzeko, bestela berarenean bazkal dezakegu. Utzi nire kontu.

## Maiatzaren 16a, asteartea

Manuri egun zoragarria iruditu zitzaion. Ongi gosaldu ondoren prest zegoen eguneko kontuetan hasteko. Hala ere, lanera abiatu baino lehen etxea txukuntzen eman zuen ordu luze bat. Joan behar zuen, baina aurretik autoan eta aparkalekuan dena begiratu zuen. Ez zuen nahi, baina badaezpada autoz igo zen lanera eta gehienetan egunez libre geratzen zen lagun baten aparkalekua erabiltzen zuen. Bidean ere kontuz ibili zen segiziorik ez izateko.

Bulegoko mahaian eseri bezain pronto Elenak deitu zion informazio berririk zuten jakiteko. Beranduago hitz egitekotan geratu ziren azken berriak emateko. Ez zen denbora gehiegi pasa Jakerrek deia egin zion arte. Hurrengo egunean agertuko zen, baina gazteak eskatuta, Manuk azken egunetako gora-beherak kontatu zizkion. Handik gutxira Gorka izan zen deitu zuena. Hasteko Ikerren ibilerak eta aurreko gauean gertatu zena kontatu zion nagusiari. Misterio puntua ematen ziola pentsatu zuen Manuk.

–Iker jarraitu genuen etxetik atera zenetik. Urruti mantendu ginen eta ez gintuen ikusi. Zuzen zuzenean joan zen Navarrieriako taberna batera. Han ez genuen ezer arrarorik nabaritu, baina hatxis eta maria lortu zituen, ziur aski gu sartu baino lehen norbaitek pasatu zizkionak. Handik gutxira itzuli bat egin zuen inguruko tabernetatik: saltzen ibili zen. Gutxika, ordu pare-hirutan lan egin zuen, noizbehinka lagun edo ezagunekin zerbait hartzen zuen bitartean. Kalkulatu dugu beraren kontsumorako eta gutxi gehiago ateratzen duela. Mutil horrek ez du mila euro irabaziko, asteburuetan gehiago salduta ere. Hatxis eta maria baino ez du saltzen. Galdetu dugunean erran digute ez duela beste drogekin ezer nahi.

–Orduan, langabezian dagoen kontsumitzaile eta saltzaile txikia baino ez da. Lasaitu ederra hartuko dute Gabrielak eta Felixek... –Gorkak ez zuen bukatu, ordea.

–Manu, joatekotan ginenean morroi bat Iker jarraitzen ari zela ikusi genuen. Aurpegi txarreko itxuragatik kezkatuta, asmatu genuen kaleko bakardadean eraso egin zionean. Lorentxok kolpe bat eman zion pistola kentzeko eta nik Iker izutu bat eraman nuen ondoko taberna batera. Lorentxok erran zigun gizonak ihes egin zuela eta mutilari galdetu genion zergatik eraso zuten.

–Erran al zenioten hari segika ari zinetela? –galdetu zien Manuk.

–Ez... Kontatu zigun gaizkile batzuek speed, koka, heroina eta estasia sartu nahi dituztela salneurri merkean. Asteburuetan ibiltzen dira diskoteketan, baina gaueko taberna arruntak ere kontrolatu nahi omen dituzte, eta bera bezalako hatxis eta maria saltzaile txikiak kanporatu nahi dituzte. Mehatxuka ari dira.

–Aholkatu al diozue salmenta uzteko?

–Ez. Galdetu diodanean erran dit kontuz ibiliko dela beraren gustuko lau-bost tabernetan eta kito. Kontuz ibiliko da... Dena den, uste dut ulertu duela arriskuan dagoela, ahal izanez gero lan arrunt bat hartuko duela erran baitit.

Orduan Gorkak hitz egin zuen beste auziaz. Michelleri dena kontatu ziotenean, edozer egiteko prest zegoela adierazi zien. Maria Irisarriri, Lorentxok ez zion ezer kontatu, bere kabuz, zerbait asmatu zuelako.

–Mariak ezer galdetu gabe aipatu dit Barbarinek kopia susmagarriak egiten dituela. Aurreko egunean Maria bere etxera joan zen tailerlean aurkitu ez zituen margo batzuk eskuratzera eta une batean Txomin sukaldera joan zenean gizonak estalita zuen koadroa begiratu zuen. Pollocken kopia bat zirudien, baina konturatu zen mihisea oso zaharra zela eta inoiz ikusi ez zituen pintura akriliko zaharrak erabiltzen zituela... –Manu ezin izan zen isilik geratu.

–Orduan uste al duzu haren kontra salaketa eta lekukotza egiten ahal duela? – Lorentxok ziurtasun osoz mintzatu zen.

–Ez. Oraindik ez du kontua barneratu. Harriduraz beteta izategatik aipatu zidan, baina oraindik haren laguna da eta uste dut ez dagoela salatzeko prest –Gorkak hartu zuen parte solasean.

–Lorentxok arrazoi du. Ezin dugu orain erran espiatzen ari garela. Maria barnerakoi samarra da eta gaizki har dezake gure eginkizuna. Lehenago ikusarazi behar diogu gaizkilea dela, iruzurtia eta arteari kalte egiten diola.

–Hala ikusten baduzue, ez dugu behartuko. Edonola ere jakin behar dugu non dituen margo faltsuak eta material zahar horiek eta epailearen arakatzeko baimena lortzeko Mariaren salaketa garbia behar dugu. Jabier Lopezek badu ikerketaren berri eta miaketarako prozedura prestatzen ari da... Lorentxo, noizko izan dezakegu Mariaren laguntza?

–Nik uste dut egun gutxitan konturatuko dela salatu baino beste erremediorik ez duela. Utzi niri poliki tratatzen. Uste dut berak bakarrik segurtatzen ahal digula non gordetzen dituen iruzurrerako margo eta materialak.

Horrela utzi zuten gaia. Manuk aipatu zien Jakarren laguntzaz informazio gehiago lortuko zutela. Droga munduko gaizkileekin zerbait egin behar zuten, baina momentuz ezin zuten ezer egin. Ikertzaileak eta laguntzaileak hurrengo egunera arte agurtu zuten elkar. Denbora galdu gabe, Manuk Elenari azken

berriak eman zizkion. Jabierri ere kontatu behar zion ordura arte ikertutakoa. Suertea izan zuen eta entzuteko prest topatu zuen komisario foruzaina. Honek elkar-laguntzerako prestutasuna adierazi zion. Droga-mafia berriez ere zerbait egiteko gogoa adierazi zion ikertzaile lagunari.

–Orain utzi behar zaitut, baina zaude lasai, mafia heldu berri hori ikertzen ari gara. Hitz egingo dugu luze eta lasai.

## 11. Udaltzaingotik dei eta berri harrigarria izan zuen Manuk

Goiz erdian kafe bat prestatu zuen. Orduan, dei harrigarri bat izan zuen. Iruñeko udal zerbitzuetatik deitu zioten. Telefonistak Udaltzaingoko buru batekin jarri behar zutela erran zion. Udaltzaina Roberto Murillo inspektorea zen, lankide izandakoa. Elkar agurtu ondoren honek kontatu zion udaltzaingoa berrantolatzen ari zirela. Hiritarrenganako hurbilpena gauzatzen ari ziren eta zerbitzu berriak sortzen. Auzoetako zaintza eta arreta zerbitzua martxan jartzen ari ziren eta genero indarkeria eta segurtasun taldea eratu. Gainera, Foruzaingoarekin delinkuentziarako koordinazio zerbitzua martxan jarri nahi zuten. Bitxiena izan zen udalean bazekitela Manu eszedentzian zegoela eta koordinazio talde horren burutza eskaini nahi ziotela. Inspektore mailako postua izanzen zuen, Udaltzaingoko goi-goi postuetako bat udaltzain-buruaren menpean. Manu lur eta zur geratu zen. Informazioagatik eskerrak eman zizkion Robertori agurtu baino lehen.

Momentuz ez zuen Jabier Lopezekin hitz egiterik izan. Emandako berria lagunarekin komentatu nahi zuen Manuk. Harrigarria zen Jabierrek horretaz hitz egin ez izana. Handik gutxira Jabierrek berak deitu zion. Manuk, koordinazio postuaz galdetu zion Foruzaingoko komisarioari, laguna zen neurrian egiazko azalpenak emanen zizkiolakoan. Honek dena argitu zion.

–Begira Manu, oraindik gurekin koordinatzeko Udaltzaingoko Delinkuentziarako Koordinazio Taldea, UDKT, ideia baino ez da. –Bazirudien brometan ari zela–. Udalean ideia adierazi digutenean guk konfiantzazko buru ezagun batek gidatu beharko lukeela aipatu dugu eta zure eszedentzia eta lana goraiatu. Badirudi udaltzain-buruaren artean ere ezagunak dituzula. Nik hau guztia nahiko egitasmo berdea ikusten dut eta horregatik ez dizut aipatu. Dena den, beraietako batek aipatu duenez pentsatzekoa da aurrera egiteko asmoarekin jarraitu nahi dutela. Nik badakit zure oraingo lanean arriskua eta bizimodu zaila duzula. Beraz, zure familiarekin ongi izateko postu berria aholkatuko nizuke, baina garbi utzi behar dizut oraindik ez dela errealitate bat. Asmoarekin jarraituz gero, lanpostua eskainiko dizute. Zuri zer iruditzen zaizu? –Manu askoz harrituago zegoen.

–Beno... Hasteko eskertzen dizut ni proposatu izana. Ez dakit. Ez dut ilusiorik egin nahi, gero ezertan geratzeko. Postu hori... –Lagunak argitu zion lanpostuaren izaera.

–Inspektore postu hori bulegokoa izango litzateke. Talde operatiboaren buru inspektoreorde bat jarri nahi dute. Larrialdirik ez denean bulegoko lan-ordutegia eta soldata polita izanzen zenituzke. Larrialdietan ere, ez zenuke zuzenean parte hartu beharko. Konfiantzazko eta pentsatzen dakien batentzako postua da. Postuak eskatuko luke gure bi polizien arteko koordinazioa eta talde baten burutza eramatea. Hala ere, ez zenituzke oraingo arriskuak eta lan estresanteak izanen.

–Jabier, jota nago. Ametsa iruditzen zait eta ez nuke ilusiorik egin nahi.

–Hara! Nik nioena. Ez dizut ezer erran arrazoi horregatik. Dena den, badirudi aurrera doala. Zer egingo zenuke ikerketa pribatuko zerbitzuarekin?



–Utzi beharko nuke, interes nahasmen arazorik ez izateko. Jaker eta Lala utziko nituzke bulegoan, Lorentxo eta Gorkaren laguntzarekin. Nik negozio bezala utziko nuke eta bulegoa alokatu. Ametsa dirudi honek.

–Tira! Amets egin eta pentsa zer aldatuko litzateke zure bizitzan. Zure familiaren ondoan bizitza lasaia izanen zenuke.

Lagunek utzi zuten solasa eguerdia baitzen eta bazkaltzera joan behar zuten. Manu seguruago egonzen bulegoan bazkaltzen, baina Gabriela eta Felixekin zuzenean hitz egin behar zuen eta lasaitu nahi zituen. Betiko neurriak hartuta jaitsi zen auzora. Toki Alain sartu zenean bi lagunak hurbildu zitzaizkion ilobaren inguruko ikerketaz jakiteko. Bazkariak emanak zituzten neurri batean eta laguntzaileak egin ahal zituen orduko lanak denbora batez. Nabari zen senar-emazteak urduri zeudela. Gabrielak bazkaltzeko zeuzkan platerak eskaini zizkion Manuri.

–Manu, oraindik entsalada, txitxirioak eta barazkiak “tenpura”n dituzu aukeran eta oilasko bularrak, lirioak eta hanburgesa bigarreneko. –Manuk ezin zituen horrela utzi. Lehenbailehen jakinarazi behar zien ilobari buruzko ikerketa.

–Gabriela, barazkiak tenpura eta lirioak eskatuko dizkizut, baina ez dut presarik. Eser gaitezen mahai horretan eta kontatuko dizuet. Beno, kaina bat hartuko nuke, ahoa lehor dudalako. Felixek eraman zituen kainak. Gabrielak barazki egin berriak hurbildu zituen eta hirurak eseri ziren. Ikertzaileak kainari trago handi bat egin zion eta garrantzitsuena kontatu zien.

–Zuen iloba Iker ez da gaizkile bat. Gauero egiten duena ezagun batzuei hatxis edo maria pixka bat pasatzea besterik ez da. Lan faltagatik horrela ateratzen du diru pixka bat eta bere kontsumorako zerbait ere bai. Ikusi dugunez kopuru txikiak maneiatzen ditu eta ez du poliziarekin arazorik izanen... – Lasaitu ederra hartu zuten izeba-osabek. Hala ere, tonuagatik edo, Gabrielak zerbait susmatu zuen.

–Manu, zerbait txarra kontatu behar diguzu. Baina, jan ezazu pixka batean.

–Hasiko naiz bazkaltzen, baina tartean zerbait kontatu behar dizuet... Mafia batek kontrolatu nahi du Iruñeko droga-mundua eta saltzaile txikiak erditik kendu nahi ditu. Arriskutsuak dira droga gogorrek saldu nahi dituztelako, baina zure iloba leku seguruetan mugituko da.

–Iloba horrek ezuste txarrak emanen dizkigu –izan zen Gabrielaren komentarioa. Manuk lasaitu zuen.

–Ez, Gabriela. Iker ez da txoriburu bat. Jakinen du aparte ibiltzen. Gainera, bere gogoan lan bat aurkitzea da. Zer ikasi du?

–Automobilien mekanika ikasi du, baina lanean hasi berritan itxi zuten tailerra eta ez du suerterik izan.

–Ez zenuten aipatu. Gorkari galdetuko diot inor behar duten bere tailerlean...

–Hara! Ea lortzen duzuen. Mila esker Manu, laguntzeagatik. Orain jarraitu bazkaltzen. –Emakumeak besotik hartu zuen senarra eta lanean jarraitu zuten.

Ongi bazkalduta, lagunak agurtu zituen eta lo-kuluxka egitera joan zen. Nekatuta zegoen, oso goiz gogorra eta ezustez betea izan baitzuen. Arratsaldean alferrik saiatu zen lanean. Sargoriak ez zuen laguntzen. Ordu batean ezin izan zuen ezer egin eta bueltaka hasi zen bulegoan. Aireratzeak on eginen ziolakoan kalera atera zen. Kanean haizeak freskatzen zuen pixka batean eta gusturago sentitu zen. Noraezean ibiliko zela uste zuen, baina Xabier karrika-tik Kaldereria kalea hartu zuen Navarrerria eta katedralaren bidea. Kuriatik pasa eta ia ez zion kasurik egin eraikinari. San Jose plazako banku batean eseri zen iturriari eta plazako bizitasunari begira. Haurrak jolasten ari ziren gurasoen begiradapean eta gazte kuadrilla batzuk korroan ari ziren hizketan bankuetan eta katedralaren aldameneko atariaren ondoan, eskaileretan. Ibiltari batzuk paseatzen ari ziren gora eta behera. Aspaldiko La Normal, Magisterio edo Irakasle-Eskola izandakoaren ondoan gazte bat ari zen disimuluan begiratzen.

Norbaitek zelatatu edo jarraitu nahi zuen. Ziur aski lau sosengatik beste batzuen agindua betetzen ari zen gazteak ez zuen arriskutsua ematen. Momentuz Manuk ez zuen larritzeko arrazoirik aurkitu. Altxatu zen eta Redinera abiatu zen. Une batez Zaldi Zuritik pasa eta Ezkaba eta Txantreari begiratua bota zion. Itzultzean gaztea disimulatzen bistaratu zuen. Denbora galdu gabe itzuli behar zuen bulegora. Hala ere, disimulatzeko Zumalakarregiren atari ondotik eta Karmen kaletik pasa zen paseatzaileen artean. Jendetza zebilen kaletik tabernaz taberna. Nabarrerria plaza, lan-eguna bukatuta, jendez beteta zegoen.

Bulegora itzuli zen. Berandutzen ari zen eta ez zuen arratsaldea aprobetxatu, ezta gogoia lasaitu ere, are gutxiago jarraitzen zutela ikustean. Handik gutxira auzora jaitsiko zen, baina ez zen gustura ibiliko. Badaezpada ez zen lagunekin paseatzera aterako. Norbaitek edo batzuek jarraitu egiten zuten; auskalo zer helbururekin eta zer egiteko asmoa izango zuten. Egun hartan, autorik erabili ez zuenez, taxiz jaitsi zen auzora. Gogoz kontra eta segurtasunez geratuko zen etxean. Mikrouhinez desizoztu zuen bakailaoa eta afaldu zuen, frutarekin bukatuz. Beranduago, ohiko orduan deituko zien etxekoei, guraso, seme-alaba eta emazte ohiari.

Alfak, Anjel Flores Errazurekin hitz egin behar zuen. Uste zuen Manuk jarraitzen eta zelatatzen zutela jakinen zuela. Kontratatu zuten drogazalea ez zen oso ona izango lan haietan, baina ez zen tontoa eta uste zuen ikertzaileak sumatu zuela. Tamalez gazteak berari deitu zionean berandu zenez alferrik izango zen ezer egiteko eta orduan erne egonen zen madarikatua. Egunen batzuk pasata, zain izanen ez zenean, saiatu eginen ziren zerbaite egiten. Flores kartzelatik atera berria zen. Berak, Alfak, ihes egin ahal izan zuen Ameriketara. Bazuen polizien laguna akabatzeko grina handia. Telefonoz bestaldean Floresen ahotsa entzun zuen.

–Kaixo, Alfa. Zer berri?

–Zaharrak berri. Jarraitu dute eta uste dut konturatu dela.

–Orduan momentuz ez dugu ezer egingo. Lasaitzen denean egingo diogu merezi duena.

–Anjel, ezin dut gehiago aguantatu. Bi urte ezin txarragoak pasa ditut mendekatzeko gogoz...

–Alfa, zuk adina gogo daukat nik. On Mariok erran dit bere mutilak gaur-biharretan agertuko direla. Badu jende prestatua eta azkenik lortuko dugu.

–Ea egia den!

## Maiatzaren 17a, asteazkena

Egun sargoritsua izanen zuten goizetik. Manuk gaizki egin zuen lo. Lo kamutsa izan zen hura. Tarteka erabat esnatzen zen eta zerbait egin nahi ziotelako susmoa ez zitzaion burutik joaten. Bazekien azkenekoak abisuak baino gehiago hiltzeko saiakerak izan zirela, serioa ari zirela hil nahi zutenak. Bai, susmatu egiten zuen etsai bat zegoela saiakeraren atzetik. Filo tartean zebilen, baina bera ez zen nagusia, mandataria edota bitartekaria baizik. Ezin zion ezer galdekatu emakumezko ikertzaile makurrari, Martzilako saiakera izan zenetik desagertu zelako. Ikertzaile pribatu bezala emandako hamar urteetan etsai batzuk egin zituen. Azkenekoetan gaizkile beldurgarri batzuk bidali zituen gartzelara eta beste batzuk eskapatu ziren.

Berandu zen, baina lanera abiatu baino lehen Jabier Lopezekin mintzatzen saiatu zen. Telefono partikularra erabiliko zuen. Kasualitatez berehala erantzun zion. Agurrak gurutzatu ondoren zuten jo zuen harira. Jarraipenaren berria eman zion Jabierri. Foruzain burua laguna zen neurrian kezkatuta zegoen.

–Manu, egun batzuetan leku seguru batean egon behar zenuke. –Manuk ezin zuen hura onartu.

–Jabier, ezin naiz hiri ezezagun batean erdi gordeta geratu.

–Eta zer egin nahi duzu?... Manu, zer egin behar duzu?

–Bizitzen jarraitu. Nire lan eta bizitzarekin aurrera egin behar dut. Bai, badakit arriskuan izanda, kontuz ibili behar dudala. Egon lasai.

–Orduan...

–Pentsatu behar dut zer egin erasorik izanez gero defendatzeko... Ez larritu. Orain lanera joan behar dut. Kezkatzen nautenak seme-alabak eta familiakoak dira.

–Nik ere pentsatuko dut nola mantenduko zaituztegun seguru. Aio.

Lanera joan baino lehen autoa aztertu zuen. Ezagunaren aparkalekuan utzi zuen autoa eta tentuz hurbildu zen bulegora. Jaker lanean jo eta ke topatu zuen. Ikertzaileak bazekien horrela zegoenean bakean utzi behar zuela. Manu txostenak osatzen aritu zen denbora batez. Jaker mugitzen ari zela nabaritu zuenean harengana hurbildu zen. Egun batzuk kanpoan izan zen gaztea, baina nagusiari asteak izan zirela iruditu zitzaion. Manuk gustura agurtu zuen bere lankide eta laneko semebitxia. Kafe bat prestatu zuten lanean jarraitu baino lehen.

Gaztea Berlineko Internet Encounter edo topaketan izan zen Lalarekin. Han ziber-eraso orokor ikaragarriaz aritzeaz gainera, harrigarriki iruzurrez zerbait gehiago jakin zuen. Margo berezi haien iruzurraren berri eta eragina Europa osora zabaldua zen. Margolari inpresionista, espresionista eta postinpresionista abstraktu garrantzitsuen imitazio ezin hobeak azaldu ziren AEBn eta Europako kultur-hirietan. New York, Londres, Paris eta Berlinen hamar bat margolariren hogeita hamar lan berri baino gehiago agertu ziren azken urtean. Berlinen beste hacker batzuek ikertzen zuten iruzurra eta bilera batean elkartuta, lan estuagoa egitea erabaki zuten. Bost hacker talde horiek beste batzuen laguntzaz zerbait lortuko zuten hain ongi antolatutako iruzur internazional horren kontra.

Manuk azkeneko ikerketen berri eman ondoren, Jakerrek kontatu zion berari Paris eta Berlineko arte merkatari eta hackerrek iruzurtien tailer nagusia "Basque Country"-n zegoela esan ziotela. Interneteko web sakonean egiten ziren lan horien salmenta batzuk eta artista iruzurtiak bertan kokatu zituzten. Jakerrek eta Manuk hurrengo urratsak zehazten aritu ziren. Manuk oso garbi ez bazuen ere, lotu egin zuen informazio berria bertan egiten zutenarekin.

–Horrek guztiak gure iruzurtiarengana garamatza. Txomin Barbarin iruzur-probekin harrapatu behar dugu.

–Nola ordea?

–Kontatu dizudanez Maria Irisarren laguntza lortuz gero Txomin Barbarinen komunikazio eta korreoetarako sarrera erraztuko digu. Jaker, Troiano edo antzeko baten bidez korreoa hackeatu ahal izango diogu eta telefonoa ere bai.

–Manu, ez duzu mundu digitalean asko egiten, baina ideia ona iruditzen zait. Maria Irisarriekin harremanetan jarriko naiz behin Lorentxorekin dena ongi dagoela egiaztatu ondoren.

Bi ikertzaileak Gorkarekin eta Lorentxorekin harremanetan jarri ziren orduan. Lorentxo, berri txarrak ematen hasi zen. Mariak berak zerbait egiteko prest zegoela erran zion Lorentxori, baina hasieratik ikertzen aritu zirela susmatu zuenean, erabilia sentitu eta haserretu zen. Lorentxo azalpenak ematen ahalegindu zen, baina emakumeak alde egin zuenean ez zion ongi desenkusatzeko utzi. Gizon gaztea lur jota zegoen, laguna ez ezik bere bizitzako emakumea galdu zuela uste baituen. Hala ere, handik ordu batera emakumeak berak deitu zion Lorentxori eta erran zion ulertzen zuela, sentitzen zuela eta laguntza osoa emanen ziela.

Gauzak argituta, Manuk Mariarekin hitz egin zuen eta Jakerrekin lan egiteko plana adierazi zion. Jakerrek berak kontatu zion nola egingo zuten zehatz-mehatz. Eguerdia zen eta arratsaldean lanean jarraitu bitartean bi ikertzaileak etxera joan ziren bazkaltzera eta atsedean hartzera.

Arratsaldean sargoria nabariagoa zen eta kostatu zitzaizen zentratzea. Lanean jarraitu zutenean Jakerrek Txomin Barbarinez gehiago jakin zuen. Bere korreo elektronikoak irakurri ahal izan zituen, baina igorlea TOR sistemaren atzean ezkutuaren zen. Dena den, bazekiten non eta noiz geratuko ziren Txomin eta arte-merkatari iruzurgileak. Horren arabera bazekiten ortzirale arratsalde hartan Iruñean elkar topatuko zutela. Telefonoa klonatuta eta deiak entzun eta grabatu egiten zituzten epaile baten baimenarekin, margo-lanak faltsuak zirela eta merkaturian kokatu nahi zituztela probatzeko. Jabier Lopezekin hitz egin

zuen Manuk. Komisarioak zoriondu zien egindako lana. Horiek ziren planak eta asmoak, baina arazorik handiena zen gaizkileen burua salbu geldituko zela.

Manu pozik baina nekatuta zegoen. Bazirudien dena bide onetik zihoala. Auzora heldu zenean lagunekin elkartu zen. Aurretik errana zien ez zela haiekin ibiltzera joanen, baina garagardo bat eta merienda hartuko zuten elkarrekin. Patxik bere ibileren arrazoiak galdetu zion.

–Zer gertatzen da, Manu? Zergatik ez zara gurekin elkartzen ibiltzera? Azken aldiko jarraipenak benetako mehatxu bihurtu dira, ezta?

–Bai. Ezin dizuet gauza handirik kontatu, baina nire atzetik dabilta –Felixek jarraitu zuen.

–Ez duzu guretzako arriskurik nahi, baina laguntzarik behar baduzu, eskatu.

–Ez. Beno, badakit zuen laguntza izan ahal dudala, baina ez da beharrezkoa.

–Seme-alabak salbu al daude? –izan zen Joxeren galdera kitzikatzailea.

–Hala uste dut. Jabier Lopezek ez dit erran baina badakit beraien zaintza antolatu duela. Edonola ere, saihestu behar dut arriskurik txikiena. Zuek, Joxe eta Patxi lagunduko al didazue asteburuan seme-alabekin?

Lagunek baiezko erantzuna eman zioten. Merienda-afarian beste gai batzuk izan zituzten, baina Manuk ezin zuen arriskuaren gaia ahaztu. Handik gutxira etxeratu zenean familiako guztiak mintzatzen pasa zuen egunaren bukaera. Lotarako pilulak erabiliko zituen, bestela ez zuen loak hartuko edo oso gaizki egingen zuen.

## 12. Manu arrisku eta etorkizunaren aurrean

Maiatzaren 18a, ortzeguna

Goiz euritsua zen, baina atertuko zuen. Tenperaturak jaitsi ziren eta behingoz ez zuten bero-sapa jasan beharko. Nafarroako banderaren defentsarako manifestazioaz ari ziren berriemaileak. Ekainaren 3rako edo izanen zen mobilizazioa eta erregionalistek eta talde eskuindar askok egiten zuten deia. Gobernuaren sostengatzen zutenek harriduraz hartu zuten aldarrikapena.

Eguna aprobetxatzeko goiz hasi zen gauzak egiten. Pilulei esker lo sakon eta jarraia egin zuen aspaldiko partez. Ongi gosaldutakoan dendan erosketak egin eta lanera joateko prestatu zen. Garajea ongi miatu zuen, baita motorra eta autoa ere. Dena ongi zegoen eta motorrean mugitzea erabaki zuen. Jarraipenatarako ekipoa motorreko alforjetan sartu zuen eta Iruña erdialdeko aparkaleku batean utzi zuen makina. Bulegora heldu ondoren kafe bat prestatu zuen. Gustura egin zuen lo, baina orduko ez zituen lorratzak kendu. Kafea bukatuta mahaiaren gaineko gauzak ordenatzen ari zenean Jaker agertu zen. Kasuan egindako aurrerapenak erreparatu zituzten. Jakerrek jarraitu behar zituen Txominen komunikazioak ortziraleko hitz-ordua ziurtatzeko. Gaztea bere bulegora mugitu zen gizon heldua lanean uzteko.

Manu lanean zentratzen ari zenean, Lorentxok azkeneko berriak eman zizkion. Lehenik Mariak kontatu zion Txomin arraro jokatzeko ari zela. Iruzurgilea gaixorik zegoelako aitzakian herrian geratu zen. Mariak uste zuen Txominek zerbait susmatzen zuela edo behintzat kontu handiz ibiltzen ari zela. Besterik gabe berrien zain agurtu zuen Lorentxok. Ordu bat pasa ondoren Jaker hurbildu zitzaion Manuri. Txomin ez zegoen susmoak hartuta. Telefonoz eta mezuz bere konfiantzazko bi laguni adierazi zien herrian gordeta egonen zela arte-lan handi bat egin behar zuelako eta lan asko pilatu zitzaiolako egun pare batean. Beraz, iruzurrezko margoak bukatzen ibili behar zuen. Hurrengo eguneko hitz-ordua ere jakin zuen. Arratsaldeko seietan geratu ziren Iruñeko hotel batean.

Ikertzaileak ordu batzuetan ibili ziren lanean. Nork bere gauzak antolatzen eta eguneratzen ibili ziren. Biek gustura egiten zuten lan. Norberaren ikuspuntua eta lan-ildoak besteak onartzen zuenez, elkarrekin ongi konpontzen ziren. Gainera, Jakerrek enpresen segurtasun informatikoa zuen lanik nagusia eta Manuk alderdi burokratikoa eta kasuen zuzendaritza. Ikertzaile helduak pentsatzen zuen lan hura utziz gero, bere lan-eremua kudeatzen Lalak ongi beteko zuela. Hura bai emakume argia! Eguerdian bazkaltzera joan baino lehen Manuk aprobetxatu zuen laguntzailearekin etorkizunaz hitz egiteko.

–Sam, ziur al zaude ez duzula arazorik izango Lalarekin lan egiteko? –Gazteak harriduraz begiratu zion lankide zaharrari.

–Horrek erran nahi du gu uztea benetan pentsatzen ari zarela! Ez zenuke horrelako arazorik adieraziko gurekin jarraitzeko asmoa izanen bazenu. Hain bateraezinak al dira zure bizitza pribatua eta lana?

–Bai. Nire familiaren segurtasuna kolokan jartzen dut behin eta berriro. Udaltzaingoan lanpostu burokratikoa eskainiko omen didatenez ez nuke gaizkileekin eta kaleko arriskuekin arazorik izango.

–Horrela bizimodu erosoagoa izanen zenuke, baina Mirenekin bizi zena lortuko al duzu?

–Ez dakit. Behinik behin ez dut familia hainbesteko arriskutan jarriko. Alde pertsonaletik ez dakit Mirenekin itzuliko naizen.

–Orena opa dizut, Manu. Hala ere, espero dut zure laguntza mantentzea... Bide batez erran behar dizut ez dudala ulertzen Lala eta nire artekoaz zalantzak izatea. Zer da gustatzen ez zaizuna, gure harreman pertsonala ala alde profesionala?

–Bi harreman motak batera eraman ahal izatea da nire zalantza. Zu independenteegia zara eta une honetan Lalarekin ongi konpontzeak ez du erran nahi beti horrela izango denik. Zer gertatuko da haserretzen bazarete?

–Ez dakit. Lana eta harremana ongi bereizi behar ditugu, bai. Dena den, uste dut ez dugula arazo gehiegirik izango.

–Zergatik?

–Lala edonola ere maitagarria eta zentzuduna delako... eta ongi daki ni eramaten. Ez izan kezkarik, Manu. Denbora batez laguntzen badiguzu ongi ibiliko gara. Noiz utziko gaituzu?

–Geldi, Jaker. Behin behineko komunikazio ez-ofiziala egin didate, baina oraindik ez da gauza ziurra. Hurrengo hilabeteetan, agian hemendik lauzpabost hilabetera gauzatuko litzateke lan aldaketa eta bitartean baita Lala honetan sartzea ere.

Ikertzaileak ez zekien zer gertatuko zen bere bizitzan, aldatu behar zuela baizik. Jakerrek lagundu zuen motorreraino. Familiakoek izan ezik, mundu guztiak susmatzen zuen Manu jarraitzen zutela. Edonola ere, Ikertzailea ezin zen besterik gabe gordeta eta ezkutuan geratu. Ziur zen aspaldikoak izateaz gainera, bere etsaiek orduko ikerketekin zerikusia izanen zutela, bestela ez zituzten hiltze saiakerak hain jarraian burutuko. Bi aste lehenago autoa manipulatu ziotenez, makina ongi miatuta jaitsi zen auzora.

Toki Alain zainzuriak eta untxi estofatua aukeratu zituen. Ez zuen gehiago bazkaldu, baina une batez barran geratu zen Felixekin hitz egin ahal izateko. Ardo gorri freskoa hartu zuen lagunak azkeneko berriak komentatzen zituen bitartean. Drogaz berri gehiago zabaldu zen. Droga gogorak sartu nahi zituzten mafia berriko morroiek gazte bat larriki jo eta ospitaleratu zuten. Gaueko tabernariak garbi zekiten gertaerak drogarekin zerikusia zuela, mafia harekin. Felixen ezagun tabernari batek aipatu zion droga merkatuan sartzeko, koka, speed eta estasia merke saltzen ari zirela. Felixek bere larritasuna adierazi zion ikertzaile lagunari.

–Manu, polizia zerbait egiten ari al da mafia horren kontra?

–Ez izan dudarik. Nik dakidanez foruzainak ahal dutena egiten ari dira.

–Espero dezagun mafia hori gelditzea. Gure iloba eta bera bezalako gazteak arriskuan daude. Badirudi droga gogorren garaira itzultzen ari garela. Ez dugu heroinaren aipamenik entzun, baina luze gabe nabarituko ditugu droga gogorren ondorioak.

–Arrazoi duzu. Droga auzi hau larria da eta bukatu behar da.

–Hala izan dadila.

Arratsaldean, Lorentxo, Gorka, Jaker, Lara eta Manu elkartu ziren bulegoan. Jaker izan zen bulegoan agertzen lehena. Manu sartu zen ondoren eta Lorentxo eta Gorka minutu gutxitara. Lalak lan-astea bukatzeaz gain ia amaituak zituen ikasketak. Neska, ederra, atsegina, ona eta argia zen. Agertu zenean alaitasuna erakutsi zuen. Bere aurpegi beltzaranak irribarre argi batekin oparitu zien. Lan bat eta azkenetako azterketa falta zitzaizkion Kriminologiako Gradua erabat bukatzeko eta desiratzen zegoen beraiekin lan egiteko.

Txominen atxiloketa bera hurrengo egunean gauzatuko zuten foruzainen laguntzaz eta Jabier Lopezekin koordinatuko zuten goizean, baina kasuaren inteligentzia beraiek burutuko zuten. Lorentxok eta Gorkak, azken informazioa edo bestela erranda Michaellek eta Mariak jakin zutena adierazi zuten. Michaelle asko mugitu zen Txominen familia eta lagunenguz inguruan, bereziki margolarien artean ikertu zuen eta jakin zuen iruzurraren kontuan kanpotarrekin baino ez zuela harremanik. Gorkak bere lagunak ikertutakoa adierazi ondoren, Lorentxok kontatu zizkien azken orduetan Maria Irisarriren ibileraren ondorioak. Mariak lagun kezkatuarena eginez deitu zion artistari. Bere gordelekura joateko modua bilatu zuen alferrik. Txominek zioenez gaixoaldia gainditzen ari zen, lasaitasuna behar zuen eta bi egunetan lanera eta pintura tailerrera itzuliko zen. Gauza bat zuten garbi: gizona ez zen bere ezkutuko tailerretik aterako. Margo lan nagusi eta ezezagun on batzuk agertuko ziren denbora gutxian arte munduan. Poliziarekin segada antolatu arte ez zuten besterik egiterik. Lala izan zen sor zitekeen arazoa adierazi zuena.

–Primeran! Eta gaizkile sareak eta parte hartzen duen mafiak ez dute ezer egingen! Ez al dute beraien lana eta margolaria babestuko? –Ez zuen haserre adierazi, baina denak konturatu ziren oso arinki aritu zirela eta ez zuela aukera hori inork kontuan izan. Jakerrek jarraitu zuen bere iritzia ematen.

–Bai. Kontuan hartu behar dugu beren lana babestu nahiko dutela, baina ez dakit. Txominen komunikazioetan behintzat ez da sumatzen inongo behaketa edo zelatatze ekintzarik –Manuk bere iritzia eman zuen.

–Ongi da. Dena da posible, baina ziurrenez gaizkileek ez dute arazorik aurreikusi Txominen faltsutze lanak egin bitartean. Dena den, hemendik aurrera kontu handiagoz jokatu behar dugu eta kontraespioitza kontuan hartu. Poliziei adierazi behar diogu kontuz ibiltzeko.

–Eskerrak hemen norbaitek pentsatzen dakien! –izan zen Gorkaren komentarioa.

–Bai horixe! –aipatu zuen Lalak irribarrez.

–Zu zara argiena! Zu bezalako gehiago behar genuke –komentatu zuen Manuk.



–Et, et, et, lagun. Lalak badu bere zalduna eta ni neu naiz –izan zen Jakerren ateraldia.

Txomin gehiago kontrolatu behar zuten inor konturatu gabe. Jakerrek aipatu zuen Txominen etxe inguruak satelitez zelatatu ahal zituztela argazkiak eginez. Ezin zuten Garesen zaintza zerbitzurik jarri, Txominek edo jendeak nabaritu zutelako. Txominen tailerraren kokapena segurtatuta, bera eta iruzurgileak elkartokian harrapatu behar zituzten egindako lan faltsuekin. Gaizkile-sarea desegin behar zuten. Edonola ere, Txominen telefono-solasaldi batean nagusi baten izena aipatu zuen arte-iruzurgile taldeko batek. On Mario izena aipatu zuen moduagatik, haien agintari bat izanen zen. Berrito topaketari buruzko aipamena egin zuten. Hurrengo eguneko topaketa baieztatu zuten. Lanak prest ziren eta trukean ordaintzeko dirua eman behar zioten artistari: milioi bat euro.

Bilera bukatzen ari zirela, detektibeek une batean droga-zabaltzea eta sare berriaren agerpenari buruzko berriak aipatu zituzten. Lalak kontatu zien Donostian ere droga gogorrek zabaltzen ari zirela. Inguruko hiri guztietan Mafia gogor berri bat droga merkeak sartzan ari zen gaueko giroko tokietan. Mafia internazional batek inposatu nahi zuen bere agintea han eta Europako lurralde zabal batean.

Denek utzi zuten bulegoa. Lalak eta Jakerrek bazuten hitzordua lagun batzuekin. Lorentxo eta Gorka zerbait hartzera joango ziren, ondoren tailerretik pasatzeko eta beraien lagun artistekin egoteko. Manu kontu handiz ibili zen auzora itzultzeko. Berrito geratuko zen lagunekin ibilaldia egin gabe. Nolanahi ere, haiek atera baino lehen une batez hizketan aritzeko aukera izan zuen. Ondoren, etxera mugitu zen. Etxekoengana ere ezin zen joan, segurtasun arrazoi berberengatik. Hitz egiteko beharrak eraginda, gurasoekin mintzatu zen. Ongi zeuden biak eta igandean bazkaltzeko geratu ziren. Alaba eta semearekin ere hitz egin zuen segidan. Ezin izan zien astebururako ezer hitz eman. Ez zekien ortziralde gauean zer egingo zuen eta susmatzen zuen larunbatean egitekoak izanen zituela, baina maite zituenekin ez elkartzeko benetako arrazoia segurtasun falta zen. Beldurrak jota zegoen. Gainean sumatzen zituen bere etsaiak. Nola edo hala itxurak egin zituen eta hurrengo igandeko bazkarirako geratu ziren. Hala ere, ezin izan zuen Miren engainatu.

–Manu, zer duzu? Oraingoan ez da lanagatik ezin zarela zure seme-alabekin elkartu. Zer gertatzen ari da?

–Lan kontuak ditut asteburuan. Kasu larri bat zuzentzen ari gara eta espero dugu behingoz amaitzea.

–Eta zer gehiago? Zu ez zara horrelakoa. Zerbait ezkutatzen ari zara. Foruzain batzuk nabaritu ditut gure zaintza egiten. Arriskuan al zaude?

–Erran dizut. Kasuarekin edo dauka zerikusia. –Manuk ezin izan zuen luzaro isildu. Noizbait kontatu egin behar zion–. Hitz ematen dizut gauzak konponduko ditudala eta denbora laburrean lan seguruago eta lasaiago bat lortuko dudala. Hemendik gutxira kasu gehiago egingen dizuet. –Mirenek ulertu zuen.

–Hala izan dadila. Kontuz ibili, Manu.

Gizonak zerbait ahoratu, liburu bat hartu eta loak hartuko zuen suertea izanez gero.

Arratsalde hartan, ordu batzuk lehenago, Alfa "morroi" batekin ari zen hizketan. Gizonari pertsona batzuk zelatatzea agindu zioten eta begiratze horren berri eman behar zion lana ematen zion nagusietako hari. Alfak pertsona pijoa eta aberatsa zirudien, baina era berean hotza eta gogorra zen eta gazteak errespetuz hitz egin zion.

–Bi egunetan ibili naiz familia hori zelatatzen eta ez dut hurbiltzeko modu onik aurkitu. Foruzainek zaintzen dituzte eta ezin da lasai gerturatu eta ezer egin. Alaba eta semea bereziki estuki babesten dituzte, bakoitzari zaintza jarritz. Goizetik gaua bitartean egun osoan, txandak eginez jarraitzen dituzte...  
–Emakumeak urduritasuna erakutsi zuen.

–Aizu, ez hasi negarrez. Beno, ez duzu umeengana hurbiltzeko aukerarik sumatu. Zer diozu emakumeari buruz?

–Umeen ama ere zaintzen dute, ez hain estuki, baina berari ere zerbait egitea zaila izan daiteke segurtasunez egin nahi izanez gero. Etxekoak egoten ez direnean ere kontrolatzen dute etxea. Jarraipenak aparte, foruzainak teknologia erabiltzen ari dira zaintza egiteko. Horregatik ibili naiz tentuz. Nik ez nieke ezer egingo, oraingo behintzat.

–Eta gurasoak?

–Gezurra dirudi, baina haiek ere neurri batean zaintzen dituzte. Inoiz ez dut pertsona baten familia zaintzen horrenbeste errekurtsio erabiltzea ikusi. Kontua da, arriskuan daudela erranen baliote, ez luketela hainbeste neurri hartu beharko. Ez dut ulertzen...

–Aski da... Utzi familiakoen segimendua. Goazen orain taberna horretara.

Emakumea eta morroi hura Manuren lagunak biltokia zen tabernara hurbildu ziren. Leihoetan gortinak baziren ere, kanpotik barnealdeko giroa, jendea eta baita zarata ere sumatzen zen. Alfak ez zion besteari galdetu, buruarekin keinu aginzale bat baizik. Gizonak ederki ulertu zuen dena kontatu behar ziola.

–Ez haserretu. Elkano jauna eta lagunak tabernan elkartzen dira arratsaldero arin ibiltzera abiatu baino lehen eta bueltatu ondoren. Ikerlaria azken egunetan ez da beraiekin atera. Nik ez dut ezer egin susmagarri ez gertatzeko, baina garbi dago zelatatzen ari garela nabaritu edo igarri duela. Kontu handiz ibiltzen da kaletik. Garajea eta etxean sartzeko edo ateratzeko dena kontrolatzen du. Beste zelatariak ere berdin ikusi du. Duela gutxi lagunak ibiltzera atera direnean bera etxera abiatu da.

–Ez duzu zaindaririk aipatu... Zure hitzetan susmoz eta arretaz ibiltzen da. Ez al du zaindaririk, foruzainik edo beste lagunik?

–Ez.

–Gizon batzuen eraso bidez harrapatu eta bahitu ahalko litzateke orduan?

–Ezustean harrapatuz gero, bai. Hala ere, ziur ibiltzeko neurriak hartzen ditu.

–Ados. Utzi zelatatzea. Bihar deituko dizut.

Alfak Manuren jokaera eta egoera hausnartu zuen. Ikertzaileak familia zaintzapean zuen foruzainen laguntzaz, baina berak ez zuen ezer berezirik egiten. Behin baino gehiagotan saihestu zituen saiakerak, oinarrizko betiko neurriak hartuta, baina ezin izanen zuen deus egin ongi prestatutako segada baten aurka. Ezin izango zuen saihestu. Emakumeak zaila ikusten zuen Manu bere auzoan harrapatzea, baina Iruñean ezezagun artean zerbait egin ahalko zuten. Aparkaleku pribatuaren ondoan edo bulegotik hurbil saiatzen ahal ziren.

Ordu bat beranduago, Alfa, Anjel Flores eta Filo elkartu ziren hiriko pisu batean. Kartzelatik atera berritan Anjelek debekatuta zuen abokatu lanetan aritzea eta eskaini zioten lana hartu behar izan zuen. Elkano ikertzaileak eta Lopez komisarioak harrapatu zuten bera gaizkileentzako lan zikinetan nahasita egoteagatik. Berak begitan hartu zuen Manu, baina nahiago izango zuen dena ahaztu eta beste leku eta lan batean izateko aukera izan balu. Alfak bai. Berak akatu nahi zuen gizona, nahiz eta bera kartzelatik libratu eta diruduna izaki bizi ona edonon izan ahal zuen. Filok afera hartan sartzeko arrazoia diruaz aparte ez zen hain garbia. Alfa ez zegoen oso gustura eta Manurekin egin beharrekoa zehaztu eta burutu nahi zuen lehenbailehen.

## 13. Arte-iruzurraren kontrako sarekada

Maiatzaren 19a, ortziralea

Egun berezia izango zen. Ostarteak ikusten ziren goizean, baina tenperaturak ez omen ziren 17 gradutik pasatuko eta euria egiten ahal zuen. Manu eta Jaker, Foruzaingoko egoitzan sartu baino lehen, ondoko taberna batean kafe bat hartu zuten. Bazuten arratsaldeko atxiloketa prestatzeko beharra. Lala, Lorentxo eta Gorka beranduago agertuko ziren. Foruzaingoak aseguratuko zituen atxiloketak, Txomin eta bere gaizkideena hasteko, baina badaezpada ikertzaile pribatu taldeko partaideek bazuten arte-martxanten enkargua. Beraiek egiaztatu behar zuten artelan faltsu guztiak eta materialak ez zirela galduko.

Ikertzaileak komisarioaren bulegora sartu zirenean honek arbel batean marraztua zuen atxiloketaren deskribaketa. Bi taldek aztertuko zituzten herriko etxea eta Txominen pisua. Hirugarren talde batek, komisarioa buru, handik gertu aseguratuko zuen atxiloketa. Komisarioak agurtu eta eserarazi zituen ikertzaileak. Agurra erantzun ondoren, Manuk arbeleko eskemari begira galdetu zion foruzain-buruari.

–Jabier, ikusten dut atxiloketak eta miaketak antolatu dituzuela. Gu, ordea, ez gara agertu. Ez dut nabari eskeman gure parte-hartzerik.

–Bai, hala da. Arbelean atxiloketa eta miaketen eskema ikusten da. Zuen parte-hartzea falta da eta behar bezala antolatu behar dugu. Zuek helburuak aseguratzen lagunduko diguzue. Gu gara zenbakia, zuek, berriz, lanaren helburua eta kalitatea segurtatuko dituzue. Guk ez dakigu arte kontu horretaz gauza handirik. Manu, ba al duzue esatekorik?

–Bai. Lorentxok bere lagun Mariarekin Gareseko etxeko miaketan hartuko dute parte eta Gorkak Michellerekin Iruñeko pisan. Tailerrean ez dut uste ezer topatuko dugunik. Horretaz gain guk biok, Lalak eta Elenak zure ondoan egon nahi dugu galdeketetan laguntzeko. Gure partez ez dago besterik.

–Ongi da. Dena den, galdeketetan zuk bakarrik hartuko duzu parte zuzenean, besteok ispiluen atzetik jarraituko dute galdeketa. Orain urrats guztiak erreparatu nahi ditut zuekin.

Hurrengo orduan lanean aritu ziren hirurak. Jakerrek segizio teknologikoak ziurtatuko zituen. Jabier Lopezek arratsaldeko miaketen antolaketa erreparatu eta atxiloketarako beharrezko logistika ziurtatuko zuen. Manuk, bere taldeko laguntzaileen jarduerak zehaztu eta gidatuko zituen. Dena den, Jabier Lopezek, nahi gabe ere, gogoratu egin zion ikertzaile lagunari nork aginduko zuen.

–Manu, gogora ezazu ondoko tabernan gu hirurok eta Ramon Zudaire egongo garela, Lala eta Elena hurbil, baina leku seguruan. Foruzain talderik hoberena kaleko arroparekin prest egonen da inguruan.

–Bai. Mila esker gogoratzeagatik. Garrantzitsuena gaizkileak tranpan erortzea eta ihes ez egitea da. Zuek egiten duzue lanik gehiena eta aseguratuko duzue, baina kontuz...! Talderik txiripitiflautikoena izanda ere, Txominek eta on Mario horrek nabaritzen bazaitzete, alferrik izanen da. Ordua heldu arte,

segada itxi arte handik hiru kaletara egon behar dute ongi banatuta prest. Ez da kritika, aukera galtzeko beldurra baizik.

–Horixe da gauzak argi uztea –izan zen komisarioaren erantzuna.

Handik gutxira, miaketa eta atxiloketako alderdi guztiak zehaztuta, banatu ziren ekintza gauzatu arte. Jaker eta Manu bulegora itzuli ziren denboralditxo batez dena behar bezala uzteko eta ekipoak hartzeko. Arratsaldean zuzunean joango ziren tabernara.

Bitartean, Etsaia, on Mario, luxuzko etxe batean, Alfa eta Anjel Floresekin mintzatzen ari zen. Alfak, Manu eta familiaren behaketaren ondorioak azaldu zizkion nagusiari. Aukera guztiak aztertu nahi zituen nagusiak eta edozeren gaineratik Manu harrapatuko zutelako ziurtasuna izan.

–Filok zelatatzeko eta ikertzeko oraindik lagundu ahal digu, baina honezkero ez dut uste Manu berarekin fidatzen denik. Une honetan bai zuek bai bera ere ezin zarete harengana hurbildu ezagutzen zaituztelako eta fidatzen ez delako. Alfa, zuk ezagutzen dituzun morroiak onak dira segizioak egiteko, ez beste batzuek bezala, baina ekintza berezietarako norbait behar dugu eta ez naiz gure lan arruntetarako mutilez mintzatzen ari. Horiek gehienez indarrezko operazio baterako edo segadarako balio dute. Zuek nor erabiliko zenukete Manurengana hurbiltzeko? –Anjelek erantzun zion.

–Bada emakume erakargarri bat Manu harrapatzeko desiratzen ari dena. Martak edozein erakarriko luke... –Alfa haserretu zen eta adierazi zuen arrazoia.

–Zu lelotuta zaude. Marta? Ez al zenekien behin Manu harrapatzeko erabili zutela? Marta erakargarria izango da, baina Manu ez zen beraren tranpan erori, Filorenean erori ez den bezala. Anjel, utzi lelokeriak. Manu Elkano ezustean harrapatu behar dugu. Nagusi, nik uste dut, erran dizudan bezala, Iruñeko garajea harrapa dezakegula –Etsaiak isilarazi zituen.

–Aski da. Eman itzazue ideia egingarriak edo bestela garbi utzi zein ideia eta plan baztertu behar ditugun.

–Autoz harrapatzeko ahalegina egin dugu. Orain ez dugu etxerako bidean ezustean topatuko –izan zen Alfaren komentarioa. Anjelek ere jarraitu zuen.

–Autoaren bidean orratz batekin pozoiz dezakegu; bestela, autoa manipulatu edo aparkalekuan lehergailua jarri... –Etsaiak moztu zion.

–Nik nahiago nuke bahituko bagenu. Hartara, aukera izango genuke gure eskutan izateko. Gizon horrek larrutik ordainduko du nire gazetan sartu izana –izan zen Etsaiaren sententzia. Alfak berdin pentsatzen zuen.

–Nola edo hala harrapatu eta hil egingo dugu asko sufriaraziz.

Eguerdian detektibea Arrotxapeara jaitsi zen tentuz, betiko neurriak hartuta. Garajetik ateratzean familiako betiko auzokidea zen Mariarekin egin zuen topo.

–Kaixo Manu, aspaldiko. Zer moduz zaude?

–Ongi erran behar. “Landalan” beti eta presaka, denbora librerik gabe. Asteburuetan ezin gara nahi bezala lasai ibili. Eta zuek nola zaudete?

–Oskar eta biok ongi eta gure alabak ere bai... Aizu Manu, barkatu baina ez zaitugu aspaldi honetan pisutik pasatzen ikusi. –Maria gurasoen laguna zen. Konfiantza osokoa eta aitarekin batera pisu haietan euskaldun peto bakarrenetako bat. Horregatik zeukaten familia-tratua eta elkar maite zuten.

–Lehen erran dizut. Lanpetuta nabil eta...

–Lasai mutiko. Hala bada, hala bedi, baina gehiago egon behar zenuke familiakoekin. Lastima da lanagatik zuek, Miren eta biok, bananduta ibiltzea. Haurrekin ikusi zaitut askotan, baina... badakizu, zuek zoriontsu ikusi nahiko zintuztegun. Barkatu zuen bizitzan sartzeagatik, Manu.

–Ez da bekatu, Maria. Badakizu nahi izatea ez dela beti ahal izatea!

–Hala da. Ongi ibili Manu.

Etxean arinki bazkaldu eta lo-kuluxka egin zuen. Ongi, deskantsatuta eta lanerako prest egon behar zuen. Arratsaldean, Manu eta Jaker, komisarioarekin eta Ramon Zudaire inspektorearekin elkartu ziren kafetegi baten barnealdean, egin behar zuten operazioratik hurbil. Atxiloketa gauzatuko zuten foruzainek ez zuten uniformerik. Behin eginda, uniformedunak eta auto-furgonetak agertuko ziren. Ikertzaileek eta foruzain-buruek Txominen jarraipena egin zuten GPSaren seinalea ordenagailuko plano gainean jarraituz. Garaiz zetorren hitzordurako. Ordua baino 30 minutu lehenago lur-azpiko aparkalekuan utzi zuen autoa. Handik aurrera telefonoaren seinaleak hoteleko kafetegiaren inguruan itzuli lasaia egiten ari zela ikusi ahal izan zuten. Ziurrenez, inguruak ikuskatzen ari zen inork zelatan izan edota harrapa ez zitzan. Arratsaldeko seiak izateko bost minutu falta zirenean kafetegian sartu zen. Orduantxe kontuz mugitzeko agindua eman zuen komisarioak. Bi foruzain buruak eta ikertzaileak ere ondoko taberna hartatik kamara batetik jarraitu zuten momentua. Txomin, mahai diskretu batean eseri zen. Gizonak musika tresna luze baterako motxila zeraman eta ondoan utzi zuen. Kamareroari kafe bat eskatu eta berehala gizon zahar bat hurbildu zitzaion. Iruzurtiaren telefonotik entzun ahal izan zuten solasa.

–Kaixo Alfredo, ez al da on Mario agertuko?

–Ez. Arratsalde on Txomin. Nagusia zure lanen zain dago. Zuk egindako artelanen ordainetan dirutza irabazi duzu. Poltsan duzu saria.

Une hartan Komisarioaren agindua entzun bezain laster kaleko jantziez lau foruzain hurbildu eta gaineratu zitzaizkien solastunei, geldiaraziz eta miatuz. Emakume batek ozenki eta garbi hitz egin zien atxilotuei.

–Foruzainak gara. Atxilotuta zaudete.

Besterik gabe lau foruzainek kafetegi-hotelaren barnealdeko biltegi batera eraman zituzten atxilotuak eta zeramatzaten gauzak. Lehenago hitz egin zuen emakumeak komisarioari deitu zion.

–Komisario, Duarte inspektoreordea naiz. Iruzurtia eta mezularia atxilotu ditugu. Musika-tresnetarako motxila handian bost edo sei mihise handi topatu ditut. Arte abstraktuko margoak direla dirudi.

–Ongi egina, inspektoreorde. Ingurua ziurtatuko dugu berehala. Zuek gure esperoan geratu. Minutu gutxitan hor izanen gara.

Handik gutxira foruzain-burua eta ikertzailea kafetegira sartu ziren. Foruzaingoko furgoiak eta autoak agertu ziren eta foruzainek ingurua aseguratu zuten. Beste inor ez zuten harrapatu. Komisarioak herriko eta pisuko tailerretan egindako miaketen berriak jaso zituen. Bukatutako eta erdizka egindako beste mihise eta material pila bat topatu zuten herrian bereziki. Orduantxe sartu ziren biltegian lehenengo galdeketak egiteko. Duarte inspektoreordeak eman zien korreoaren berri.

–Gizon hau Alfredo Pomar da, El Salvadorrekoa eta Iruñean duela zenbait hilabete bizi dena. Bere ohiko bizitokia Kolonbiako Bogota da –erran zuen dokumentu bati begira. Lopez komisarioak galdera bat egin zuen.

–Nor da zuen nagusia? Hitz egiten baduzu zigorra arinduko dizugu; bestela oso gogor jokatu dugu zurekin. –Gizonak ez zuen txintik ere atera. Bere jarreraz ez zuela hitz eginen adierazten zuen. Komisarioaren baimenarekin Manuk egin zuen hurrengo galdera.

–Badakigu on Mario dela atzean dagoena. Non gordetzen da? –bestean harridurarako gizonak zerbait erran zuen.

–Guk ere badakigu zu zertan zabiltzan. Manu Elkano, ikertzaile sarkina zara. Zureak egin du!

Denak harrituta geratu ziren. Bazekiten gizon hark ez zuela ezer gehiago erranen, momentuz behintzat. Zer zekiten gaizkile haiek eta zertan zebiltzan? Manuk pentsatu zuen haiek zirela bere atzetik zebiltzanak eta akabatzen saiatu zirenak. Baina..., saiakerak iruzur-kasuen aurretik ere gertatu ziren. Horrek erran nahi zuen gaizkile haiek bere atzetik aspalditik zebiltzala. Aspaldiko etsaiak zituen haiek. Manuren lagunek izututa begiratu zioten Manuri. Jabier Lopezek kezka adierazi zuen, baina baita erabakimena.

–Manu..., jakinen dugu zer dagoen guzti honen atzean.

On Mario ez zen agertu. Telefonoz eta korreo elektronikoz aipatzen zuten nagusiaren izena zen. Margolan faltsuak jasotzeko, ordea, gizon zahar bat bidali zuten, ez nagusia espero zuten bezala; nagusiaren konfiantzazko bat baizik. Gizon zaharrak ez zuen besterik adierazi. Aipatu zuena Manurentzako mehatxu bat zen. Ikertzaileek eta foruzainek uste zuten gaizkile iruzurgileek ez zekitela beraiek zelatatzen ari zirela eta haien atzetik zebiltzala, eta hara non, ezustean bitartekari batek Manuri

adierazi zion sarkina izateagatik haren berri zuela eta bere lanagatik jo-puntuari zutela. Ez zen gehiegi harritu azken aldiaren jarraitu eta zenbaitetan erditik kentzen saiatu baitziren. Baina, iruzurgileek zerikusia al zuten aurreko kasuekin? Nor izango zen haren atzetik zebilena? Aspaldian, beste kasu bat ikertzen ari zenean, autoz harrapatzen saiatu ziren. Autoa manipulatu zioten. Aurreko astean Filok segada batera eraman zuten eta tirokatu zuten. Egunetan jarraitzen eta zelatatzen zutela nabaritu zutenetik kontu handiz ibiltzen zen eta familia zaintzeko baimena eman zien foruzainei. On Mario izena ezezaguna zitzaion, baina izan zitekeen azken urteetan bere ikerketekin nahigabetutako gaizkile talde baten burua.



## 14. Bahiketa

Arratsaldeko azken orduetan Manu obsesionatuta zegoen lanarekin eta bat-batean sortutako arriskuarekin. Ordu batez Jabierrekin mintzatzen egon zen. Neurriak hartu behar zituzten, familiakoak seguru izateko eta hurrengo egunetan Manuren jarduna zehazteko.

Auzora heldu zenean lagunak abiatuak ziren ibiltzeko eta familiakoekin solastu zen telefonoz. Ongi zeuden, baina ez zuten ulertzen Manu urrun ibili behar izatea. Lagunak itzuli zirenean afaria kanpoan egitea erabaki zuten. Felix lanean utzi ondoren sagardotegira joan ziren afaltzera. Joxe, Patxi eta hirurak, Pablo, Andres eta Xabierrekin afaria egin eta auzoan ibili ziren. Dena den, Manu goiz oheratu zen, hurrengo egunean egitekoak zituen eta.

### Maiatzaren 20a, larunbata

Eguraldiak hobera eginen zuela zioen irratiak. Manuk gogoratu zuen Jabierrekin eztabaidatutako plana. Beldurrak jota zegoen arriskuan baitzen, baina beste erremediorik ez zuen dena konpondu behar bazuen. Animatu zen egun gutxitan modu batean edo bestean bizitza konponduko zuelako.

Haginlariarengana joan zen. Lehenengo orduan egon behar zuen han. Heldu orduko erran zioten langelara pasatzeko. Elkar agurtu ondoren lan hartako besaulki batean etzanarazi zuen haginlari umoretsuak. Lan berezi bat egin behar zioten hagin batean. Denbora eskasean abisatu bazioten ere, berehala eman zion Manuri hitzordua. Anestesia txertatu eta berehala eguneko kontuez isildu gabe lana egiten hasi zen torno eta aparatuekin. Lan berezia zen hura eta ordu oso batez akatsik gabeko lana egin zuen profesionalak. Haginak osorik eta osasuntsua ematen zuen, Manuk ispilu bereziaren bidez ikusi ahal izan zuen bezala.

Goiz erdian bulegora joan zen lana aurreratzeko. Kasua, neurri handi batean, beraien kontratuari zegokionez behintzat bete zuten. Iruñean ari zen margolanen iruzurtia harrapatu zuten. Foruzainen galdeketen emaitzen esperoan txostenak osatzen aritu zen ikertzaile beteranoa. Jaker ikerketa teknologiko batzuk burutzen ari zen, Lalarekin hainbat lan aztertuz. Manuk, Jabierren deia espero zuenean beste ahots bat entzun zuen. Aurreko asteetan ezagututako diskoteka bateko nagusia zen. Juan Fontan urduri zegoen eta totalka hasi zen erraten bere pisu batean zerbait gertatzen ari zela. Manuk argi kontatzeko eskatu zion. Gizona berriro hasi zen.

–Aitona-amonena zen pisua, duela gutxi eman zidaten testamenduan. Jabegoa eskuratu ondoren alokatu nuen eta orain zure laguntza behar dut.

–Ea, esadazu non dagoen pisua eta zergatik nahi duzun ikertzea –adierazi zuen lasaitasunez.

–Irurtzunen dago eta alokairuan dagoen mutila zer edo zer arraroan ari da. Bizilagun batek bitan adierazi dit pisuan gauza arraroak egiten dituztela. Nik pentsatu dut zuk ikertu eta probak bila ditzakezula, nik handik erauzi ahal izateko. Asteburuan han egongo da, baina astelehen goizean lanera

joango denez, zuk lan egin dezakezu –erran zuen lasaiago. Hala ere, Manu nekatzen ari zen. Ez zuen ikerketaren beharra ikusten.

–Ez al duzu berarekin hitz egin?

–Saiatu naiz, baina badirudi ez duela nahi. Badakit zerbait arraroa ezkututzen duela. Mesedez lagun iezadazu.

–Beno, astelehenean begiratzera joan gaitzke. Non dago pisua?

–Ardanzeta kalean dago...

–Barkatu, bidali helbidea mezu bidez. Hartara, ez zait informazioa ahaztuko eta agertuko da ofizialki zuk eskaera egiten diguzula. Orain beste kasu batean ari gara eta utzi behar zaitut.

Handik gutxira, Jabierren deia jaso zuen.

–Manu, orain arte ibili gara galdeketak egin nahian eta ez dugu ezer lortu. Alfredo Pomar izeneko gizon zaharrak ez du txintik ere atera. Abokatua eskatu baino ez du egin. Nik uste dut zail dugula ezertan harrapatzea.

–Eta Txominek ez al du ezer erran?

–Bai. Erran du berak erreproduzio onak baino ez dituela egiten. Oraingoz ez du hitz egin, baina iruzurretan dabilelako probak ditugu. Mihiseak, margoak eta egindako lanek hala probatzen dute, Elena martxantak baieztatu duenez. Dakien guztia kontatuko digu, baina ez dut uste gauza handirik izanen denik.

Ez ziren askoz gehiago mintzatu. Eguerdia zen eta auzora jaitsi nahi zuen bazkaltzera. Kontu handiz jaitsi zen kalera. Karrikapeetan begiratuta gizon bat nabaritu zuen zain. Bestaldera mugitu zen arin, jende pila artean utziz. Itzuli handiagoea egin zuen aparkalekura eta autora joateko, baina hurbiltzean zerbait arraroa nabaritu zuen. Berak segurtasunerako uzten zuen proba ezabatuta zegoen, goizetik norbait han aritu zelako seinale. Badaezpada, lekua utzi, ondoko geltokitik taxia hartu eta Arrotxapeara jaitsi zen. Jabierri deitu zion aparkalekua miatu zezatela eskatzeko.

Toki Alain bazkaltzeko asmoz sartu zen. Goiz zenez Felixek eta Gabrielak platerak prest zituzten ia, eta momentuz bazkaltiarrik gabe lasaiago zebiltzan. Umorez ari ziren azkeneko prestaketak egiten. Bat-batean Gabriela komunera mugitu zen arin.

–Barkatu, Trump egiteko gogoia dut-eta –Felixek azaldu zion lagunari bromaren zentzua.

–Trump hitzak ingelesez erran nahi du puzkar txikia. Gabrielak behin eta berriz erabiltzen du baita ur handiak egin behar dituenen ere... Manu, lana bukatu al duzu?

–Hala espero dut. Hala ere, ez dakit zer egingen dudan. Gure lanean edozein momentutan atera behar dugu zitzuan Trump batzuk konpontzera. –Bi lagunek barre egin zuten hitzari eman zioten zabalkuntza semantikoarekin. Orduan agertu zen Gabriela eta senarrak komentatu zion Manuren aipamena.

–Manuk espero ez dituen lan desatseginei zabaldu die erabilera.

–Arrazoi osoz –izan zen emakumearen komentarioa.

Manuk lasai bazkaldu zuen Gabriela eta Felixekin, hauek batzuetan lanagatik mugitu baziren ere. Ondoren ikertzailea etxera mugitu zen atsedean hartzeko.

Arratsaldean seme-alabak bisitatzen joan zen gizona. Handik ordu batzuetara Hendaiara, Mirenen lagun baten pisura abiatuko ziren gaua eta igandea pasatzera. Alaba eta semearekin denbora batez izan ondoren, haiek autora poltsak eramaten zituzten bitartean Mirenekin solasteko aukera izan zuen. Emazte ohiak kezka eta susmo aurpegia jarri zion.

–Ea Manu, zer gertatzen ari da?

–Ezer ez. Lanaren arazoak dira. Oraingo ikerketak duda eta hutsune batzuk utzi ditu eta ez dakit kasua erabat bukatutzat eman behar dudan.

–Aski da. Ezagutzen zaitut usapal hori! Zer ezkutaten duzu? –Esaldiak bota bitartean zuzen eta zorrotz begiratu zion gizonari. Segidan jarraitu zuen erretolikarekin.

–Zer da hain arraro jartzen zaituena? Zer uste duzu, ez naizela konturatu foruzainak gu zaintzen ari direla? Duela zenbait egun aurpegi batzuk ezagunak egiten zitzaizkidan eta ez ziren gurasoak –izan zen Mirenek luzatu zuena.

–Ez izan paranoikoa!

–Ez naiz. Zugandik ikasi dut ingurua aztertzen. Zure gurasoak eta baita ni ere zaintzen gaituzte. Zein arriskutan zaude eta gaude? Zertan ari zara? Ez diot Jabier Lopezi galdetu nahi, zuri baizik.

–Badaezpadako neurriak dira. Gure inguruan gaizkile batzuk ari dira...

–Ea, erran egia! –bota zuen haserre emakumeak.

–Egia da... ni zelatatzen ari direla eta badaezpada...

–Horrela jarraitu behar al dugu? –Gizonak aurpegi serioa jarriz erantzun zion.

–Ez. Berehala bukatuko da hau. Gainera..., erran behar dizut ikertzaile pribatu lana utzi behar dudala. Ez dizut ezer erran azken egunetako kontu ziur-ziurra ez delako, baina Udaltzaingoan, Foruzaingo eta beste poliziaekin koordinatzeko lan burokratikoak proposatu didate. Bulegoko lana egingen nuke eta

bestela kalean zerbait egiteko beste batek gidatuko luke taldea, inspektoreorde batek, nik telefonoz edo bulegotik aginduko dudan bitartean.

–Manu, hori zoragarria litzateke. Ez dakit sinistu behar dudan. Beldurrak, larrialdiak eta urruntasuna bukatuko lirateke... –Bat-batean serioago jarri zen—. Baina Manu, orain arriskuan al zaude?

–Ez. Beno..., bai. Baina berehala konponduko dugu.

–Ustez konponduko dela ari zara erraten, baina ez zaude ziur.

–Nahi duzuna. Egun gutxi barru dena konpondukoa da!

Lagunek ezuste atsegina prestatu zioten Manuri. Paseatzeko arazoak zituela ikusita, Joxek auzoko gimnasioan promozioiko saio baterako paseak lortu zituen. Hara joan ziren Manu, Patxi, Felix eta laurak. Jende gutxi zebilenez lasai egon ahal izan ziren spinning, lema, zinta eta pisuak elkarrekin hurbileko aparatuak erabiliz solasaldia jarraitzen zuten bitartean. Ordu eta erdi bat egin ondoren dutxatu ziren eta Patxiren etxean merienda-afaria antolatu zuten. Lagunek bazekiten kalean ibiltzea, ordu eskas batean aurreko egunean egin zuten bezala ez zela egokia, Manu jarraitua eta behatua izan ahal zenean. Hala ere, gustura egon ziren zerbezak hartzen eta solasten. Une batean Trump-en ateraldiak eta keinu txarrak ere komentatu zituzten, baina pailazokeriez aspertuta eta nazkatuta berehala utzi zuten gaia. Nahi gabe, serio jarri ziren Felix eta Patxi droga kontuak aipatu zituenean.

–Alabak erran dit gazteek gramo bat koka euro gutxitan lortzen ahal dutela. Oso berri larriak heltzen ari dira gure ingurura. Nik ez dakit zer egiten ari diren poliziak. –Hori adierazten ari zela, Manuri begiratzen ari zitzaion. Honek ulertu zuen lagunaren galdera isila eta erantzun zion.

–Lasai Patxi. Ezin dizut berri zehatzik eman, baina Foruzaingoan behintzat ikertzen eta planak egiten ari dira droga saltzaile sarearekin bukatzeko. Berehala jakinen dugu zerbait –Felixek jarraitu zuen.

–Nik dakidanez foruzainak eta poliziak ari dira mugitzen, baina ez dute atxiloketarik egin.

Gai kezkarria ere baztertu zuten, gaua hobeki bukatu behar zutela pentsatuz. Zer egin eta mozkortzea erabaki izan balute bezala gaztetako garaiak eta balentriak gogoratuz denon osasunean edan zuten. Berrogeita hamarretara hurbiltzen ari ziren. Gehienek seme-alaba kozkorak zituzten, baina orduko gazte eta ilusioz beteta sentitzen ziren. Udarako asmoak ere komentatzen egon ziren. Agur-festa bat zirudien hark. Manuri iruditu zitzaion beraren omenez ospatzen ari zirela.

## Maiatzaren 21a, igandea

Eguraldi ona iragarri zuten. Igande goiz arraroa izan zen. Zazpiak baino lehen esnatu eta gosaldutakoan nahi zuena egiten ahal zuen Manuk. Familia-bazkaria ospatu arte libre zegoen eta ez zuen ezer berezirik egin behar. Bakardadean, bere familia eta bizitzaz pentsatzeko aukera izan zuen. Bere buruaz barre egiteko gogoia ere bazuen. Beti presaka ibiltzera ohituta, ez zekien zer egin bat-bateko goiz librearekin.

Pentsatu zuen gustura egonen zela familiarekin, June, Mikel eta Mirenekin. Gogoratzen zituen bost urte lehenago haiekin bizi izaten zituen igande goizak, haurren algara eta poza; jolasak eta emaztearekin zeukan tratu eta hurbiltasuna. Zorionsua zen orduan, momentuan bizi baino ez zuen egiten. Orduak eman zituen horretaz pentsatzen, etxeko garbiketak egiten zituen bitartean. Lagun guztiek zuten beren bizitza eta igande goizetan beti zuten zer egin, etxeko lanak aparte. Dena den, ikertzailea konturatzen ari zen bere buruaren benetako kezka, lan hark berari eta bere familiakoei sortzen zien arriskua zen. Maite zituenen ziurtasunak eta osotasunak kezkatzen zuten. Lanean egindako etsai batek eragiten ahal zuen istripua zeukan buruan. Manu ezin zen bizi horrelako beldur eta erantzukizunekin. Aldatu nahi zuen egoera eta aukera omen zuen. Baina, lehenik bere burua jarri behar zuen arriskuan. Uneko arrisku handia, betiko bizitza lasaiaren truke.

Hiru ordu baino gehiago eman zuen etxean, gora eta behera, dena garbi uzten; garbitutako arropa txukundu eta armairu eta tiraderetan sartzen eta janaria antolatzen. Bat-batean WhatsApp bat jaso zuen. Iñaki zen, New Yorkeko laguna. Berak, urrun egonda eta eguneroko bizitzarekin zerikusia ez zuenez, perspektibarekin eta libreago hitz egiteko aukera ematen zion Manuri. New Yorken goizeko laurak ziren eta mezu bidez galdetu zion Manuri telefonoz hitz egin ahal zuen. Manuk agurtu zuen eta baiezkoa eman zion. Ordukegi arazoa zela-eta, horrela egiten zuten elkarrekin mintzatzeko. Bi lagunek azkeneko berriak eman zizkieten elkarri. Manuk zirikatatu zuen laguna.

–Iñaki, noiz utziko duzu ezkongabe bizitza desordenatu hori? Noiz itzuliko zara gurera?–Iñakik barre-  
algara egin zuen.

–Zuk lan irregular eta arriskutsu hori uzten duzunean.

–Baliteke uztea eta Udaltzaingoan lanpostu lasaia eta erregularra lortzea.

–Manu... Zorionak! Baina..., tonuagatik badakit zer bait txarra gertatzen ari dela.

–Asmatu duzu. Oraingo lana uzteko arrisku bizioan jarri behar dut neure burua.

–Inork ez daki zein arriskutsua den ezta?

–Gehienek ez, baina Jabier Lopezek eta Jakerrek badakite zein den plana.

–Manu, hobereana desio dizut. Baina..., kontuz ibili!

Manu lasaiago ibili zen handik aurrera. Behintzat lasaitu ederra hartu zuen lagunarekin mintzatu ondoren. Zein aldakor sentitu zen! Ordu bat lehenago erruki sentitzen zuen bere buruarekiko eta momentu hartan liberatuta eta edozertarako prest zegoen. Berak ahal zuena egingen zuen, gertatuko zena gertatuko zela.

Handik ordu parera atera zen. Toki Alain lagunekin elkartuko zen eta ondoren Miren, June eta Mikelekin gurasoenera joanen ziren bazkaltzera. Tabernan Gabriela eta Felix lanean ziren bitartean, Joxe eta Samuelekin elkartu zen. Pote bat hartu zuten beste lagunak esperoan. Beranduago, Patxi eta Ane agertu ziren eta eguerdian Miren, Mikel eta Junerekin bateratsu, Fina eta Bego heldu zirenean raba-

anoa ederrak eta edariak eskatu zituzten. Felixek eta Gabrielak, laguntza aprobetxatuz haiekin bat egin zuten une batez. Talde alaia eta zaratatsua osatzen zuten. Andres, Mintxo eta Xabier ere batu zirenean, zirkua muntatu zuten Mintxok ikuskizuna eman zuenean. Hitzaldi batean izanen balitz bezala edalontzian koilaratxo batekin joz arretea eskatu zuen. Gaztelania ederrean hasi zen:

–Jaun-andreok gaur egun handia da. Herri batzuk zonalde mistoan sartuko dira. Herri defendatzaileak, gainera, ez du onartu mistotik zonalde ez-euskaldunera sartzea, eskubide galtze bat izanen bailitzateke. Ospatu behar dugu... –Andresek isiltzeko keinua egin zion, baina kasurik egiten ez ziola ikusita eserarazi zuen barkamena eskatzen zuen bitartean.

–Barkatu, pixka bat edan du eta iruditzen zaio mundu guztiak jakin behar duela euskara zabaltzearen alde dagoela. –Patxik lasaitasuna berreskuratuko zutela ikusita, aprobetxatu zuen gauzak bere lekuan utziz.

–Mintxo, noiztik zaude euskararen alde? Guk euskaraz egiten dugunean, zu urrunean izanda ere, erraten diguzu gaztelaniaz mintzatzeko. Ea hemendik aurrera errespetatzen gaituzun pixka batean.

Ez zioten Mintxori erantzuten utzi. Felixek edalontzia altxatuz denon osasunaren aldeko topa egin zuen. Handik gutxira denak mugitzen hasi ziren nor bere etxera bazkaltzera, ohitura zuten bezala.

Amonak, June eta Mikeli eskatu zien mahaia eta entsalada atontzeko. Bitartean, Manuk gurasoekin eta Mirenekin une aproposa izan zuen lasai mintzatzeko. Orduantxe Manuk aipatu zien Udaltzaingoak proposatu behar omen ziona. Gurasoak poztu ziren, baina jakin bazekiten une hartan Manuk momentu txarra bizi zuela eta lasai ibiltzeko eskatu zioten.

Bazkaria gustura eta umore onez egin zuten. Primeran bazkaldu zuten arroz marinerara goxoa eta solastu ziren beren gogozko planei buruz. Udako planak egiten hasi ziren seme-alabak. Aitona-amonak geratuko ziren, baina abuztuaren hasieran Mikelek Samuelekin egin behar zuen kanpaldi bat eta Junek, Ane, Bego eta Patxirekin bi aste pasatu nahi zituen abuztuan kostaldeko herri batean. Dena den, laurek egun batzuk pasatuko zituzten, Sanferminetako lehenengo egunak bertan izan eta gero, kostaldeko apartamentu edo etxe batean. Lagun-kuadrillako familiakoekin egingen zuten ziurrenez, beste urteetan bezala.

Bazkalondo ederraren ondoren aitona-amonari agur erran zieten atsedean txikia egin zezaten. Nor bere etxera mugitu ziren lo-kuluxka egitera. Manuk ametsa utzi zuen seme-alabak eta Miren beste pisura eta bera berera joan zirenean.

Arratsaldean lagunekin elkartu zen ohiko itzulia egiteko. Lau lagunek ordu bat eman zuten oinezko ibilera bizian eta itzulitakoan merienda eta garagardo bana hartu zuten. Goiz etxeratu ziren aste-egunetarako prestatzeko. Etxera heldutakoan, Manuk dei bat jaso zuen. Amaia zen. Aspaldian ez ziren elkarrekin egon. Azken aldian, lanagatik edo, ez ziren elkartu. Gainera Manuk une hartan ez zuen gogorik maitakeriatan ibiltzeko, ezta hitz egiteko ere. Egiati jokatu zuen gizonak.

–Kaixo Amaia, ez zintudan espero telefonoz bada ere. Sentitzen dut zuri kasurik ez egiteagatik, baina oso obsesionatuta egon naiz kasu batekin eta izaten dudak bizimodu honekin...

–Lasai Manu, ez desenkusatu. Nik ere oso bolada txarra pasa dut eta ez zaitut bilatu. Aspaldian urrutiratu gara eta garbi dut gurea bukatu dela. Maite zaitut lagun bezala eta espero dut harreman ona izatea. Hala ere..., beste gizon bat ezagutu dut eta uste dut aurrera egingo dugula.

–Nola erran duzu?

–Entzun duzuna. Gure harremanak ez zuen etorkizunik eta kasualitatez gizon atsegin bat ezagutu dut, kasu handia egiten didana. Benetan gustatzen zait eta uste dut zoriontsu izan ahal garela. Bi egunetan baino ez gara elkarrekin bakarka ibili, baina uste dut onbidean garela.

–Barkatu. Ez nuen espero... Bai, arrazoi duzu. Gureak ez zuen etorkizunik. Sentitzen dut minik egin badizut. Nire erruz egon gara aurrera egin gabe. Edonola ere, maite zaitut, badakizu eta... pozten naiz zoriontsu bizi bazara.

Denbora luzez egon ziren solasean. Betiko despedida ez bazen ere, biek bazekiten beren maitasun istorioa bukatu zela. Bakoitzak bere bizitzako momentuaz hitz egin zion besteari. Amaiaren lan bizitza bideratuta zegoen eta familia bat osatzea zen bere helburua. Hogeita hamasei urte zituen eta ilusioz begiratzen zion etorkizunari. Manuk, berriz edo alderantziz, bere bizitza berregin nahi zuen atzera bueltan lan arruntagoarekin eta familiarekin itzuliz.

Handik gutxira Manu ohera joan zen. Liburu bat eskuetan, loak hartu zuen.

## Maiatzaren 22a, astelehena

Gosaldu bitartean, Manuk entzun egin zituen irratian PSOEko idazkaritzarako hauteskunderen emaitzen berriak. Pedro Sanchezek garaitu zituen hauteskundeak, boto guzien % 50 baino gehiago lortuz. Susana Diezek botoen % 40 lortu zuen eta Patxi Lopezek % 10 bat. Egun beroa izanzen zuten. Arin mugitu zen lanera joateko. Autoa miatu eta lagunaren garajejan autoa utzita bulegoan sartu zen. Bederatzietarako ordenagailua piztu zuen. Azken kasuaren txostena irekitzen hasi zen. Jaker ez zen orduko agertu eta Juan Mari Fontanek eskatutako ikerketa egitera joan behar zuen. Atera baino lehen Interneten Irurtzungo kalearen kokapena egiaztatu zuen.

Berriro autoa miatuta, hara abiatu zen. Irurtzunera helduta, Fontanek errandako tokian, pisuari zegokion argirako kontagailua falta zela konturatu zen. Han zerbait arraroa gertatu zen. Pisuaren atean ez zuen zaratarik sumatu eta sarraila irekitzen minutu eskasa eman zuen. Barnean, susmatu zuena gertatzen ari zen. Berotasuna, airea eta argitasun artifiziala, neurrigabe erabiltzen ari ziren han. Geletan marihuana landare handiak ikusi zituen. Paretak zulatuta zeuden aireztatzeko hodiak eta kableak pasatzeko. Hura Cannabis mintegi bat zen. Bat-batean hiru gizon sartu ziren. Itxura kezagarria zuten, eskuetan pistolak eramateaz gainera.

–Barkatu mutilak, Manu Elkano ikertzaile pribatua naiz eta pisuko nagusiak agindu dit hemen zer gertatzen den ikertzeko. Ikusten dut zer pasatu den. Nik nire txostena eginen dut eta kito –ez zioten

jarraitzen utzi. Gizon txiki eta mehar batek, besteak baino zaharragoa eta agintzen zuenak argitu zion egoera.

–Et, et, et... Gauzak ez dira hain errazak. Behar ez den kontuetan sartu zara. –Azentu karibearra edo nabari zitzaion. Manu izan zen bestearen jariora eten zuena.

–Ez dut ulertzen. Barkatu, pisuko nagusiaren agindua bete behar nuen. Nik utziko zaituztet zuen kontuekin, baina sentitzen dut landaketa honen berri eman behar dudalako. Hau guztia jasotzea eta desagertzea aholkatzen dizuet.

–Isil hadi, ergel hori! –erran zuen meharrak azentua nabarmenduz–. Hemen nik esaten diat zer egin. Manu, hireak egin dik! –Beste bi morroiek besoetatik heldu zioten eta... hura izan zen gogoratu zuen azkena, konortea galdu zuelako.

Astelehen goiz erdian, Manu desagertuta zegoenez, berehala erne ibili ziren lankideak. Jaker ordutik aritu zen telefonoz deika. Eguerdirako Jabier Lopez Astiz komisarioarekin hitz egin zuen eta bazkaltzeko orduan agertu ez zenean ospitaleetan galdetu ondoren, ondorioztatu egin zuten desagertuta edo bahituta zegoela. Auzoan lagun eta familiakoei erran zieten Manuk lan berezia zuela eta egun pare batean ez zela agertuko. Mezu eta abisu hura egitea aurreikusita zuten, kasua izanez gero Manuk agindu zien bezala. Manuk aspaldian pentsatuta zuen nola jokatu, bere familiarekin, berari zerbait gertatuz gero. Ez zuen nahi familiakoak eta lagunak larri eta sufritzen ibiltzea: zaurituta izanez gero, informazioan garrantzia gutxitu eta luzapenak ematea eskatu zien Jabierri eta Jakerri. Beranduago, egoera larriaren aurrean, Jakerrek Lorentxori eta Gorkari deitu zien. Gertatzen ari zenaren jakitun, banatu ziren “betiko” lekuetatik badaezpada begiratuz. Jabierrek ere, Ramon Zudairerekin ekintza azkarretarako taldeak ekiteko prest izanzen zituen.

Orduak pasatu ziren berririk izan gabe. Arratsalde erdian, orduan bat-batean, Jakerrek gogoratu zuen Manuk goizean Irurtzunera joateko asmoa zuela. Gorkak, Lorentxok eta hirurek, Irurtzunerako bidaia egin zuten azkenean. Manuren telefonoak utzitako GPS-seinalearen arrastoaren bidez lortu zuten Manuren azken urratsak Irurtzuneraino jarraitzea. Ikertu beharreko pisura heldu ziren. Pisua deseginda zegoen. Horma zulatuak eta cannabis mintegia izandakoaren arrastoak topatu zituzten. Hostoak lurrian. Ez zegoen zalantzarik. Batzuek argia lapurtuz marihuana-mintegi bat antolatu zuten pisu hartan eta deuseztu berria zuten. Manuk harrapatuko zituen azioan edota dena jasota, ihes egingo zuten. Hala ere, inon ez zen nagusi eta lagunaren arrastorik. Hiru gazteek, inguruko bizilagunei galdetuta ere, ez zuten informazio baliagarririk lortu. Ondoko batzuek aipatu zuten bizilagun berriak ikusi zituztela paketeak kamioi batean sartzen. Ikertzaileak esku hutsik itzuli ziren Iruñera. Edonola ere, arrasto posible guztiak ikertu behar zituzten.

Pisuko nagusiak kontatu zien alokatutako bizilagunarekin zerbait arraroa sumatu zuela eta Manu kontratatu zuela. Ordenagailuan Manuk berak adierazita, kasuaren artxiboa eta kontratua aurkitu zituzten. Jakerrek, ahaztu bazitzaion ere, gogoratu egin zuen Manuk gaineratik komentatu ziola kasua eta astelehenean pisuan zer gertatzen ari zen begiratu behar zutela. Irurtzungo pisuko marihuana mintegiko gaizkileek laguna bahituta ote zuten ez zekiten. Ez zuten uste gaizkile arrunt haiek besterik gabe Manu desagerrarazi zutenik. Han zerbait larriagoa gertatzen ari zen.



Berandu zenez, zerbait afaldu zuten taberna batean. Lorentxo eta Gorka joan zirenean, Jaker bulegora itzuli zen zer egin ez zekiela. Honek azken asteetako gertaerak erreparatu zituen. Dena hasi zen larriki zaurituta eta eraildako prostitutekin. Erakunde batzuen eta hackerron lanari esker geldiarazten ari ziren gaizkileen jarduera. Euskal Herrian eta inguruan ez zen emakume prostituten tratu txar larri, tortura edo snuff eta erailketa gehiagorik gertatu azken egunetan. Dena den, beste leku batzuetan orduan ere antzeko delitu larriak gertatzen ari ziren, Europako mendebaldeko hirietan eta baita Bartzelona eta Madrilan. Bestetik, Interneteko Web Sakoneko orrietan lotura batzuen bidez aurreko sareekin nolabaiteko erlazioan, arte-iruzurraren kasuak zituzten. Edonola ere, azken egunean Jakerrek amu bat jarri zuen Internet Sakonean: milioi asko balio zuten Txominen hiruzpalau iruzur-lan jarri zituen enkantean. Dena lotuta ote zegoen pentsatu zuen gazteak. Manuren bahiketak ere lotura zuen guzti horrekin? Nolanahi ere, edozeren gainera gaztearen kezka Manuren egoera zen. Berandu zen, baina Jaker, Jabier Lopezekin mintzatu zen ikerketa haietaz eta Manuren bilaketaz. Jabierrek zalantzak azaldu zizkion gazteari.

–Jaker, ezin dira Web horien helbideak topatu?

–Ez. Internet Sakonean zaila da helbideak topatzea. Deep Web-ean, ezkutukoan, TOR izeneko geruzazko segurtasun sistemak ezkututzen du abiapuntuaren jatorria. Baina... Manuk kezkatzen nau.

–Lasai. Ikusiko duzu abisua bidaliko digula. Zuek eta guk prest egon behar dugu erreskatatzeko. Txarrena azken atentatuarekin poliziak erne egon behar duela –Jakerrek ez zuen ideiarik eta galdu zion.

–Atentatu bat? Noiz?

–Duela ordu erdi bat gertatu da. Manchesterren integristek hogeit hamar haur eta gaztetxo erail dituzte bonba baten bidez kontzertu batean. –Foruzaina eta ikertzailea isilik geratu ziren. Jabierrek agurtzen eta animo pittin bat ematen asmatu zuen.

–Tira, Jaker. Bihar izanen dugu Manuren berri. Ikusiko duzu nola berreskuratzen dugun! Hara! Zoaz etxera atsedean hartzera. Bihar arte.

Alfak bi urte lehenago Nafarroako hauteskundeetan presidentea izateko hautagai bat erditik kendu nahi izan zuen. Hautagai haren etsai politikoa zen eta azkenean hiltzeko saiakera agindu zuen. Hiltzeko saiakeran hautagaiaren etsai gehienak atxilotu zituzten, baina Alfak, oso argia eta aberatsa zenez, ihes egitea lortu zuen. Mendekua ere nahi zuen. Bere helburua ez lortzea eta ezkutuan bizi behar izatearen errua poliziari eta batez ere Manuri botatzen zion. Anjel Flores Errazuk, aurreko kasuan Alfaren abokatu eta mandataria baino ez zena, ordea, kartzelan pasa zituen azkeneko ia bi urteak. Alfak, aurreko hilabeteetan itzuli zenean on Marioren eskutik Iruñea eta inguruko gaueko prostituzio eta droga aktibitateak kudeatu behar zituenean, lehengo lankideei deitu zien laguntzeko. Hala ere, Anjel Floresekin baino ez zion jarraitu. Beste lankideak izandakoek, beldurrez edo, ez zuten parte hartu nahi.

On Mariok ere lehenagotik ezagutzen zuen Manu eta akabatu nahi zuen. Droga zabaltzea eta emakumeen prostituzioaren kudeaketa Alfari utzi zion. Alfak gizon talde txiki batzuk zituen lan egiteko,

baina berehala poliziak agertu ziren sadikoentzako snuff negozioa desegiteko. Poliziez gainera Manu ere agertu zen. Horregatik kontratatu zuten Filomena Maturana ikertzaile pribatua, Manu jarraitzeko eta kontrolatzeko.

Hala eta guztiz ere, Foruzainek, Ertzaintza, Polizia eta zibilen laguntzarekin lankidetzan lortu zuten emakumeen salmenta negozioa gelditzea. Gaizkileek ez zekiten ongi nola, baina poliziek eta beraien laguntza zeukaten hackerrek Internet Sakoneko Web-ak kontrolatzea lortu zuten. Are gehiago, droga kontuetan zailtasunak zituzten eta arte-iruzurretan faltsutzailea harrapatu zuten. Denetan Manu eta bere laguntzaileak agertu ziren. Alfa haserre zegoen. Hiltzen saiatu ziren baina ordura arte ez zuten lortu. Alfak izan zuen ideia, Juan Mari Fontan, drogetan beraien sozio bat zena tranpa batean laguntzen jartzeko. Orduan on Mariok harrapatu zuen eta biharamunean elkartuko ziren denak sarkinari berea emateko. Alfa pozak zoratzen zegoen. Anjelekin zegoen hizketan.

–Anjel. Itzalak deitu dit. Galdetu dit negozioak desmuntatu egin ditugun eta agindu digu bihar goizean bere txaletean agertzeko. Hemendik alde egin baino lehen Manuren akaberan parte hartzera gonbidatu gaitu.

–Bai. Gogoz nago ni ere. Zoritxarrez berriro lortu dute gu geldiaraztea. Baina, ez al litzateke hobeki hemendik alde egitea berandu izan baino lehen?

–Zer diozu? Alde egin egingo dugu, baina lehen larrutik ordainaraziko diogu madarikatuari!

Manu buruko minez esnatu zen erdizka. Uste zuen amets txar batean zegoela, ezin baitzen mugitu. Baina laster, eskuak aurretik brida batez lortuta zituela eta koltxoi soil baten gainean etzanda zegoela ikusi zuen. Leihatila altu batetik sartzen zen argi gutxia. Gela txiki hartan koltxoia justu-justu sartzen zen luzeran. Ate metaliko batek ixten zuen pareta zati handi bat. Hura, trastetegi edo ziur aski soto bat izanen zen. Bere buruaz arduratu zenean konturatu zen jakarekin jantzita zegoela, baina zapatak eta motxila falta zitzaizkion. Irurtzungo pisua eta marihuana-mintegia gogoratu zituen: metalezko hodiak, horma zulatuak, argia, airea eta berotasuna. Gaizkile haiek harrapatu zutenean kolpe bat emanen zioten, ziur aski. Hala ere, zerbaitek erraten zion han gehiago gertatzen ari zela. Ezin zuen asmatu zer zen eta burua erlaxatzen saiatu zen. Erlaxatzeko, atzerako kontaketa egin zuen “erdi lo” geratu arte. Ongi egin zuen, orduak pasa baitziren atea ireki zuten arte.

Begiak ireki zituenean, pixontzi bat ikusi zuen atetik hurbil. Ondoan, azpil batean pizza bat eta ur pitxer bat topatu zituen. Morroia handikotea zen eta ozenki hitz egin zion.

–Hor duzu jateko eta bestelakoak asetzeko behar duzuna. Laster etorriko da nagusia. –Manuk ordua galdetu zion, baina ez zuen erantzunik jaso. Gizona segituan joan zen atea itxiz.

Manuk arratsaldea izanen zela kalkulatu zuen: hiru bat ordu konorterik gabe egonen zen eta beste hainbeste denbora erlaxatuta. Pixalarría nabaritu zuen eta egin zuen. Gero, gosetuta zegoenez pizza puska handi bat hartu zuen, nahiz eta hoztuta egon. Ura ere edan zuen. Nagusi haren esperoan prestatu zen.

Handik ordu erdira lau gizon sartu ziren gela txikian: harrapatu zuten bi handikoteak eta txiki meharra, eta beste adineko gizon dotore bat, gela betez. Nagusiak bere buruaren aurkezpena egin zuen.

–On Mario naiz, zuk bilatzen duzuna. Manu, ikertzaile ona zara, baina zure karrera eta bizitza laster bukatuko dira.

–On Mario, ez dituzu azkeneko margolan faltsuak lortu, baina negozioa beste batean jarraitu ahalko duzu. Gainera, horietako batzuk saldu dituzue dirutza irabaziz. Utz nazazu Iruñean edo inguruan eta ez duzu eraiketa bat kontzientzian izanen. –Gizonak kar-kar ozena egin zuen.

–Ez, gizontxo. Ez dakizu oraindik nor naizen. Nire bidean topatu zara pare bat aldiz. Azkenean, oraingoan ere bi negozio zapuztu dizkidazu; eta beste negozio batean, zure lagunek sudurra sartu dute –eten txikia egin zuen haserrearen haserreaz–. Sufritu egingen duzu hil arte. Ez diet zure familiakoei ezer egingo. Hala ere, bihar goizean jakingo dituzu banan banan egin dizkidazunak. Zure lagun edo etsai batzuk ere agertuko dira kontuak eskatzera...

Joatekotan zegoela, usain txarraz kexatu zen on Mario. Pixontzia husteko eta xaboia, esku-oihala, ur asko eta janari gehiago uzteko eskatu zion gizontxoari. Atera baino lehen, beste hitz batzuk luzatu zizkion Manuri.

–Orain lanpetuta nago. Nire eta laguneren ihesa prestatu behar dugu. Dena den, hamar ordu barru zure bizitzako saioren gogorrena eta mingarriena jasan egingo duzu. Presta zaituz madarikatua! Ez zara honetaz libratuko –gizontxo txikiari begira jarraitu zuen–. Presta ezazue egongela handia Manuren despedidarako eta ken iezaiozu brida hori, ez baitu ihes egingo.

Gauean afaldu aurretik, Jaker, Gorka eta Lorentxo elkartu ziren Manuren desagertetasun hitz egiteko. Hastekotan zirela, Mirenek deitu zion Jakerrri.

–Jaker, Manuren berririk izan al duzue?

–Ez. Ikerketaren ondorioz agian bihar arte ez digu deituko.

–Tira Samuel Jaka... –Horrela deitzen zionean honek bazekien Mirenek zerbait serioa erran behar ziola–. Ez disimulatu. Zer gertatu zaio Manuri? Desagertu al da? Bahitu egin dute, ezta? Berak ez gaitu uzten egoera zailen berririk eman gabe. –Mirenek errandako horrek ez zion gazteari aukerarik utzi. Jakin bazekien egia kontatu behar ziola.

–Bai, desagertu egin da eta ziurrenez bahitu egin dute. Goizetik ez dugu arrastorik eta uste dugu egoera txarrean dela. Jabier Lopezek eta guztiok larrialdi egoeran jarri ditugu gure ezagunak eta baliabide guztiak. Baina, ez kezkatu, Manuk ere zerbait espero zuen eta erran zigun ez aztoratzeko eta prest izateko. Hemen gauden Lorentxo, Gorka eta hirurok elkartu gara horretaz hitz egiteko.

–Nik ere uste dut Manuk zerbait espero zuela. Amuan jarri da burugogor hori! Nolanahi ere, uste dut arrisku larrian dagoela. Ez dut endredorik sortu nahi, baina edozertarako nago prest. Laguntza behar baduzue dei iezadazue.

–Beno... Ez dakit. Ez dugu konplikatu behar, baina lasai deituko dizugu.

–Orduan, bihar arte. Berririk ez badut goiz erdian deituko dizut edota bestela Jabierri deituko diot.

Manuk gau luzea izatea espero zuen. Beldur zen, baina goizerako prest eta erne egon behar zuen. Ariketa fisiko batzuk egin zituen, utzitako janaria eta ur erdia ahoratu zituen eta prestatu zen lotan edo erlaxatuta zortzi ordu pasatzeko. Ez zen ordu erdia pasatu, lo sakonean geratu zenerako. Behin baino ez zen esnatu eta berriro loak hartzea lortu zuen.

Goizaldean esnatu zenean, deskantsatuta eta urduri sentitu zen, baina ez izututa. Garbiketa arina egin zuen, ur gutxi erabiliz. Janari hondarrak eta geratzen zen edaria hartu zituen. Luzamendu bereziak eginda, erlaxatu eta erne egoeran jarri zen, loto jarreran. Handik gutxira, batzuen solasak eta mugimenduak nabaritu zituen. Altxatu eta prestatu zen. Atetik bi gorilak eta gizon mehea sartu ziren. Egongelara eraman zuten bultzaka, beste brida bat jarrita. Zerbitzari batzuek plateretan zizka-mizkak, edalontziak eta edariak utzi zituzten gela erdian zegoen mahai baxu zabalean. Egongelak hirurogei metro baino gehiago zuen. Bi sofa handi, luze eta zabalek betetzen zuten saloi minimalistaren alde bat. Beste bi sofa txikiagoek bi aldeetan zeuden eta sarreran apalak eta telebista erraldoia. Kristalezko ateleihoak estore zuriek estaltzen zituzten neurri handi batean. Urrutian Iruñeko alde zaharra eta Eraikin Singularra nabari ziren. Hura Iruñetik iparralderako txalet bat izanen zen. Bi gorilek aulki arrunt batean eserarazi zuten detektibea. Minutu bat pasa baino lehenago, on Mario eta jende gehiago sartzen ari ziren: Alfa eta... abokatu hura... Flores zen. Atzean Filo sumatu zuen ezkututzen ari zenean. On Mariok hitz egin zuen.

–Lagun hauek gonbidatu ditut festara. Berehala, galdera batzuk erantzuten badizkidazu, ez diet zurekin jolasten utziko eta gehiegi sufritu gabe hilko zara; bestela, egunik eta hiltzoririk luzeena eta minena izango dituzu. Zuk erabaki. Zer dakizu nire negozioaz? Bota dena derrepentean! –Manu prestatu zen okerrena jasateko eta estutu zituen eskuineko haginak mina eta krak bat sentitu arte. Zerbait erran behar zuen eta hasi zen desenkusatzan.

–Sentitzen dut mina edo sortu badizuet. Nire lana zen eta zerbait egin behar nuen –errandako hura Alfa eta Floresentzako aitzakia zen. On Mariori zerbait gehiago erran behar zion.

–Zutaz dakidan bakarra margo-iruzurrekin dirutza irabazi duzuelakoa da. Zu orain ezagutu zaitut, baina Txominen margo faltsuez duela aste batzuk jakin genuen eta zapuztu dizugu negozioa. Txominek eta gizon zaharrak dena kontatuko dute. Hobe duzue lehenbailehen ihes egitea... –Alfak moztu zion.

–Manu, hireak egin dik! Ikusi gaituzu eta ez haiz hain erraz libratuko. Guri egin zeniguna eta neskatan eta droga kontuetan sudurra sartu izana ordaindu behar dizkiguzu. Bai, ez egin tontoarena!

–Ez dakit zertaz ari zaren. Neska eta droga kontu horietaz ez dakit ezer eta... – Alfak kolpe gogor bat eman zion zigor batekin. Zerbaitek bizkarraren larruazala urratu ziola sentitu zuen Manuk. Manuk pentsatu zuen gogorki jokatuz gero, bera denbora gutxian larrutuko zutela. Egoera ez okertzeko galdezka hasi zen.

–Neskak? Diskoteketako nesken erailketan parte hartu eta snuff-a egiten ibili al zarete? Nesken salerosketa eta tratu txarrak ematekoa zuen negozioa al zen? Ez nekien. Zer egiten ahal dut zuei laguntza emateko?

–Gorriak pasatzen ahal dituzu –izan zen Alfaren erantzuna. Dena den, Mario tartekatu zen.

–Ea, nesken auzian estutu gintuzten Bilbotik Ebro arro osoa eta Zaragozaraino. Frantziako hegomendebaldean ere mugitu ziren jendarmeak, baina gure komunikazioak zailtzea, Interneteko Web Sakonean gure orriak jakeatu zenituztenean... Nola egin zenuten? –Ikertzaileak pentsatu zuen hitz egin behar zuela. Luzapena behar zuen. Egia errateak minutu gehiago emanen zion.

–Hacker talde batek lagundu die poliziei. –On Mario gehiago haserretu zen.

–Nola ez! Eta zure lagun Jakerrek ez du zerikusirik eraso horretan, ezta?

–Arrazoi duzu. Berak parte hartu du, baina horretarako kontratatu gintuzten diskoetako jabeek.

–Berdin dit Amabirjinak kontratatu bazintuzten. Gure martirioa izan zarete. Droga kontuetan ere oztopo izan zarete... eta ez da lehenengo aldia. Duela lau urte tartekatu zinen eraikuntza eta herri-lanetan aberastutakoak, baita orain dela bi urte Alfaren hautagai-etsaiaren aferan ere.

–Alfa ezagutu dut. Baina, zu al zinen eraikuntzako aberatsen erailtze haien atzean ibili zena?

–Zer? Estortsio-sarearen burura beste bat zela uste zenuen? Inoiz ez zenuten susmatu ni izan nintzela denaren erantzulea eta antolatu zuena?

–Susmatu? Ez. Beste batek agintzen zien Antoniori eta besteei. –Gizonak barre-algara egin zuen. Ahal izan zuenean zerbait erran zien.

–Eta nik agintzen nion agintari horri. –Ez zuen gehiago azaldu. Isiltasuna gordetzeko eskatu zien guztiei zer egin pentsatzen zuen bitartean.

On Mariok besoetatik heltzeko eskatu zien gorilei. Itzala, Alfa eta Flores hurbildu ziren.

Foruzainen kuartelean goizeko bederatzi eta erdiak aldera jaso zuten Manuren GPSaren seinalea. Ez zegoen urruti, Artika urbanizazioan baizik. Hala ere, badaezpada ere, inor eskapa ez zedin talde handia antolatu zuten txalet handi hura eta ondoko kaleak inguratzeko. Abiatzeko hamabost minutu pasa ziren, beste zortzi baino ez hara heltzeko. Ingurua segurtatuta, Jabier Lopez komisarioak Jakerren ondotik megafonia erabili zuen Foruzaingoaren izenean Manuren askapena eskatzeko. Berrito egin zuen Manu askatzeko deia, minutu bat emanaz. Eskuak altxatuta eta armarik gabe ateratzeko eskatu zien. Bi minutuan ez zuten seinalerik eman eta berrito eskaera eginda, gizon batek oihuka erantzun zien:

–Hemen ez da Manu izenekorik! Oker zaudete. Zer da hau?

Komisarioaren ondoan Jakerrek konprobatu zuen GPSaren seinalea desagertzen ari zela, minutu bat lehenago garbi agertzen ari zenean. Gazteak adierazi zion Jabierri lur azpitik ibiliko zela edo, seinalea ez agertzeko. Jabierrek eskatu zien foruzain batzuei txaleta eta ingurua arretaz zaintzeko. Eskerrak foruzainak hogeai baino gehiago zirela. Jabierrek berriro eskatu zien txaletekoei eskuak erakutsiz arin ateratzeko. Ez erantzutean, talde berezia bidali zuten gasak erabiliz etxean leku desberdinetatik sartzeko.

Barrenean bi emakume eta bi gizon zerbitzari topatu zituzten. Hegoamerikarrak ziren guztiak. Hauek beldurrez eta eskuak altxatuta, tirorik ez egiteko oihukatzen zuten. Sortutako nahasmendua lasaitu eta gasak desagertu zirenean Jabier eta Jaker talde baten buru zerbitzari haiei galdetzen hasi ziren. Komisarioak, Manu, nagusia eta gaizkileak non ziren galdetu zirenean, ez zekitela erantzun zuten. Emakume gazte batek, zerbitzariak, pista bat eman zien:

–El Don, bere gizonak eta kanpotarrak gela sekretuan sartu dira. Sotoan daude. Jarraitu niri, polizia jaunak.

Jarraitu zutenean ate blindatu bat topatu zuten. Komisarioak lehergailuak eskatu zituen. Agertu eta bost minutura tunel batean sartu ziren. Berrehun bat metro ibilita, sototik beste etxe batean sartu ziren eta garajetik kanpoko ateak irekita topatu zituzten. Handik gertu foruzain bati galdetu zioten zer ikusi zuten.

–Inguraketatik kanpo zeuden eta ez zen susmagarria garaje horretatik auto bat poliki ateratzea. Hummer kromatu eta dirdiratsu bat zen eta inguru-bidera atera dira duela minutu bat Berriozar aldera, ikusi dunanez.

Bestalde, Jakerrek GPSaren seinalea errekonstruatu zuen eta baieztatu ahal izan zuen foruzainaren informazioa. Ez zuten nolana ere abantaila hura galduko. Jabierrek, han goian beraien zerbitzura zegoen helikopteroari abisua pasa zion. Bi minutu pasata, helikopterotik, Iruñera Sanduzelaiko sarreratik sartzeko bidea hartu zutelara kontatu zieten. Jakerrek ere hala adierazita bi autoetan jarraitzera abiatu ziren. Sanduzelaiko semaforoetan gelditu ziren gaizkileak. Ondorenean, hummerrak hartu zuen bidea egin zuten. Donibanetik inguru-bidea jarraituz handik hamar minutura autopistan ziren Tuterarantz. Poliziek bai helikopterok bai autoetan urrutitik jarraitu zuten beste auto ikusgarria. Ordu eta erdi batez jarraituta, Zaragozako inguruetan txalet batean sartu ziren gaizkileak, GPSak adierazten zuen bezala. Manu zeramaten beraiekin.

Jabier Lopez komisarioak Zaragozako poliziari abisua pasa eta komunikazioak eginda, berriro etxe bat inguratu behar izan zuten. Handik ordu erdira megafoniaz Manu askatzeko eta errenditzeko eskatu zieten beraiei. Norbaitek baldintza batzuk oihukatu zituen:

–Utzi hemendik ateratzen eta Manuri ez zaio ezer gertatuko –Jabierrek erantzun zien negoziazioa hasiz.

–Utzi ikertzailea libre eta negoziatu egingen dugu.

–Ondoko parkean helikopteroa uzten badiguzue, gizona askatuko dugu.

–Ez. Talde berezi batek erasotuko zaituzte bost minutuan. Askatzen ez baduzue erailketa egiteko asmoaz ez zarete libratuko.

Erantzunik eman gabe, denbora pasa zenean eraso taldeak, gasezko granadak bota eta sartu ziren barrenera eta haien atzetik minutura ikertzailearen lagunak. Gaizkileak atxilotzen ari ziren eta zorionez Manu bizirik aurkitu zuten. Zauriak zituen eta konorterik gabe zegoen. Hala ere, ez zirudien ezer larririk izango zuenik.

Bi gorila, gizon txiki bat eta mafioso dotore baten itxura zuen gizona atxilotu zituzten. Anbulantzia agertu zenean Manu artatu zutenez berri onak eman zizkieten. Drogek eraginda zegoen lokartuta. Handik hoge minutura Iruñeko bidean esnatu zen Manu. Haren ondoan Jakerrek eta Jabierrek nola zegoen galdetu zioten. Honek berehala mintzatu zen.

–Jabier, Jaker, lortu al dugu? –Jabierrek erantzun zion.

–Bai, orain egon lasai. –Edonola ere, Manuk hitz egin behar zuen. Bere egoera tamalgarrian lagunei begiratzuz irri egin eta hitz egin zuen.

–Ez. Zuek uste duzuen baina gehiago gertatu da hemen. Xehetasunak kontatuko dizkizuet. Zuk Jabier lankide berri bat lortu duzu; Zuk, Jaker, zeure nagusi izatea lortuko duzu, edo ia, Lala kontuan hartuta eta neu... libre, aske izanen naiz!!

## 15. Amaieraren ondoko oharrak

Egun batzuk pasa ziren Manuren bahiketa eta erreskatea gertatu zirenetik. Manu ez zen lanera joan. Atsedean hartu zuen deskantsatzeko eta pasa zuena emozionalki gainditzeko. Nolanahi ere, ez zen geratu ezer egin gabe, denbora pasa hutsean. Jabierri eskatu zion koordinazio taldearen eraketaz informazioa eskatzeko. Aldi berean udaltzain-buruekin hitz egin zuen zuzenean lan hartan hasi behar bazuen baldintza onetan egiteko. Orokorrean aurretik emandako baldintzetan eskainiko zioten lana. Edozein modutan zerbitzura itzultzea eskatu zuen. Irailean itzuliko zen eta hilabete bat emango zieten zerbitzua martxan jarri arte. Bitartean, Lala eta Jakerrekin hitz egin eta ikertzaile agentzia haien izenean jarriko zuen. Bulegoa, altzariak eta aparatuak bereak zirenez, Manu “kaseroa” baino ez zen izanen. Kontratu bat eginen zuten handik bi urtera, bulegoa erosteko aukera barne izanen zuena.

Bestalde, bizitza berriak bazeukan alderdi pertsonal bat. Lanean bezala familiarekin hilabete batzuetako epea eman zioten elkarri berriro hasteko. Miren eta biak luze eta zabal mintzatu ziren. Manu ez zen besterik gabe betiko familia-etxera eta ohera itzuliko bost urte pasatu izan ez balira bezala, Manugatik izan balitz hala eginen zuen arren. Mirenek oso garbi utzi zion senarra izandakoari.

–Manu, oraingoz ez duzu zure pisua utziko. Lehenago probatu behar duzu gurekin bizitzeko gai zarela. Egun batean hala erabakiz gero gure etxera etorriko zara, bitartean proban zaude. –Manuk ez zuen osotara ulertu. Gaizki interpretatu zuen?

–Zer duzu, Miren? Ez nauzu maite? Ez al duzu ni itzultzea nahi? – Mirenek lehenengoz egin zuen barre.

–Maite? Guk elkar maite dugu. Beste kontu bat izan da zuk zenuen bizitzagatik banatzea. Zer uste duzu Amaiarekiko harremana seriotzat hartu dudala? Nik izan dudana harreman bakan batek gurea ezabatu duela?

–Ez dut halakorik erran. Uste nuen zu jeloskor zinela. –Mirenek jarria moztu eta argitu zion.

–Aspaldian hitz egin nuen Amaiarekin. Bera jakitun zen zuen harremanak ez zuela etorkizunik izanen. Luze eta lasai mintzatu ginen. Badakit inoiz ez duzuela bestelako planik egin, zuk nahi ez zenuelako. Berak erranda ni maite nauzulako. Ez dut gehiago hitz egin nahi. Ni prest nago berriro elkarrekin egoteko eta familia bat izateko, baina poliki joan behar dugu.

–Bai... Arrazoi duzu.



## 16. Argitu beharrekoa: on Mariok eta gizon txikiak errandakoa

On Mario zazpi urte lehenago promotorea zen. Krisiagatik dirurik gabe geratu zirenean, herri-lanetan eta promozio handietan aberastutakoei estortsioa egiten hasi ziren. Ordura arte ez zuen inor hil, baina dena konplikatzen hasi zenean, zerbait lortu nahi bazuen gogor jokatu behar zuela pentsatu zuen. On Mario, lekukoak zirenak hiltzen hasi zen, baita bere kideak izandakoak ere. Azkenean, ihes egin zuen, bere arrastoa erabat ezabatuz. Ameriketara joan eta bost urtera, Alfa ezagututakoan, itzultzeko planak egiten eta mendekua prestatzen hasi zen. On Mario arte-iruzurra zuzenean eraman zuen hasieratik. Mafiekin harremanetan, negozioa handitzekotan, prostituzio, trata eta droga sareak Europa mendebaldean zabaltzeko plangintza egin eta gauzatu zuen. Aurreko hilabeteetan itzuli zenean, on Mariok, Itzala edo Etsaia ezizenak hartu zituen, bere identitatea gorde nahian eta oso gogorra izateagatik.

Arte-iruzurren tratuan ibilitako gizon zaharrak, alfredo Pomar, kontatu eta baieztatu zien foruzainei on Mariok arte-faltsutze negozioa zuzenean eraman zuela. Horretaz gainera, gauza bakar batez arduratu zen: Manu Elkanoren segimendu eta kontrolaz. Beste negozioak, garrantzitsuak izanda ere, Alfak zuzendu zituen Anjel Flores laguntzarekin eta Itzalak sareak zabaltzeko utzi zizkion gizon taldeekin. Beraz Alfa deitzen zuten hark kudeatu zituen emakumeen salerosketa, droga eta snuff negozioak. Sareak antolatu eta aprobetxatu zituen negozio guztiak eramateko. Dena den, "Itzala" bezala ezagutzen zen on Mariok eta Alfak interes berezia zuten ikertzailearengan. Beren negozioetan poliziaz gainera, Ertzaintza, Foruzaingoa eta ikertzaileak beren jarduna geldiarazten hasi zirenean, Alfak eta Itzalak Manu behingoz harrapatzeko eta akabatzeko planak jarri zituzten martxan. Floresek ere interesa zuen horretan, baina Filo, erabili bazuten ere, ez zegoen hain ziur. Filok berehala erran zien foruzainei Alfa eta Flores Sanduzelain autotik jaitsi zirela eta Arrieta kalean pisu batean bizi zirela. Biak harrapatu zituzten maletak egiten ari zirenean. On Mario, Alfa eta Flores auzipetuko zituzten, beren menpeko gaizkile guztiak bezala. Filo ere ez zen besterik gabe libratuko. Beste gauza bat jakin zuten: Rafael Gomez Sanzol, on Marioren negozioekin erlazionatuta zegoen, drogen garraioarekin. Mafiosoak garraio-entresa hura kontrolatzen zuen droga mugitzeko. Rafaelek pertsonalki egiten zituen droga garraioak. On Marioren gizonak bahitu zuten haien arteko kontu garbiketa batengatik. Rafaelek saldu omen zuen bere aldetik droga partida bat eta bahiketa erabili egin zuten galdutakoaren balioa berreskuratzeko.